



SALMOAK

GAIKAKO AURKIBIDEA

Batzuetan zaila da salmo bat gai oso definitu baten barruan kokatzea, sarritan salmo berean otoitz jarrera ezberdinak agertzen direlako. Kexu eta larrimin salmoa konfiantzazkoa, esperantzazkoa eta gorespenezkoa ere izan daiteke. Horregatik gaikako aurkibide honetan salmo bera toki ezberdinetan ager daiteke. Letra lodian idatziko hitzek laburbildu egiten dute salmo talde bakoitzaren gai berezia. Ordenatuta daude: **sozial salaketa, esker ona, gorespena** kreazioagatik, **gorespena** Jainkoa den bezalako delako, Jainkoa **ospatuz, konfiantza, zalantza**, Jainkoaren **intimitatea, liderrak, bakea** eta **esperantza, bekatua** eta **barkamena, eskari kolektiboak, banakako eskariak, kexak, zahartzaroa** eta gaixotasuna. **Salmoen zenbakia salmoetan datorren lehenengoa da.**

Sozial salaketa otoitzak gehiegikeriagatik, gaiztakeriagatik eta zapalkuntzagatik:

- Salmoak 14, 50, 52, 53, 55, 58, 62, 64, 78, 83.

Esker onerako gizarteko jenderik xumeenaren alde jarduteagatik maila ezberdinetan:

- Salmoak 10, 18, 30, 34, 47, 66, 68, 75, 103, 105, 107, 111, 115, 116, 118, 124, 129, 136, 138, 139.

Gorespena Jainkoari **kreazioan** agertzen delako, bertan goretsia delako:

- Salmoak 19, 29, 33, 65, 95, 98, 104, 136, 145, 146, 147, 148.

Gorespena Jainkoari **den bezalako** **izateagatik** beti **ahulenen alde** **jokatzeagatik**:

- Salmoak 48, 65, 66, 68, 75, 92, 93, 100, 106, 108, 113, 114, 115, 117, 134, 146, 150.

Salmoak **Jainkoa ospatuz**, munduan justizia egin duelako:

- Salmoak 93, 96, 97, 98, 99.

Jainkoagan **konfiantzazko** otoitzak bizitzaren zailtasunen aurrean:

- Salmoak 3, 4, 16, 23, 25, 27, 31, 33, 40, 46, 56, 57, 62, 63, 91, 115, 116, 121, 123, 125, 127, 131.

Fedearen segurtasunik eza eta **zalantza** momentuetarako:

- Salmoak 13, 24, 31, 37, 60, 66, 69, 71, 73, 74, 77, 94.

Jainkoaren intimitatearekin gozatu nahi dugunerako otoitzak, bertan baitaratzeko edo esker oneko jendearekin ospatzeko:

- Salmoak 15, 24, 26, 36, 42, 43, 62, 63, 84, 91, 133, 134, 139.

Herriaren borrokak Jainkoaren eta Jesusen izenean **liderra izaten** eta animatzen dituzten gizon-emakumeen bizitza estimatu eta eskertzeko:

- Salmoak 2, 18, 20, 21, 45, 72, 87, 89, 110, 132, 149.

Jainkoaren eta bere justiziaren aldeko hautapenean sendotzeko otoitzak:

- Salmoak 1, 34, 36, 37, 49, 50, 52, 73, 82, 92, 101, 112, 119, 127, 128.

Bake eta esperantzazko otoitzak:

- Salmoak 75, 76, 85, 86, 90, 97, 99, 122, 125, 128, 130, 131, 133.

Jainkoaren maitasuna eta **barkamena** onartu eta ospatzeko otoitzak:

- Salmoak 6, 32, 38, 51, 65, 78, 95, 103, 106, 130, 145, 147.

Otoitz kolektiboak estuasun eta zapalkuntza orduan:

- Salmoak 12, 44, 60, 66, 74, 80, 83, 85, 89, 102, 144.

Banakako otoitzak bidegabekeria eta zapalkuntza orduan, errugabe sentitzen garela:

- Salmoak 3, 5, 7, 13, 17, 22, 28, 31, 35, 38, 39, 41, 54, 55, 56, 59, 61, 69, 70, 86, 88, 102, 109, 121, 140, 141, 142, 143, 144.

Kexak Jainkoaren aurrean bizitza, mundua gaizki doazelako:

- Salmoak 74, 77, 79, 94, 120, 121, 137.

Otoitzak **zahartzaroan** eta **gaixotasunean**:

- Salmoak 6, 39, 41, 71, 88, 90, 102.

Erabilitako aurkibidea.

“LOS SALMOS HOY” Manuel Regal. Desclée de Brouwer.

SALMOAK ETA EBANJELIOA.

Erabili eta moldatutako aurkibidea.
"LOS SALMOS HOY" Manuel Regal. Desclée de Brouwer.

		ORRIA
Azal orria		1
Aurkibidea - Gaiak		2
Ebangelioko aipuen aurkibidea		4
001 Salmoa	Mt 21,28	8
002. Salmoa	Lk 19,47b	9
003. Salmoa	Mk 14,36	10
004. Salmoa	Mt 14,27	11
005. Salmoa	Mt 23,3	12
006. Salmoa	Lk 7,37-38	13
007. Salmoa	Lk 23,4-5	14
008. Salmoa	Mt 12,8	15
009. Salmoa	Mk 1,34a	16
010 (9). Salmoa	Mt 11,12	18
011 (10). Salmoa	Lk 8,17	20
012 (11). Salmoa	Jn 1,14	21
013 (12). Salmoa	Mk 16,6	22
014 (13). Salmoa	Lk 10,16	23
015 (14). Salmoa	Mk 12,34a	24
016 (15). Salmoa	Lk 24, 5	25
017 (16). Salmoa	Mk 3,6	26
018. (17). Salmoa	Jn 20,19	27
019. (18). Salmoa	Mt 5,16	30
020 (19). Salmoa	Mk 11,8	31
021 (20). Salmoa	Jn 20,20	32
022 (21). Salmoa	Mk 15,34	33
023 (22). Salmoa	Jn 10,11	35
024 (23). Salmoa	Mt 5,23-24	36
025 (24). Salmoa	Jn 14,6	37
026 (25). Salmoa	Lk 18,9-14	39
027 (26). Salmoa	Mt 8,26a	40
028 (27). Salmoa	Lk 15,2	42
029 (28). Salmoa	Lk 1,51-52	43
030 (29). Salmoa	Jn 5,21	44
031 (30). Salmoa	Lk 23,46b	45

032 (31). Salmoa	Lk 15,7	47
033 (32). Salmoa	Mt 10,31	48
034 (33). Salmoa	Jn 19,36	50
035 (34). Salmoa	Mk 14,53-65	52
036 (35). Salmoa	Mk 6,34	54
037 (36). Salmoa	Mt 5,4	55
038 (37). Salmoa	Mt 9,13	58
039 (38). Salmoa	Lk 15,21	60
040 (39). Salmoa	Jn 4,34	61
041 (40). Salmoa	Jn 13,26	63
042 (41). Salmoa	Jn 4,14	64
043 (42). Salmoa	Lk 10,21a	65
044 (43). Salmoa	Mt 8,25	66
045 (44). Salmoa	Mt 20,28	68
046 (45). Salmoa	Lk 12,32	70
047 (46). Salmoa	Mt 11,25	71
048 (47). Salmoa	Mt 5,14	72
049 (48). Salmoa	Lk 12,16-21	73
050 (49). Salmoa	Lk 6,46	75
051 (50). Salmoa	Mt 18,14	77
052 (51). Salmoa	Mt 6,20	79
053 (52). Salmoa	Lk 18,1-8	80
054 (53). Salmoa	Jn 16,32b	81
055 (54). Salmoa	Mk 14,20	82
056 (55). Salmoa	Mk 5,19	84
057 (56). Salmoa	Lk 12,7	85
058 (57). Salmoa	Mt 5,10	86
059 (58). Salmoa	Jn 18,23	87
060 (59). Salmoa	Mt 13,31-34	89
061 (60). Salmoa	Mk 10,37	90
062 (61). Salmoa	Mt 20, 1-6	91
063 (62). Salmoa	Mt 13,44	92
064 (63). Salmoa	Jn 16,20	93
065 (64). Salmoa	Mk 1,35	94
066 (65). Salmoa	Lk 8,50	95
067 (66). Salmoa	Lk 6,35b-36	96
068 (67). Salmoa	Lk 4,18-19	97
069 (68). Salmoa	Jn 2,17	100
070 (69). Salmoa	Mk 5,23	103
071 (70). Salmoa	Lk 10,20	104
072 (71). Salmoa	Lk 11,27	106

073 (72). Salmoa	Jn 14,26	108
074 (73). Salmoa	Jn 16,33b	111
075 (74). Salmoa	Lk 6,24	113
076 (75). Salmoa	Mt 5,9	114
077 (76). Salmoa	Mk 14,34	115
078 (77). Salmoa	Mk 1,15	117
079 (78). Salmoa	Mt 9,36	121
080 (79). Salmoa	Lk 20,9	122
081 (80). Salmoa	Mk10,11	123
082 (81) Salmoa	Mk 12,39-40	124
083 (82). Salmoa	Mt 20,25b-27	125
084 (83). Salmoa	Jn 14,2	126
085 (84). Salmoa	Mt 5,6	127
086 (85). Salmoa	Lk 15,20b	128
087 (86). Salmoa	Lk 6,20b	130
088 (87). Salmoa	Jn 11,26	131
089 (88). Salmoa	Lk 1,53	133
090 (89). Salmoa	Mt 10,28	136
091 (90). Salmoa	Mt 4,17	137
092 (91). Salmoa	Mt 13,24-30	138
093 (92). Salmoa	Mt 8,26b	139
094 (93). Salmoa	Mk 11,18	140
095 (94). Salmoa	Jn 4,10	142
096 (95). Salmoa	Lk 14,20-24	143
097 (96). Salmoa	Mk 10,45	144
098 (97). Salmoa	Lk 14,16-17	145
099 (98). Salmoa	Mt 5,48	146
100 (99). Salmoa	Jn 13,1	147
101(100). Salmoa	Mt 7,21	148
102 (101). Salmoa	Mk 5,25-26	149
103 (102). Salmoa	Mt 12,7	151
104 (103). Salmoa	Mt 6,28b-30	153
105 (104). Salmoa	Jn 3,17	155
106 (105). Salmoa	Lk 13,34b	158
107 (106). Salmoa	Lk 8,39	160
108 (107). Salmoa	Lk 1,46-47	162
109 (108). Salmoa	Mk 15,29-30	163
110 (109). Salmoa	Lk 22,27	166
111 (110). Salmoa	Lk 1,49	167
112 (111). Salmoa	Mt 16,22	168
113 (112). Salmoa	Lk 1,46-55	169

114 (113A). Salmoa	Jn 3,8	170
115 (114). Salmoa	Mt 4, 9-10	171
116 (115). Salmoa	Mk 8,35	172
117 (116). Salmoa	Mt 5,45	173
118 (117). Salmoa	Mk 12,10-11	174
119 (118). Salmoa	Mt 5,17.20	176
120 (119). Salmoa	Mk 3,22	187
121 (120). Salmoa	Jn 3,16	188
122 (121). Salmoa	Lk 19,41-42	189
123 (122). Salmoa	Mt 11,28	190
124 (123). Salmoa	Mt 28,20b	191
125 (124). Salmoa	Jn 14,27	192
126 (125). Salmoa	Mk 10,34	193
127 (126). Salmoa	Mk 4,26-27	194
128 (127). Salmoa	Mt 21,21	195
129 (128). Salmoa	Jn 14,16	196
130 (129). Salmoa	Lk 19,9	197
131 (130). Salmoa	Mt 6,34	198
132 (131). Salmoa	Lk 8,1-3	199
133 (132). Salmoa	Mt 18,20	200
134 (133). Salmoa	Mk 1,38-39	201
135 (134). Salmoa	Mk 2,10-11	202
136 (135). Salmoa	Mk 1,27b-28	204
137 (136). Salmoa	Mt 17,15-16	206
138 (137). Salmoa	Lk 17,17-18	207
139 (138). Salmoa	Jn 15,15	208
140 (139). Salmoa	Lk 5,12-13a	210
141 (140). Salmoa	Jn 19,2-3	211
142 (141). Salmoa	Lk 9,58	212
143 (142). Salmoa	Jn 8,10b.11b	213
144 (143). Salmoa	Mk 6,42-43	214
145 (144). Salmoa	Lk 13,11-12	215
146 (145). Salmoa	Mt 11,4-6	217
147 (146-147). Salmoa	Mk 14,22	218
148. Salmoa	Mt 4,10	220
149. Salmoa	Mt 22,37-39	221
150. Salmoa	Lk 20,38	222

1. Salmoa

Bi bideak

¹ Zorionekoa gaiztoen egitasmoei jarraitzen ez diena,

² baizik eta Jaunaren hitza atsegin duena
eta hitz hori gau eta egun gogoan darabilena!

³ Ur-xirripen ondoan landaturiko zuhaitzaren antzeko da:
bere sasoiari fruitua dakar, eta ez zaio hostorik ihartzen;
egiten duen guztia ongi zaio ateratzen.

⁴ Ez da hori, ez, gaiztoen zoria:
haizeak daraman orbelaren antzeko dira.

⁵ Auzi-egunean gaiztoek ez dute zutik iraungo;
zintzoen batzarrean ez da bekataririk izango.

⁶ Jaunak zaintzen du zintzoen bidea;
gaiztoena, berriz, hutsean galtzen da.

2. Salmoa

Jauna eta bere gantzutua senidetasunaren alde

- ¹ Zer dabilta nazioak asaldaturik?
Zergatik darabiltzate asmo hutsal horiek gogoan?
- ² Jaunaren aurka eta hark aukeratutako erregearen aurka
altxatzen dira mundu honetako erregeak,
elkar hartzen dute agintedunek.
- ³ “Hauts ditzagun haien kateak,
eten ditzagun haien lokarriak”.
- ⁴ Zeruko tronuan dagoenak irri egiten du,
Jaunak iseka haien lepotik.
- ⁵ Haserre mintzaten zaie,
bere sumina ikara ematen die.
- ⁶ “Nik neuk aukeratu dut nire gantzutua
herriko xumeenen artetik”.
- ⁷ Jaunaren erabakia iragarriko dut,
Hark esan dit; “Nire semea zara zu, gaur zaitut nik sortu.
- ⁸ Eskatu niri eta nazioak emango dizkizut betekizun,
lur osoa senidetasunerako eremu,
- ⁹ zorrotasunaren zigorraz zerbitzatzeko,
goxotasunez eta samurtasunaz laguntzeko”.
- ¹⁰ Jokatu beraz zentzu onez erregeok,
zentza zaitezte, munduko agintariok.
- ¹¹ Entzun Jaunaren nahia,
poztu zaitezte haren presentziarekin;
- ¹² bere lana da gure poza
eta ez da nekatzen bidea gurekin egitean.
Zorionekoa harengan babesten dena!

3. Salmoa

Irmotasuna bizitzako tentsioetan

- ² Zein ugari, Jauna, nire etsaiak,
zein ugari aurka altxa zaizkidanak!
- ³ Zein ugari nitaz esaka ari direnak,
"Jainkoak ere ez du salbatzen!"
- ⁴ Baina zu zara, Jauna, nire babeski, nire ohore,
zuk didazu burua jasotzen.
- ⁵ Oihuka egiten diot dei Jaunari;
eta erantzun egiten dit nire hondoenetik.
- ⁶ Oheratzen naiz eta lokartzen,
eta berriro esnatzen, Jauna baitut euskarri.
- ⁷ Milaka etsaiak inguratzen banau ere,
nik beldurrik ez.
- ⁸ Zu altxatzen zara, zuk salbatzen nauzu...
Zuk indartzen nauzu nire zailtasunetan.
Zure laguntzarekin gaitzak ez nau menderatuko.
- ⁹ Jaunarengan dago salbamena
eta herriarentzat bedeinkapena.

4. Salmoa

Poza eta segurtasuna bihotzean

- ² Oihu dagizut, Jauna, ene defendatzaile hori,
eta irrika desiratzen dut zure erantzuna!
Estualdian lasaibide zatzaizkidan hori,
erruki zakizkit eta entzun nire otoitza!
- ³ Zuek, handikiok, noiz arte iraindu behar duzue Jainkoa,
nire ohorea, jainko hutsalak maitatuz,
sasijainkoen atzetik ibiliz?
- ⁴ Jakizue Jaunak harrigarriro jokatzen duela nire alde,
entzun egiten didala deitzen diodanean.
- ⁵ Ikara zaitezte eta ez egin bekaturik,
aztertu zeuen barruak, egin negar isiltasunean.
- ⁶ Entzun Jainkoari, egin zerbitzu lagunurkoari zuzentasunean,
eta izan Jaunarengan uste on.
- ⁷ Asko ari dira esaten: "Nork eman guri zoriona?"
Zure aurpegi argitsuak argi bitza gure bizitzak!
- ⁸ Nire bihotzean jartzen duzun poza
kontu korrontean milioiak dauzkanarena baino handiagoa da.
- ⁹ Bakean etzaten naiz eta berehala lokartzen,
zuk bakarrik bainauzu, Jauna, lasai biziartzen.

5. Salmoa

Jainkoarekin, justiziaren alde

- ² Entzun, Jauna nire hitzok,
jaso nire intziria,
- ³ entzungo didazulakoan,
ene errege, ene Jainko,
zuri ari bainatzaizu otoizka.
- ⁴ Goizetik entzuten didazu nire mintzoa;
goizean nire auzia azaltzen dizut
eta zain gelditzen natzaizu.
- ⁵ Zu ez zara gaiztakeriaz gozaten den Jainkoa,
baina gaiztoak ere onartzen dituzu,
- ⁶ harroputza ez daiteke zure begi-bistan egon;
maltzurkeriari gorroto diozu,
- ⁷ gezurra diotenak suntsitzen,
hiltzaile eta maltzurak higuingarri zaizkizu.
- ⁸ Ni, aldiz, zure maitasun handiari esker,
zure etxean sartuko naiz,
zure tenplu santuan ahuspeztuko begirunez beterik.
- ⁹ Seguru nago zuzenduko nauzula, Jainko,
zure justizian, bizitzeko gatazkei aurre egiteko,
berdinduko duzula zeure bidea nire aurrean.
- ¹⁰ Zenbait jenderen ahoa ez da fidagarria,
maltzurkeriaz beteta daude barrutik, leize-zulo,
eztarria hilobi zabaldua,
mihia, berriz, leun eta labaina.
- ¹¹ Lagundiko diezu zure zentzatzearekin,
beren asmoak berregin ditzaten,
beren txarkeria eta krimenak arbuia ditzaten,
zure eta jende xumearen aurka egindako azpilanak.
- ¹² Horrela, zuregan babesten direnak alaitu egingo dira,
eta etengabe pozez oihuka ariko.
Zuk zainduko dituzu maite zaituzten guztiak,
salto egingo dute pozez.
- ¹³ Zuk bedeinkatzen baituzu errugabea, Jauna,
onginahiz inguratzen babeskiz bezala.

6. Salmoa

Oinazean, gaixotasunean, zapalkuntzan

- ² Jauna, zentzatu egiten nauzu sumindurik,
zentzatu pasiozko maitasunez.
- ³ Makaldua nago, erruki zakizkit, Jauna,
hezur guztiak makaldurik baititut,
zure salbamenaren irrikaz nago!
- ⁴ Ikara bizian dut barrua,
zure presentziaren antsiaz.
- ⁵ Ondo dakit bizitzaz bete nahi nauzula,
salbatu nahi nauzula zure errukiz.
- ⁶ Baina kontuan hartuko al dut gaixotasunean,
ezagutu eta goretsi ahal izango al zaitut heriotzan?
- ⁷ Akituta nago aieneka,
gauero malkoz bustitzen dut ohea,
blai eginda uzten etzalekua;
- ⁸ begiak nahigabez lausotuak ditut,
ozarkeria da zapaltzen nauenaren ezaugarria.
- ⁹ Alde niregandik, gaizkileok!
Entzun baitu Jaunak nire zotina;
- ¹⁰ Bai, entzun du nire erregua,
onartu Jaunak nire otoitza.
- ¹¹ Lotsa bitez eta izutu gaizkileak.
Egin bezate atzera eta damutu bitez egindakoaz.

7. Salmoa

Errebeldeak Jainkoarekin zapalkuntza ororen kontra

- ² Jauna, ene Jainkoa, zuregan babesten naiz,
zuk libra bainazakezu erantzun didatenengandik;
- ³ Ez nazatela txikitu lehoiak bezala,
ez nazatela desegin lehoiek bezala
eta zartatu inork ni libratu ezinik.
- ⁴ Jauna, ene Jainkoa, zerbaitetan huts egin badut,
nire eskuz bidegabekierarik egin badut,
- ⁵ lagunari ordain txarra eman,
- ⁶ nire kontzientziak ez nazala lasai utz,
senti dezadala nire bihotzean desegin dena,
egin diezaiodala aurre nire portaeraren lotsaizunari.
- ⁷ Zenbateraino irrikatzen dudan, Jauna, zure laguntza,
jende xumeaz abusatzen duenari aurre egiteko.
Zu nire ondoan egongo zara
justiziaren bideak maite dituzulako.
- ⁸ Bil bitez herri guztiak zure inguruan
eta jar zaitez, Goi Goiko hori, haien batzarburu.
- ⁹ Jaunak nire justiziaren arabera epaituko nau,
nire egiatasunaren arabera.
- ¹⁰ Buka bedi gaiztoen gaiztakeria,
errugabeek izan bezate zure laguntza, Jauna,
bihotz-barruak aztertzen baitituzu, Jainko zuzen horrek.
- ¹¹ Jainkoa dut babeski,
bihotz zuzenekoan salbatzaile dena.
- ¹² Epaille zuzena da Jauna,
egunero maitatzen gaituen, laguntzen digun Jainkoa.
- ¹³ Onbideratzen ez badira, areagotu egingo du maitasuna,
nekagaitz jardungo du gaiztoen bila,
- ¹⁴ samurtasunezko sokekin inguratzeko
eta haien bihotz gogortuak irabazteko.
- ¹⁵ Begira gaiztakeriaren ernaldian: malizia
sortu zuen, porrota erditzen du.
- ¹⁶ Zulo bat egin zuen, sakon-sakona,
baina berak egindako zuloan erori zen.
- ¹⁷ Kontura bedi, berriz pentsa beza,
bere indarkeriak ez dezala suntsitu.
- ¹⁸ Eskerrak ematen dizkiot Jaunari bere justiziagatik,
kanpaiak joko ditut apalen Jaunarentzat.

8. Salmoa

Kreatzaileari eta gizakiaren handitasunari eginiko kanta

² *Jauna, gure Jauna,*

bai harrigarria zure izena mundu osoan.

³ Zuk, zure aintzaz dena bizitzaz betetzen duzun horrek,
umetxoen eta bularreko haurtxoen hizkeraz

oinarritzen duzu gaztelu bat mesprezitzen zaituenaren aurka,
eta miresmenez betetzen duzu lehen kontuan hartzen ez zintuena.

⁴ Zeure behatzez eratu duzun ortzia,

eta ezarri dituzun ilargi-izarrak ikusita,

⁵ zer dira gizon-emakumeak zu haietaz oroitzeko,

zer gizakia, zu hartaz arduratzeko?

⁶ Ia jainko baten pareko egin duzu

ohorez eta aintzaz koroatu,

⁷ zure eskulan guztien buru egin duzu,

denak haren menpean jarri,

⁸ ardi eta idiak, baita basapiztiak ere;

⁹ zeruko hegaztiak eta itsasoko arrainak,
uretan zehar dabilen guztia.

¹⁰ *Jauna, gure Jauna,*

bai harrigarria zure izena mundu osoan.

9. Salmoa

Jauna da jende zapalduaren gotorlekua

- ² Eskerrak, Jauna, bihotz-bihotzetik,
zure harrigarri guztiak kantatzera noa;
- ³ zure ohorez pozik dantzatu nahi dut,
zure izena, ene Jainko hori, kantuz ospatu.
- ⁴ Nire etsaiak, atzera egitean,
zure aurrean oztopatu eta galdu egin dira
- ⁵ nire eskubidea eta auzia defendatu baitzenituen,
senidetasuna sortuz justizian.
- ⁶ Zentzatu egiten duzu jende gaiztoa,
izan dezaten itxaropena zugan.
Jende maltzurak ere etorkizuna dauka,
- ⁷ haien artera ere deitzen baituzu,
eta ez baitituzu ahanzten haien izenak.
- ⁸ Errege da Jauna betidanik,
sendo du aulkia auzitarako,
- ⁹ justiziaz gobernatzen du mundua,
zuzenbidez epaitzen herriak.
- ¹⁰ Jauna, ihesleku da zapalduarentzat,
ihesleku larrialdian.
- ¹¹ Uste on izan bezate zugan ezagutzen zaituztenek,
zugana jotzen duenik ez baituzu, Jauna, bazterrean uzten.
- ¹² Egin oihu bere herriaren baitan bizi den Jainkoari,
iragarri herrien artean haren egintza bikainak.
- ¹³ Biziki mintzen du zapalkuntzak,
ez du ahanzten errukarrien garrasia.
- ¹⁴ Zure eskuetan, Jauna, jartzen dut nire atsekabea,
zuk ateratzen bainauzu heriotzako sarreratik.
- ¹⁵ Zure goralpenak kontatu ahal ditzadan,
zure laguntza kontatu ahal dezadan herrian.
- ¹⁶ Berek egin zulora jaitsi dira gaiztoak,
berek jarritako sarean trabatu zaie oina.
- ¹⁷ Jauna agertu da, justizia ezarri du,
gaiztoa bera eror ez dadin bere tranpan.
- ¹⁸ Bihoaz herio leizera gaiztoak,
Jainkoaz ahazten diren guztiak.
- ¹⁹ Ez, Jainkoak ez du ahazten behartsua,
errukarrien itxaropenak ezin huts egin.

²⁰ Jauna, Jauna, ez bitez garaile atera gaiztoak,
izan bitez epaituak eta itzul bitez zugana.

²¹ Jauna, betorkie epaia eta ikus bezate
gizaki huts besterik ez direla.

10 (9B). Salmoa
Jaunak entzun egiten du jende xumearen desira

- ¹ Jauna, zergatik ematen du urrun zaudela,
ezkutatu egiten zarela larrialdian?
- ² Gaiztoak harrokeriaz erasotzen dio errukarriari,
asmatzen dituen azpikeriez dauka harrapatua.
- ³ Bai, bere handikeriaz harrotzen da gaiztoa,
nahi duena lortu duelako mesprezatzen du Jauna.
- ⁴ Gaiztoak, burua altxaturik, pentsatzen du:
“Ez da Jainkorik”.
- ⁵ Egiten duen guztian arrakasta du,
zure erabakiak bost axola zaizkio,
aurkariak mesprezatu egiten ditu.
- ⁶ “Ez dut koloka egingo”, dio bere baitan,
“zoriontsu izango naiz beti, ezbeharrrik gabe”.
- ⁷ Betea du ahoa madarikazioz, maltzurkeriaz eta gogorkeriaz,
okerra eta gaiztakeria ditu mihian gordeak.
- ⁸ Zelatan egoten da kanabera artean,
ezkutuan errugabea hiltzen du.
- ⁹ Gizagaixoari ez dio begia kentzen,
zelatan dago ezkutuan, lehoia bere zuloan bezala,
- ¹⁰ zelatan, dohakabea harrapatzeko,
bere sarera erakarriz harrapatzen du.
- ¹¹ Kuzkurturik, narraska joan
eta gizagaixoaren gainera erortzen da.
- ¹² Honela dio bere baitan: “Jainkoa ez da ohartzen,
begiak ixten ditu, ez du inoiz ezer ikusten”.
- ¹³ Jauna, zure eskua indartsu luzatzen da
jende errukarriaren defentsan.
- ¹⁴ Nolatan du gaiztoak Jainkoa mespretxatzen?
Konturik eskatzen ez duzulakoan?
- ¹⁵ Ikusten dituzu, bai, neke eta nahigabeak,
ikusi eta zeure gain hartzen.
Zuregan uzten du gizagaixoak bere zoria,
zu zaitu umezurtzak laguntzaile.
- ¹⁶ Hautsi gaiztoaren indarra,
eskatu hari gaiztakeriaren kontu,
zure egiak argitu bitza, gaiztakeria desager dadin.

- ¹⁷ Jauna betidanik betiraino da zerbitzari indartsua,
eta senidetasuna zabalduko da munduan.
- ¹⁸ Zuk entzuten dituzu errukarren desioak,
adoretu egiten duzu haien bihotza;
adi-adi zaude haiengana,
- ¹⁹ umezurtz eta zapalduaren eskubideak babesteko.
Ez beza gehiago beldurrik eman
buztinez egindako gizakiak.

11 (10). Salmoa
Jende zintzoak kontenplatuko du haren aurpegia

- ¹ Jaunarengan babesten naiz. Nolatan esaten didazue:
“Txori, egizu ihes zure mendira,
² gaiztoek uztaia tenkatu baitute
eta gezia uztai-harian jarri;
bihotz zuzenekoak ilunpean jotzekoz”.
- ³ Oinarriek huts egitean,
zintzoak zer egin?
- ⁴ Jainkoak bere santutasunean,
Jaunak bihotzen hondoenean
samurtasunez begiratzen dio gizakiari,
aztertu egiten du begirada zorrotzarekin.
- ⁵ Jaunak zintzoak eta gaiztoak aztertzen ditu,
gorroto die maltzurkeriari eta gogorkeriari,
⁶ irauli egingo ditu kontzientzia maltzurak,
aztoratu egingo ditu bere maitasun goriaz.
- ⁷ Jauna zintzoa baita eta maite baitu justizia,
jende zintzoak kontenplatuko baitu haren aurpegia.

12 (11). Salmoa
Justiziaren orduaren irrikatan

- ² Jauna, Jauna, gutxitzen ari dira pertsona zintzoak,
desagertzen ari da leialtasuna gizakien artean!
- ³ Faltsukeria hitz egiten diote elkarri,
ezpain lausengariz eta bihotzeko zurikeriaz.
- ⁴ Itxi ditzagula, Jauna, ezpain melenga guztiak,
erronkatan ari den mihi oro.
- ⁵ Honela baitiote: “Mihiak egiten gaitu indartsu,
geure ezpainez baliatzen garelarik, nor nagusitu guri?”
- ⁶ Baina Jaunak dio: “Errukarriak zapaltzen dituztelako,
behartsuak intzirika ari direlako,
oraintxe jaikiko naiz eta salbatuko dut
hasperenka ari dena”.
- ⁷ Jaunaren hitzak hitz garbiak dira,
zilar garbia arragoan, zazpi aldiz findua.
- ⁸ Zeuk, Jauna, zeuk babestuko gaituzu beti;
zeuk babestuko horrelako jendearengandik.
- ⁹ Inguratzen gaituzten gaiztoak joan egingo dira,
jende xumeak onera egiten duen bitartean.

13 (12). Salmoa
Konfiantza, segurtasunik ezaren erdian

- ² Noiz arte jarraituko dut
zuk ahaztu ote nauzun mesfidatzen,
nigandik ezkutatuz zure aurpegia?
- ³ Noiz arte ibiliko naiz larrituta,
bihotza dardara batean gau eta egun?
Noiz arte edukiko nau etsaiak bere menpe!
- ⁴ Kasu egingo didazula espero dut, Jauna,
erantzungo didazula, ene Jainko,
nire begiak argituko dituzula
heriotzak lokartu ez nazan,
- ⁵ ez dezan etsaiak esan “Garaitu dut”,
ez bedi nire arerioa nire hondamendiaz poztu!
- ⁶ Zure maitasunean dut konfiantza;
zure salbamenarekin pozten da nire bihotza.
Kantuz egingo diot Jaunari; egin didan onarengatik.

14 (13). Salmoa
Federik ezak herriaz abusatzera eramaten duenean

- ¹ Hau dio eroak bere baitan: "Ez dago Jainkorik".
Ustelduak daude, gauza higuingarriak egiten dituzte,
ez da inor on dagienik.
- ² Jauna gizakiei begira dago maitasunez,
ba ote den zentzu onekorik,
Jainkoa bilatzen saiatuko denik.
- ³ Denak okertu dira, bat egin dute galdukerian,
ez da inor on dagienik, bat bera ere ez.
- ⁴ Ez al dute ikasiko gaiztaginek,
nire herria ogia bezala irensten duten
eta Jaunaz arduratzen ez diren horiek?
- ⁵ Inoiz ohartuko al dira
Jainkoa justiziaren alde dagoela!
- ⁶ Errukarren asmoez aztoratzen zaituzte,
Jaunak baitu hura babesten.
- ⁷ Nork ekarriko du askatasuna gure lurrera?
Jainkoak ematen digun dohaina onartzen dugunean,
poztuko da jendea bere herriaren baitan.

15 (14). Salmoa
Jainkoarenean ostatu hartu ahal izateko

- ¹ Jauna, nor egon daiteke zure etxolan?
Nor bizi daiteke zure aurrean?
- ² Jokaera prestua duena, justiziaren arabera ari dena,
bihotz barrutik egia dioena,
- ³ mihi luze ez dena;
lagun hurkoari kalterik egiten ez diona,
auzokoa iraintzen ez duena.
- ⁴ mespretxagarria bere aurretik bota
eta Jainkozaleak ohoratzen dituen,
bere kaltetan izanik ere,
emandako hitzari eusten diona;
- ⁵ mailegu dirua lukurreriaz ematen ez
eta errugabearen kaltetan eskupekorik hartzen ez duena.

Horrela jokatzeko duenak ez du sekula koloka egingo.

16 (15). Salmoa
Pozten dira nire erraiak

- ¹ Gorde nazazu, Jauna,
zuregan baitut babesu.
- ² Hau diot: "Zu zaitut ene Jaun
zuregan baizik ez dut zorionik".
- ³ Badago lurralde honetako jainkoekin doan jendea,
boteretsuekin atsedean dutenak.
- ⁴ Haien idoloak ugaritu egiten dira,
haien atzetik doaz, lasterka.
Ez dut haiekin ezer partekatu nahi,
ezta haien izenik ahozkatu nire ezpaineekin?
- ⁵ Zu zaitut, Jauna, neure on guztia,
neure kopa bedeinkapenez betea,
zeure esku dago nire zoria.
- ⁶ Zoragarria suertatu zaidan alorra,
eta ederragoa nire ondarea.
- ⁷ Bedeinkatu nahi dut Jauna,
berak baitit aholku ematen,
gauetz ere ene barrua berak hezten.
- ⁸ Begi aurrean dut Jauna etengabe,
bera ondoan dudala,
ez dezaket koloka egin.
- ⁹ Horregatik alai daukat bihotza,
pozez jauzika erraiak,
atsedenean lasai gorputza.
- ¹⁰ Ez bainauzu Herio Leizera botako,
zure adiskidea ez duzu hilobian galtzen utziko.
- ¹¹ Bizirako bidea erakutsiko didazu,
alaitasun betea zure aurrean,
betiko zoriona zure ondoan.

17 (16). Salmoa
Zure begietako ninia bezala

- ¹ Jauna, Jauna, auzi zuzena beti entzuten duzu,
zaude adi nire deiadarrari,
makur belarria nire otoitzari,
nire ezpainetan ez baitut engainurik.
- ² Zuk baduzu erantzunik niretzat,
zure begiek ikusten baitute zuzentasuna.
- ³ Nire bihotza aztertzen baduzu eta gauez ikertzen,
arragoan probatzen banauzu,
ez duzu aurkituko maltzurkeriarik nigan:
- ⁴ nire ahoak ez du huts egingo,
jendeak egin ohi duen bezala.
- ⁵ Bide latzetan sendo ezarri ditut oinak,
zure arrastotik ez dira aldendu nire urratsak.
- ⁶ Deika nauzu Jauna; erantzungo al didazu!
Itzul niregana zure belarria, entzun nire mintzoa.
- ⁷ Goza dekadala zure erruki miresgarriz,
zuk erasotzaileengandik salbatzen baitituzu
zure esku ahaltsuan babesten direnak.
- ⁸ Ai, zenbat irrikatzen dudan
zuk begietako ninia bezala ni gordetzea,
babes nazazula zure hegalen itzalpean
- ⁹ eraso egiten didan jende etsai gaiztoengandik,
larrutu nahi nauten gaizkileengandik.
- ¹⁰ Erraiak itxi dituzte, harropuzturik daude,
¹¹ gainean ditut, inguratua naute,
ni lurrera botatzeko beti prest,
- ¹² ehizaki irrikaz dagoen lehoiaren antzera,
ezkutuan dagoen lehoikumearen antzera.
- ¹³ Zu, ordea, Jauna, altxa egiten zara
gaiztakeria ororen aurka,
zure indarrez libratzen nauzu zure indarrez;
- ¹⁴ sendotu egingo nauzu boteretsuen aurrean,
buka bitez behin-betiko haien gehiegikeriak!
Zuk zaintzen dituzunei, ordea, bete sabela,
ase itzazu horien seme-alabak
eta utz bezate sobera dutena beren haurrentzat.
- ¹⁵ Horrela, auzi egunean zure aurpegia ikusiko dut,
esnatzean zure izateaz aseko naiz.

18 (17). Salmoa
Zuk janzten gaituzu adorez borrokarako

- ² Maite zaitut, Jauna, nire indar!
- ³ Jauna da nire haitza, nire geriza, bera nire askatzailea,
ene Jainko nire harkaitz babesgarria,
nire babeski eta indar salbatzailea, nire gotorlekua.
- ⁴ Dei egin nion Jaunari
eta etsaiengandik salbatu ninduen.
- ⁵ Herio-lokarriek estutu ninduten
uholde gaiztoek ikaratu.
- ⁶ Herio-luzeko lokarriek ninduten lotu,
herio sareek harrapatu.
- ⁷ Larrialdian dei egin nion Jaunari,
deiadar ene Jainkoari.
Eta aditu zuen bere tenplutik nire oihua,
haren belarrietaraino heldu zen nire deiadarra.
- ⁸ Ikaratu zen lurra eta dardaratu,
mendien oinarriak mugitu,
Jainkoaren haserreak baitzituen astindu.
- ⁹ Kea zerion sudurretik,
su kiskalgarria, ikatz goriak ahotik,
maitasuna borborka.
- ¹⁰ Ireki zuen zerua eta jaitsi zen,
oinpean hodei-lainoa zekarren.
- ¹¹ Hegan zihoan Kerubin baten gainean,
haize hegaletan.
- ¹² Gordelekutzat hartu zituen ilunpeak,
etxola gisa, bere inguruan hodei-laino euritsuak.
- ¹³ Haren aurreko distiraz,
tximista eta sugarrezko ikatz gori
bihurtzen ziren hodeiak.
- ¹⁴ Ortzitik trumoa joarazi zuen Jaunak,
deiadar egin Goi-goikoak:
tximista eta ikatz goriak sugarretan!
- ¹⁵ Geziak jaurtiz sakabanatu zituen,
tximista eginez, ihes eragin.
- ¹⁶ Itsas hondoa agertu zen,
lurraren oinarriak agerian jarri zure orroaz,
Jauna, zure pasioaren bulkadaz.

- ¹⁷ Goitik eskua luzatuz hartu ninduen,
eta uholdetik atera.
- ¹⁸ Etsai indartsuagandik salbatu ninduen,
ni baino indartsuago ziren arerioengandik.
- ¹⁹ Lur joa nengoenean eraso zidaten,
baina Jauna izan nuen euskarri.
- ²⁰ Zabaldira atera ninduen,
maite nauelako libratu.
- ²¹ Neure zuzentasunaren ordaina eman dit Jaunak,
neure jokabide garbiaren saria.
- ²² Jaunaren bideari jarraitu baitiot,
ez naiz Jainkoarengandik urrundu.
- ²³ Haren aginduak oro aurrean izan ditut beti,
ez naiz saihestu haren arauetatik.
- ²⁴ Haren aurrean zintzo izan naiz,
ez dut batere bekaturik egin.
- ²⁵ Neure zuzentasunaren ordaina eman dit Jaunak,
beraren begietan garbi jokatu dut eta.
- ²⁶ Leialarentzat leial zara,
zintzorentzat zintzo,
- ²⁷ asmo garbikoarentzat garbi,
asmo txarrekoarentzat zorrotz.
- ²⁸ Zuk duzu herri zapaldua salbatzen
eta harroputzen handikeria makurrarazten.
- ²⁹ Zuk egiten didazu argi, zuk Jauna,
ene argi-zuzi horrek; ene Jainko,
zuk argitzen duzu nire ilunpea.
- ³⁰ Zure laguntzaz ihes eragiten diot gudari-taldeari,
zurekin, ene Jainko, harresiak igarotzen gainetik.
- ³¹ Jainkoaren bidea, on-ona, Jaunaren hitza sinesgarria.
Bera da harengana jotzen dutenen babesia.
- ³² Nor Jainko, Jauna izan ezik?
Nor harkaitz babesle, gure Jainkoa izan ezik?
- ³³ Jainkoak indarrez janzten nau,
bide zuzenetik ibilarazten.
- ³⁴ Oreinarenak bezain arin dizkit oinak egin
eta neure tontorretan sendo nau ezarri.
- ³⁵ Trebatzen dizkit eskuak gudurako
eta besoak esfortzu handitarako.
- ³⁶ Babeskiak bezala gorde nauzu eta salbatu;
zure eskuak eutsi dit,
erantzun didazu eta indartu egin.
- ³⁷ Bidea zabalagotu didazu
eta nire oinak ez dira oztopatu.

- ³⁸ Etsaiak pertsegitu nituen eta harrapatu,
eta ez nintzen itzuli denak suntsitu arte.
- ³⁹ Gehiegikeria guztiak desegin nituen,
nire oinazpira erori ziren.
- ⁴⁰ Indarrez jantzi ninduzun gudurako,
maltzurkeriak ez dit beldurrik ematen.
- ⁴¹ Nire etsiak ihesi jarri zenituen,
senidetasuna gailendu dadin nire inguruan.
- ⁴² Deiadar egin zuten baina inork salbatu ez;
Jaunarengana jo, baina hark entzun ez.
- ⁴³ Lagunduko diet zure hatsak bultzatuta,
eskuz emango diet, atera daitezen bidegabekeriatik.
- ⁴⁴ Zuk askatzen nauzu, Jauna, indarkeriatik,
senidetasun unibertsalean sartzen nauzu,
herri ezezagunek onartuko naute.
- ⁴⁵ Solidaritatezko gurpilak inguratzen du lurra,
kredo guztietako herriak bat eginda zure maitasunean.
- ⁴⁶ Etorkin atzerritarrek pozez jantzita daude,
eta pozik ateratzen dira beren marjinaziotik.
- ⁴⁷ Gora Jauna, bedeinkatua ene harkaitza!
Goretsia ene Jainko salbatzailea,
- ⁴⁸ barkamenerako egin ninduen Jainkoa,
herri guztien senide bihurtu ninduen!
- ⁴⁹ Etsaiengandik libratu nauzu,
oldartzen zizkidanen gainetik jaso,
gizon zakarrarengandik askatu.
- ⁵⁰ Horregatik, Jauna, atzerritarren artean goresten zaitut,
zure omenez kantatzen dut.
- ⁵¹ Zuk ematen dituzu garaipen handiak,
maitasunez jokatu duzu xumeekin,
eta anai-arreba egin gaituzu betiko!

19 (18). Salmoa
Kreazioak eta legeak goretsi egiten dute Jainkoa

- ² Zeruek Jainkoaren aintza kontatzen dute,
ortziak haren eskuen lana adierazten.
- ³ Egun batek besteari mezua ematen dio,
gau batek besteari jakinarazten,
- ⁴ mintzorik eta hitzik gabe
entzun ezinekoa da haien ahotsa.
- ⁵ Lurbira osora zabaltzen da haien hotsa,
munduaren bazterreraino haien hizkera.
Han ipini dio Jainkoak egoitza eguzkiari.
- ⁶ Senarra ezkontza gelatik bezala irteten da,
atleta gisa bere lasterketa egitera pozik.
- ⁷ Zeru-ertz batetik irten eta beste ertzeraino haren itzulbira.
Haren berotik ezin libratu ezer.
- ⁸ Jaunaren hitza ezin hobea;
gizakia amas berritzen du,
Jaunaren mandamendua fidagarria:
heldugabea zuhurrarazten du.
- ⁹ Jaunaren legeak zuzenak, bihotzaren pozgarri.
Jaunaren agindua distiratsua, begien argigarri.
- ¹⁰ Jaunaren promesa garbiak, betiko dirau;
Jaunaren erabakiak egiazkoak; den-
denak bidezkoak.
- ¹¹ Urrea baino desiragarriago,
urre araztua baino ere bai,
eztia baino gozoagoa,
ezti berria baino ere bai.
- ¹² Zure morroi honek haietan du argia,
benetan onuragarri haiiek betetzea.
- ¹³ Nork ezagutu bere huts egiteak?
Aska nazazu oharkabeko erruetatik.
- ¹⁴ Zaindu nazazu harrokeriatik:
ez dakidala nagusitu;
horrela akats gabe izango naiz,
bekatu larritik libre.
- ¹⁵ Har itzazu atseginez nire gogoeta eta hitzak,
oi Jauna, ene harkaitz eta babesle.

20 (19). Salmoa
Jainkoak gantzutu duenaren garaipena irrikatzen

- ² Entzun zaitzala Jaunak arrisku egunean,
jar zaitzala toki seguruan zure herriaren Jainkoak.
- ³ Bidal diezazula laguntza bere santutegitik,
euts zaitzala une oro.
- ⁴ Gogora bitza zure eskaintza guztiak,
eta onar atseginez zure opariak.
- ⁵ Eman diezazula nahi duzun guztia,
bete ditzala zure egitasmoak.
- ⁶ Ospatu ahal dezazula poz-oihuz zure garaipena,
banderak zabalduz gure Jainkoaren izenean.
Bete ditzala Jaunak zure eskari guztiak.
- ⁷ Orain bai, badakit, Jaunak garaipena ematen dio
bere gantzutuari,
bere eskuaren indar askatzailez erantzuten dio.
- ⁸ Zenbait jendek boterean jartzen du esker ona,
beste zenbaitek, berriz, aberastasunean.
Baina guk Jaunari, gure Jainkoari, deitzen diogu.
- ⁹ Haiiek okertu, erori egiten dira,
guk, ordea, sendo eta zutik irauten.
- ¹⁰ Eskerrak, Jauna, justizia defendatzen duenari laguntzeagatik,
eskerrak dei egiten dizugunean guri entzuteagatik.

21 (20). Salmoa
A zer zorte ona zu gure alde egotea!

² Jauna, pozik dago zure gantzutua, zure indarrarengatik;
benetan alai, garaipena eman diozulako.

³ Desiratzen zuena eman diozu,
eta eskatua ez diozu ukatu.

⁴ Bedeinkapenez eta mesedez bete duzu,
urre garbizko koroa ezarri.

⁵ Bizia eskatu dizu, eta zuk eman;
amaigabeko egun luzeetan.

⁶ Zure garaipenez, handia da haren ohorea,
aintzaz eta ospez estali duzu.

⁷ Izan ere, betiko bedeinkazioa ematen diozu,
zeure presentziaz pozarren jartzen.

⁸ Bai, Jaunarengan du gantzutuak konfiantza,
Goi-goikoak maite duelako ez da kolokatuko.

⁹ Zurekin, Jauna, buka dezagula bidegabekeriarekin,
suntsi dezagula maltzurkeria oro.

¹⁰ Zapalkuntza labe gorian bezala erre dadila,
senidetasunaren orduan.
Zure laguntzarekin, Jauna, buka daitezela gehiegikeriak,
erre ditzala justiziaren suak.

¹¹ Gaitzaren erroak desager daitezela lurretik,
eta haren hazia mundutik.

¹² Zuri hondamena ekarri nahian,
azpikeriak asmatzen badituzte ere, ez dute ezer lortuko.

¹³ Zuk, eta guk zurekin batera, atzera botako dituzu,
maitasunaren eta justiziaren indarrez.

¹⁴ A zer zorte ona, Jauna, zu gure alde egotea!
Kantuz eta soinuz ospatuko dugu zure ahalmena!

22 (21). Salmoa)
Etsipenetik Jainkoaren salbamenera

² Ene Jainko, ene Jainko, zergatik sentitzen dut utzi nauzula,
nire arranguratik, oihu eta intzirietatik urruti zaudela?

³ Egunez deika ari natzaizu, eta zuk erantzunik ez,
baita gauez ere, eta bakerik ez dut.

⁴ Zu, ordea, santua zara
eta zuretzat da herriaren gorespina.

⁵ Gure gurasoak zurekin fidatu ziren,
fidatu ziren, eta zuk libratu.

⁶ Deiadar egin zizuten, eta zuk askatu,
zurekin fidatu eta ez ziren usteak huts egin.

⁷ Ni, berriz, har naiz eta ez gizaki;
jendeak iraindua, herriak mespretxatua.

⁸ Ikusten nautenek burla egiten didate,
keinuka eta zeinuka.

⁹ Jaunarengana jo du,
libra dezala, bada!
Salba dezala hainbeste maite badu!

¹⁰ Zuk atera nauzu amaren sabeletik,
lasai eduki haren bularrean.

¹¹ Zure esku nago jaiotzetik,
zu zaitut Jainko amaren sabeletik.

¹² Ez egon niregandik urrun, hurbil baitut arriskua,
eta ez daukat inor lagunduko didanik!

¹³ Etsaiek inguratzen naute,
zezen talde handia bailiran,
basabere izugarriak.

¹⁴ Ahoa dute zabalik nire kontra,
lehoi harraparien gisa orroka.

¹⁵ Badoaz nire indarrak, ur isuria irudi,
koloka ditut hezur guztiak,
urtzen ari zait bihotza,
argizaria irudi.

¹⁶ Indargabe nago, teila bezain lehor,
ahosabaiari itsatsita dut mihia,
hilobi-hautsetaraino ekarri naute.

- ¹⁷ Gaizkile-taldeak inguratu nau,
zakur tropelak erdian hartu.
- ¹⁸ Esku-oinak zulatu dizkidate,
hezur eta azal gelditu naiz!
- ¹⁹ Nire jantziak banatzen dituzte,
nire soinekoa zotz egiten.
- ²⁰ Senti zaitzadala nigandik hurbil, Jauna!
Zer izango nintzake zure laguntzarik gabe?
- ²¹ Zuk bakarrik libra dezakezu nire bizitza ezpatatik,
zakur horien atzaparretatik.
- ²² Lehoien ahotik, bufaloen adarretatik.
- ²³ Hitz egingo diet zutaz nire senideei,
goretsiko zaitut batzarraren erdian.
- ²⁴ Goretsazue Jauna begirune diozuenok,
emaiozue ohore herri eta kredo guztiko jendeok.
- ²⁵ Jaunak ez du mespretxatu, ez du gutxietsi,
gizagaixoaren zorigaitza,
ez du harengandik aurpegia saihestu,
entzun dio deiadarra.
- ²⁶ Zeuk eraginik, goretsiko zaitut batzar handian.
Neure promesak beteko ditut
begirune dizutenen aurrean.
- ²⁷ Asetzeraino jango dute behartsuek,
Jauna goretsiko haren bila saiatzen direnek.
Ez galdu adorea sekula!
- ²⁸ Jaunaz oroituko dira lurreko herri guztiak,
eta berarengana itzuliko.
Haren aurrean ahuspeztuko dira
herrietako familia guztiak.
- ²⁹ Jauna baita errege, herri guztien nagusi!
- ³⁰ Hari ahuspeztuko zaizkio lurpean lo daudenak,
haren aurrean makurtuko hilobira jaitsiak.
Jainko Jaunak biziberritu egiten baitu.
- ³¹ Nire ondorengoek Jauna gurtuko dute,
Jaunaz hitz egingo diete ondorengo gizaldiei.
- ³² Haren egintza salbagarria adieraziko
sortzeko dagoen herriari:
“Horrela jardun zuen Jaunak”.

23 (22). Salmoa
Jauna, artzain eta gonbidatzaile

- ¹ Jauna dut artzain, ez zait ezer falta.
- ² Larre guritan etzanarazten nau,
ur bareetara eramaten.
- ³ Han berritzen dizkit indarrak.
Bide egokitik narama, leiala delako.
- ⁴ Ibar beltz ilunetan banabil ere
ez dut inolako gaitzen beldurrik,
zu nirekin baitzaude:
zure artzain makilak lasaitzen nau.
- ⁵ Zuk atontzen didazu mahaia etsaien begi aurrean,
ukenduz gantzutzen didazu burua,
gainezka dut kopa.
- ⁶ Zorionak eta leialtasunak inguratuko naute,
bizitzako egun guztietan;
Jaunaren etxean biziko naiz
amaigabeko egunetan.

24 (23). Salmoa
Jainko handi eta ospetsuarekin intimatzeko

- ¹ Jaunarena da lurra eta bertan dagoena,
mundua eta bertan bizi direnak.
- ² Berak ezarri baitzuen sendo itsasoen gainean,
ur azpiko ur lasterren gainean.
- ³ Nor igo Jaunaren mendira?
Nor egon hark sagaraturiko tokian?
- ⁴ Eskuak errugabe eta bihotza garbi dituen,
gezurrezko Jainkoetara jotzen ez duena,
engainatzeko zinik egiten ez duena.
- ⁵ Horrelakoa bedeinkatuko du Jaunak,
barkamena emango dio Jainko salbatzaileak.
- ⁶ Horiek dira haren bila saiatzen direnak,
Jainko salbatzailea aurkitu nahi dutenak.
- ⁷ Ateak, zabal zaitzte, antzinako ateak,
zaudete zabalik, badator-eta erregea aintzaz betea!
- ⁸ Nor da aintzaz beteriko errege hori?
Jauna da, indartsu eta ahaltsua,
Jauna, guduen ahaltsua!
- ⁹ Ateak, zabal zaitzte!
Antzinako ateak, zaudete zabalik, badator-
eta erregea aintzaz betea!
- ¹⁰ Nor da aintzaz beteriko errege hori?
Jende xumearen Jauna,
bera da aintzaz beteriko erregea!

25 (24). Salmoa

Jainkoak ez dio huts egiten harengana jotzen duenari

- ¹ Jauna, zuregana jasotzen dut gogoa,
zuregana, ene Jainko.
- ² Ene Jainko, zuregan dut konfiantza,
ez diezadala usteak huts egin!
Ez daitezela etsaiak nitaz poztu!
- ³ Zuregan itxaron dutenei,
ez die usteak inoiz huts egingo.
Bai, ordea, arrazoirik gabe baztertzen zaituztenei.
- ⁴ Arren, Jauna, azaldu niri zure bideak,
erakutsi ni nondik ibiltzea nahi duzun.
- ⁵ Zuzen nazazu, zurekiko leial izan nadin, irakats niri!
Zu baitzara salbatzen nauzun Jainkoa;
zuregan itxaron dut etengabe.
- ⁶ Ekarri gogora, Jauna, zure samurtasuna eta maitasuna:
betidanikoak ditugu.
- ⁷ Ez gogoratu, ordea, Jauna, nire gaztetako bekatuak,
eta nire errebeldiak.
Gogora nazazu zeure maitasunaz,
zure ontasunari dagokionez.
- ⁸ Ona eta zuzena da Jauna: bidea
adierazten die bekatariari.
- ⁹ Apalak zuzenbidetik daramatza,
bere bidea erakusten die apalei.
- ¹⁰ Jaunak beti leialtasunez eta maitasunez jokatzen du,
beraren legea eta itunak gordetzen dituztenekin.
- ¹¹ Zarena zarelako, barka nire errua,
Jauna, hain handia den arren.
- ¹² Jakinarazten dio Jaunak begirune dionari,
zein jokabidea behar duen hautatu.
- ¹³ Zoriontsu biziko da,
eta haren ondorengoek lurraz jabetuko.
- ¹⁴ Adiskide ditu Jaunak begirune diotenak,
ezagutarazten die bere ituna.
- ¹⁵ Jaunarengan ditut beti neure begiak,
nire oinak erortzeko arriskutik gordetzen baititu.
- ¹⁶ Ai, zure maitasunezko begirada sentituko banu!
Bakarrik bainago, eta dohakabe!

- ¹⁷ Larritasunak hertsia dut bihotza,
noiz libratuko nauzu nire tormentuetatik?
- ¹⁸ Ikus nire atsekabea eta pena,
barkatu nire bekatu guztiak.
- ¹⁹ Ikus zein ugari diren nire etsaiak,
zein gogor nauten gorrotatzen!
- ²⁰ Badakit zugar aurkituko dudala bizitza eta salbamena,
ez naizela lotsatuko nire konfiantza zugar jartzeagatik.
- ²¹ Prestutasunak eta zuzentasunak zainduko naute,
zuregan itxaron baitut!
- ²² Jauna, Jauna, zure ondoan borrokatuko dut
herri guztia larriminetik libre gera dadin.

26 (25). Salmoa
Nire oina bide zuzenetik doa

- ¹ Egidazu justizia, Jauna,
nire jokaera prestua baita!
Konfiantza Jaunagan jartzen badut,
ez naiz ibiliko kolokan.
- ² Azter nazala, Jauna, zure begiradak,
iker ditzala nire buru-bihotzak.
- ³ Begi aurrean baitut zure maitasuna,
eta leial jokatu baitut zurekiko.
- ⁴ Ez naiz gaizkileen mahaikide izan,
ez eta itxuratiekin batera ibili.
- ⁵ Gorroto dut gaizkileen laguntza,
ez naiz gaiztoen mahaikide izan.
- ⁶ Errugabe naizela agertzeko, eskuak garbiturik,
zure aldarera inguratzen dut, Jauna,
- ⁷ zure gorespena ozenki hots eginez,
zure egintza miragarriak kontatuz.
- ⁸ Maite dut, Jauna, zu bizi zaren etxea,
zure aintzaren egoitza.
- ⁹ Ez nazazu egin bekatarien zori bereko,
ez nazazu bihur hiltzaileen kideko,
- ¹⁰ eskuak makurkeriaz eta eskupeko diruz beteak
dituzten horien kideko.
- ¹¹ Nire jokabidea, berriz, prestua da:
aska nazazu, erruki zakizkit!
- ¹² Tinko ezarriak ditut oinak,
Jauna, bedeinkatu egingo zaitut batzarrean.

27 (26). Salmoa
Jaunaren presentziaren bila

- ¹ Jauna dut argi eta salbamen,
nork ni beldurtu?
Jaunak dit bizia babesten,
nork ni ikaratu?
- ² Gaizkileek ni suntsitzeko asmoz erasotzen badidate,
beraiek, ene etsaiak, dira labaindu eta eroriko.
- ³ Gudaroste batek inguratuta ere,
nire bihotzak ikararik ez,
nire aurka borrokan hasita ere,
nik ez dut konfiantza galtzen.
- ⁴ Gauza bakarra diot Jaunari eskatu:
horixe bakarrik dut irrika:
Jaunaren etxean bizi nadila bizitza guztian,
Jaunaren edertasunari begira,
eta haren tenpluaren zaindari.
- ⁵ Bere aterpean gordeko nau zoritxar garaian,
bere etxolako txokoan ezkutatuko,
bere harkaitz gainera jasoko.
- ⁶ Horrela, burua tente eramango dut
inguratzen nauten etsaien aurrean.
Sakrifizioak eskainiko ditut haren etxolan poz-irrintziz,
kantatu eta soinua joko diot Jaunari.
- ⁷ Jauna, batzuetan badirudi ez duzula entzuten
nire ahotsaren deiadarra,
ez zarela nitaz errukitzen, ez didazula erantzuten.
- ⁸ Orduan diot nire baitan: "Bilatu Jaunaren aurpegia".
Zure aurpegiaren bila nator, ni Jauna,
ikus dezadala, eta kontenplatu.
- ⁹ Zapuztuko nauzulako zalantzak hartzen nau,
baina zu zaitut laguntza bakarra,
ez nauzu utziko, ez abandonatuko,
zu zarelako nire salbamenaren Jainko.
- ¹⁰ Aita-amak zapuzten banaute ere,
Jaunak berekin hartuko nau.

- ¹¹ Jauna, eraman nazazu bide zuzenetik,
etsaiek ugari baititut;
- ¹² Ez utzi ni etsaien gogara,
lekuko guztiak altxatu baitira nire aurka.
- ¹³ Ziur nago Jaunaren ontasuna gozatuko dudala
bizien lurraldean.
- ¹⁴ Itxaron Jaunarengan, eutsi gogor, izan kemen,
itxaron Jaunarengan.

28 (27). Salmoa

Jaunagan jartzen dut ene uste ona, eta berak laguntzen dit

- ¹ Jauna, zuri degizut dei!
Ene harkaitz, ez egin entzungor!
Erantzuten ez badidazu,
hilobira jaisten direnen antzeko izango naiz.
- ² Entzun nire erregu-oihua, laguntza eskatzen dizudanean,
eskuok zure santutegirantz luzatzen ditudanean.
- ³ Ez nazazu eraman gaiztoekin batera,
gaizkile horiekin batera;
besteren aurrean bakezko hitzak dituzte,
baina barruan txarkeria.
- ⁴ Zure errukiak har ditzala,
arbuia dezaten haien egintzen txarkeria,
arbuia dezaten haien egintzen maltzurkeria,
zure maitasunaren indarrari esker.
- ⁵ Ez dituzte ulertzen Jaunaren egintzak,
zure eskuek egin dutena, ene Jainko,
beti berritu eta inoiz suntsitzen ez duzuna.
- ⁶ Bedeinkatua Jauna, entzun baitu nire erregu-oihua.
- ⁷ Jauna dut indar eta babeski,
berarengan izan dut konfiantza;
bere laguntzak pozez betetzen nau,
eskerrak emango dizkiot kantari.
- ⁸ Jauna da bere herriaren indarra,
pobreenak salbatzen dituen babeskia.
- ⁹ Bedeinka ezazu, Jauna, zure herria,
izan zaitez haien artzain on eta gidari beti.

29 (28). Salmoa
Jaunak ematen dio indarra bere herriari

- ¹ Bedeinkatu Jauna, Jainkoaren seme-alabok!
Goretsi Jaunaren ospea eta indarra.
- ² Goretsi Jaunaren izen ospetsua,
ahuspeztu Jaunaren aurrean.
- ³ Jaunaren ahotsak ur gainean durunda,
Jainko aintzatsuak trumoa jo du.
Jauna ur handien gainean garai.
- ⁴ Jaunaren ahotsa indartsu,
Jaunaren ahotsa arranditsu.
- ⁵ Jaunaren ahotsak zedroak ditu apurtzen
Jaunak Libanoko zedroak txikitzen.
- ⁶ Zekorren antzera salto eragiten die Libanoko mendiei,
bufalokumearen antzera Sarion mendiari.
- ⁷ Jaunaren ahotsak ditu tximistez zartatzen,
⁸ Jaunaren ahotsak basamortua dardarazten.
⁹ Jaunaren ahotsak arteak ditu bihurritzen,
basoak zuritzen.
Garaia denean, denak egiten du oihu: "Gora"!
- ¹⁰ Jauna eserita dago ur handien gainetik,
Jauna, tronuan eseria, betiko errege.
- ¹¹ Jaunak indartu egiten du bere herria,
Jaunak bere herria bakeaz bedeinkatzen du.

30 (29). Salmoa
Zure babesak sendotu egiten nau

- ² Goratua zu, Jauna, onik atera bainauzu,
nire etsaiei ez diezu nire lepotik pozten utzi.
- ³ Jauna, ene Jainkoa, oihuz laguntza eskatu dizut
eta sendatu nauzu.
- ⁴ Jauna, Herio Leizetik atera nauzu,
hilobira jaistear nengoela, biziberritu.
- ⁵ Kanta Jaunari maite duzuenok,
goretsazue, santua dela gogoratu.
- ⁶ Jaunaren haserrea une baterako,
haren onginahia bizi guztirako.
- ⁷ Arratsean negarrez bagaude ere
goizean berriro poz-oihuz.
- ⁸ Lasaialdian hau pentsatu nuen:
"Ez dut sekula koloka egingo".
Zeure onginahiez, Jauna,
mendia bezain tinko ezarria ninduzun.
Zeure aurpegia ezkutatuko bazenit
larri biziko nintzateke.
- ⁹ Zuri dei egiten dizut, Jauna,
zugandik maitasuna espero dut.
- ¹⁰ Zer irabazten duzu ni hilda,
ni hilobira sartuta?
Hautsak zu goretsiko ote?
Zure zintzotasuna iragarriko?
- ¹¹ Kontua da zuk lagundu egiten didazula,
pasioz maite nauzula, beti nire laguntzaile zarela.
- ¹² Negarra dantza bihurtu didazu,
dolu-jantzia festa-jantzi.
- ¹³ Nire barruak isildu gabe kantatuko dizu,
Jauna, ene Jainko, betiko goretsiko zaitut.

31 (30). Salmoa
Bide zabalean jarri dituzu nire oinak

- ² Jauna, zuregan dut babesa,
ez dakidala inoiz neure ustea huts gera!
- ³ Goza dezadala nola entzuten didazun ikusita,
nola lasterkatzen zaren niri laguntzera,
nola bihurtzen zaren niretzat gotorleku,
jarri didaten tranpan ez erortzeko.
- ⁴ Zu baitzara, Jauna, nire haitz eta gotorleku,
eraman nazazu eta gidatu zarena zarelako.
- ⁵ Jarri didaten tranpatik atera nauzu,
zu baitzaitut gotorleku.
- ⁶ Zure eskuetan jartzen dut bizia,
aska nazazu Jaun leiala!
- ⁷ Gorroto dituzu sasi jainkozaleak,
nik Jaunarengan dut konfiantza.
- ⁸ Pozaren pozez jauzi egingo dut zure maitasunagatik,
ikusi baituzu nire atsekabea, arduratu baitzara nire larrialdiaz.
- ⁹ Ez nauzu utzi etsaien eskuetan;
lasaialdia eman didazu.
- ¹⁰ Minaren minez indarrak galtzen ari zaizkit,
¹¹ hezurak hausten.
Iseka egiten didate etsaiek, areago neure auzokoek.
- ¹² Beldurra ematen diet adiskideei,
ni kalean ikustean ihesi doaz.
- ¹³ Ahaztua naute erabat, hildakoa bezala,
alferreko tresna bainintza.
- ¹⁴ Jendearen marmarra entzuten dut,
izu-ikara edonondik.
Denek nire aurka elkar hartu dute,
niri bizia nola kenduko.
- ¹⁵ Baina nik, Jauna, zuregan dut konfiantza,
eta etengabe diotsut: "Zu nire Jainko".
- ¹⁶ Zure eskuetan nire zoria.
Libra nazazu pertsegitzen nauten etsaiengandik.
- ¹⁷ Zure aurpegiak argitu beza nire bizi-tza,
eta zure maitasunak salba nazala.

- ¹⁸ Jauna, zuri dei egitean, ez dakidala neure ustea
huts gerta, zuri dei egin ondoren.
Lotsa bedi gaizki jokatzen duena,
eta konturatu bedi zertan huts egin duen.
- ¹⁹ Geldi bitez mutu ezpain gezurtiak
zintzoaren aurka ari baitira jardunean,
lotsagabe, harrokeriaz eta mespretxuz.
- ²⁰ Bai handiak, Jauna,
begirune dizutenentzat gordeak dituzun ondasunak!
Denen bistan ematen dizkiezu zuregan babesu dutenei.
- ²¹ Zure gerizpean babesteko
borroka eta liskarretatik urrun.
- ²² Bedeinkatu Jauna, mirariak egin baitizkit
haren maitasunak, estualdian nengoela.
- ²³ Ikararen ikaraz hau pentsatu nuen:
Bere begi-bistatik bota egin nau Jaunak.
Zuk, ordea, entzun zenuen nire erregua,
laguntza eske deiadar egin nizunean.
- ²⁴ Maita Jauna haren bidetik zabilzatenok.
Leial zaizkionak Jaunak babesten ditu,
harroei, berriz, ordain gogorra ematen.
- ²⁵ Eutsi sendo, izan bihotz,
Jaunagan itxaron duzuenok.

32 (31). Salmoa

Barkamenaren poza eta indarra

- ¹ Zoriontsua Jainkoak hobena kendu
eta bekatua barkatu diona.
- ² Zoriontsua Jaunak errurik egozten ez diona
eta bere barruan makurkeriarik ez duena.
- ³ Isilik egon nintzen bitartean,
jota nuen gorputza, egun osoan aieneka.
- ⁴ Gau eta egun gainean nuen zure esku gogorra,
indarrak makaltzen ari zitzaizkidan,
udako sargoritan bezala.
- ⁵ Orduan aitortu nizun bekatua,
ez nizun gorde errua.
Hobenak zuri aitortzea erabaki nuen, Jauna,
eta barkatu zenizkidan erru eta bekatuak.
- ⁶ Otoitz egin biezazu, beraz, fededunak
larri denean, uholde handia izanik ere,
ez du harrapatuko.
- ⁷ Zu niretzat babesleku, arriskutik gordetzen nauzu,
askapen kantaz inguratzen.
- ⁸ "Trakatsi egingo dizut eta jarraibidea erakutsiko;
aholku emango dizut eta zure ardura izango".
- ⁹ "Ez izan zaldi eta mando adimengabeen antzeko.
Galgaz eta ahokoz eutsi behar zaio haren indarrari".
- ¹⁰ Gaiztoentzat oinaze ugari;
Jainkoarengan konfiantza duena, berriz,
haren maitasunak inguratzen du.
- ¹¹ Poztu eta alaitu Jaunarekin, zintzoak!
Egin poz oihu bihotz zuzeneko guztiok!

33 (32). Salmoa
Herrien Jainko kreatora eta askatzaileari laudorio kanta

- ¹ Egin poz-oihu Jaunari, zintzook,
zuzenek behar dute Jainkoa goretsi.
- ² Eskerrak eman Jaunari zitaraz,
jo harentzat hamar hariko harpa;
- ³ Kanta hari kantu berria,
jo trebeki eta egin irrintzi.
- ⁴ Jaunaren hitza zuzen-zuzena baita,
haren egintza guztiak, fidagarriak.
- ⁵ Zuzenbidea eta justizia maite ditu,
Jaunaren maitasunaz betea da lurra.
- ⁶ Jaunak bere hitzaz egin du ortzia,
bere aho-arnasaz astro guztiak.
- ⁷ Itsas-urak pilatzen ditu eta hesi barruan biltzen,
ozeanoak multzotan batzen.
- ⁸ Errespeta beza Jauna lur osoak,
ikara bitez haren aurrean munduko biztanle guztiak.
- ⁹ Berak esan, eta dena egin zen:
berak agindu, eta dena izaten hasi.
- ¹⁰ Nazioen egitasmoak Jaunak ditu desegiten,
herrien asmoak hutsean galtzen.
- ¹¹ Jaunaren egitasmoak, berriz, betiko dirau,
haren barne asmoak menderen mende.
- ¹² Zorionekoa Jauna Jainko duen nazioa,
zorionekoa hark beretzat aukeratu duen herria.
- ¹³ Jaunak, zerutik begira,
gizaki guztiak ikusten ditu,
- ¹⁴ bere bizilekutik jarriak ditu begiak
munduko biztanle guztiengan.
- ¹⁵ Berak egin zituen haien bihotzak
eta adi dago haien egintza guztiei.
- ¹⁶ Erregea ez du gudaroste handiak salbatzen,
ezta gudaria ere indar handiak libratzen.
- ¹⁷ Alferrik dira zaldiak garaipena lortzeko,
gudaroste handia aski ez, onik ateratzeko.

- ¹⁸ Jaunak ditu zaintzen begirune diotenak,
haren maitasunean itxaroten dutenak, eta ez dutenak,
¹⁹ heriotzatik libratu,
eta goseteen bizirik gordetzeko.
- ²⁰ Guk Jaunarengan dugu itxaropena,
bera dugu laguntzaile eta babesle.
- ²¹ Harengandik datorkigu bihotzeko poza,
Haren izen santuan jarria dugu gure konfiantza.
- ²² Betor gurekin, Jauna, zure maitasun leiala,
zuregan jarri baitugu esperantza!

34 (33). Salmoa
Dastatu eta ikus zein ona den Jauna!

- ² Bedeinkatuko dut Jauna une oroz,
etengabe goretsiko ene ezpainez.
- ³ Harro nago, Jaunaz,
entzun bezate apalek eta poztu!
- ⁴ Goretsi nirekin batera, Jauna,
gora dezagun elkarrekin batera haren izena.
- ⁵ Jaunarengana jo nuen eta hark erantzun.
- ⁶ Hari begiratzen diotenak, argi-argi egongo dira,
ez zaie aurpegia lotsaz gorrituko.
- ⁷ Dohakabe honek dei egitean, Jaunak entzun
eta larrialdi guztietatik atera zuen.
- ⁸ Zaindari dago Jaunaren aingerua, etxola ipiniz,
begirune diotenen inguruan, arriskuetatik ateratzeko.
- ⁹ Dasta eta ikus zein ona den Jauna.
Zorionekoa berarengan babes duena.
- ¹⁰ Izan Jaunaren begirune zuek, hari sagaratuok,
ez baitzaie ezer faltako begirune diotenei.
- ¹¹ Aberatsek ere badakite zer den beharra eta gosea;
Jaunagana jotzen dutenei ez zaie ezer falta.
- ¹² Zatozte, ene haurrok,
Jauna errespetatzen irakatsiko dizuet.
- ¹³ Nork ez du maite bizia,
Nork ez du nahi luzaroan bizi eta zoriontsu izan?
- ¹⁴ Gorde ezazu mihia gaitzetik,
zure ezpainak gezurretik.
- ¹⁵ Alde gaitzetik, egin on dena,
bila bakea, eta zabilta haren bidetik.
- ¹⁶ Zintzoengana ditu Jaunak begiak,
haien deiak entzuteko adi belarriak.
- ¹⁷ Gaizki jokutzen duena urrundu egiten da Jaunagandik,
haren bizia galdu egiten da erremediorik gabe.
- ¹⁸ Deiadar egitean, Jaunak entzun egiten die,
eta larrialditik askatzen ditu.
- ¹⁹ Hurbil dago Jauna bihotz hautsietatik,
salbatu egiten ditu etsita daudenak.

²⁰ Zoritxar asko izaten ditu jende zintzoak,
baina guztietatik libratzen ditu Jaunak.

²¹ Haien hezur guztiak zaintzen ditu,
bat bakarra ere ez da hautsiko.

²² Gaiztakeriak akabatzen du gaiztoa,
zintzoari gorroto diotenak ito egingo dira bidegabekeria.

²³ Jaunak maitasunez zaintzen ditu pertsona guztiak,
harengan babesu duena ez da hilko.

35 (34). Salmoa Neu nauzu salbatzaile

- ¹ Jauna, zu nire ondoan zaudela, kementsu izango naiz;
min egin nahi didatenen aurrean.
- ² Biziki irrikatzen dut zure defentsa,
zure esku baldintzarik gabe luzatua!
Berandutzen ari zait zure laguntza!
- ³ Nire alde sentitu nahi zaitut, zure kemen guztiz,
eta esadazu “Neu nauzu salbatzaile”.
- ⁴ Huts egiezu eta lotsarazi ni hiltzeko dabiltzanak.
Atzera egin bezate lotsa gorrian ni nondik hondatuko dabiltzanak.
- ⁵ Izan bitez haizeak daraman lastoaren antzeko,
Jaunaren aingeruak onbidera ditzala.
- ⁶ Kontura daitezela beren huts eta akatsez,
Jaunaren aingeruak argi ditzala.
- ⁷ Arrazoirik gabe tranpa jarri didate,
motiborik gabe zuloa zabaldu.
- ⁸ Ikus dezatela azkenean gaitza
gaizkilearen gainera erortzen dela.
- ⁹ Orduan Jaunarekin alaituko naiz,
eta gozatu egingo dut haren garaipenarekin.
- ¹⁰ Bihotz-bihotzetik esango dut
“Nor zu bezalakorik, Jauna”?
Dohakabea askatzen duzu indartsuagoren eskutik,
errukarri eta behartsua, zapaltzaileagandik.
- ¹¹ Lekuko bihozgabeak altxatzen zaizkit,
eta jakin ere ez dakizkidanak leporatzen.
- ¹² Onaren ordain gaitza ematen didate
eta lur jorik uzten.
- ¹³ Ni, ordea, haiek gaixo zeudenean,
dolu-jantzitan ibili ohi nintzen,
neure burua barauaz zigortzen nuen,
eta neure barruan otoitz eta otoitz egiten.
- ¹⁴ Adiskide eta senideak bezala nituen,
eta kopetilun eta burumakur ibili ohi nintzen.
- ¹⁵ Baina nik estropezu egitean,
pozik bildu dira,
nire kontra bildu dira joka,
zergatik ez dakidala larrutzen naute,
etengabe irainduz.
- ¹⁶ Inguruan ditudan isekariek
hortzak erakusten dizkidate.

- ¹⁷ Jauna, noiz arte egon behar duzu begira?
Askatu nire bizia haien tranpetatik,
libra nazazu lehoi horiengandik!
- ¹⁸ Eskerrak emango dizkizut batzar nagusian,
jendetzaren aurrean zaitut goretsiko.
- ¹⁹ Ez dezatela nire lepotik barre egin,
nire etsai maltzurrek!
Ez dezatela begi keinuka jardun,
arrazoirik gabe gorroto didatenek.
- ²⁰ Ez dute inoiz bakezko hitzik,
lurraldeko jende baketsuaren aurka,
maltzurkeriak asmatzen dituzte.
- ²¹ Nire aurka ahozabal, honela diote:
“Hara, guk geuk ikusi dugu”.
- ²² Ikusi duzu, Jauna, ez isildu.
Ez egon niregandik urrun.
- ²³ Esnatu eta zatoz nire eskubideen alde,
Jokatu auzian nire alde, ene Jaun eta Jainko.
- ²⁴ Egidazu justizia zure justiziar dagokion lez,
ez dezatela nire lepotik barre egin.
- ²⁵ Ez dezatela pentsa: “A zer gozamina”!
Ez dezatela esan: “Horrenak egin ditugu”.
- ²⁶ Lotsa gorritan geldi bitez, denak batera,
nire zoritxarraz pozten direnak!
Lotsaz eta laidoz estali bitez
nire aurka harro dabilzanak.
- ²⁷ Alai bitez eta poz-oihuka ekin
nire eskubideen alde daudenak.
Behin eta berriz esan bezate: “Handia da Jauna”.
- ²⁸ Bera morroiari zoriona opa dio,
eta nire mihiak zure justizia iragarriko du
egunero zu goratuko.

36 (35). Salmoa
Zugan dago biziaren iturria

- ² Gaiztakeria mintzo zaio gaiztoari barruan.
Harengan ez da Jainkoarenganako beldurrik,
ezta Jainkoaren presentzian dagoenean ere.
- ³ Hain baitu leun hartzen bere barrua,
ez da gauza errua ikusteko, ez gorrotatzeko.
- ⁴ Okerra eta engainua besterik ez du ahoan,
galdua du onerako sena.
- ⁵ Ohean ere, okerra darabil gogoan,
bide txarrean setati, ez du gaizkia utzi nahi.
- ⁶ Jauna, zure maitasuna zero zabala adinekoa,
zure leialtasuna hodeitarainokoa,
- ⁷ zure justizia mendirik handiena bezalakoa,
zure probidentzia ozeano mugagabe adinakoa:
gizaki eta abereak zuk biziarazten dituzu, Jauna.
- ⁸ Bai zoragarria zure maitasuna, oi Jainko!
Zure hegaldura biltzen dira gizakiak.
- ⁹ Zure etxeko janari guriz asetzen dituzu,
zeure atseginen ibaian edanarazten.
- ¹⁰ Zuregan da biziaren iturria,
eta zure argiaz ikusten dugu argia.
- ¹¹ Luza zure maitasuna aintzat hartzen zaituztenei,
zeure justizia bihotz zuzenei.
- ¹² Ez nazala zapal harroaren oinak,
ez eta kanpora bota gaiztoaren eskuek.
- ¹³ Gaizkileak txikitu egiten du bere bizitza,
eta zeinen zaila den berriz osatzea!

37 (36). Salmoa

Ez izan gaizkilearen inbidiarik

- ¹ Ez zaitetz gaiztoengatik haserretu,
ezta gaizkileen inbidiatan egon ere,
- ² belarra bezain bizkor ihartzen baitira,
eta berehalaxe zimeltzen.
- ³ Izan konfiantza Jaunarengan eta egin on dena,
zeure herrialdean bizi
eta bertako aberastasunaz gozatzeko.
- ⁴ Izan bedi Jauna zure atsegina,
eta berak emango dizu bihotzak eskatzen dizuna.
- ⁵ Utzi Jaunaren esku zure zoria,
izan konfiantza harengan.
Berak ekingo dio zure alde.
- ⁶ Goizeko argia bezain distiratsu egingo du zure zuzentasuna,
eguerdiko eguzkia bezain argitsu zure zuzenbidea.
- ⁷ Egon lasai Jaunarengan, itxaron berarengan,
ez zaitetz sutu, kalterako izango duzu eta,
maltzurkeriaz dabilenaren kontra.
- ⁸ Izan ere, kanporatu egingo dituzte gaizkileak;
- ⁹ aldiz, herrialdeaz jabetuko dira Jaunaz fio direnak.
- ¹⁰ Itxaron pixka bat, eta kito gaiztoa,
bilatu arren ez duzu gehiago aurkituko.
- ¹¹ Apalak izango dira herrialdearen jabe,
bake osoaz gozatuko dira.
- ¹² Zintzoen kontra gaiztoa azpijokoan,
beraren kontra erakusten ditu hortzak.
- ¹³ Baina Jaunak pasioz eta irrikaz begiratzen dio,
zain aldatuko den eguna noiz etorriko den.
- ¹⁴ Ezpata atera eta uztaiak tenkatzen dute gaiztoek,
dohakabea eta behartsua eraiteko, zuzen dabiltzanak hiltzeko.
- ¹⁵ Baina ezpata beren bihotzean sartuko zaie
eta uztaiak apurtuko.
- ¹⁶ Gehiago balio du zuzenaren apurra
aberats gaiztoaren ugaritasunak baino
- ¹⁷ gaiztakeriak ez baitu ezer onik sortzen,
zintzoei, ordea, Jaunak die eutsiko.

- ¹⁸ Jauna arduratzen da prestuen bizitzaz,
eta beren ondarearen jabe izango dira betiko.
- ¹⁹ Zoritxar egunean ez dute porrot egingo,
gose egunetan asebateak izango dira.
- ²⁰ Galdu egingo dira gaiztoak;
Jaunaren etsaiak, zelaietako belar ondua bezala,
su hartu eta ketan joango dira.
- ²¹ Gaiztoak maileguan hartu eta ez du itzultzen,
zintzoak errukitu eta eman egiten du.
- ²² Jaunak guztiei eskaintzen die bedeinkapena,
ez dago inoren madarikazioaren irrikatan.
- ²³ Jaunak segurtatzen ditu gizakiaren pausoak,
eta atsegin duen bidetik eramaten.
- ²⁴ Estropezu egiten badu ere, ez da erortzen,
eskutik heltzen baitio Jaunak.
- ²⁵ Gazte izan nintzen, orain zaharturik nago:
ez dut sekula ikusi zintzoa bertan behera utzia,
ez eta haren ondorengorik ere ogi eskean.
- ²⁶ Zintzoa beti da errukitsu eta eskuzabal,
bedeinkatuak dira haren seme-alabak.
- ²⁷ Alde gaitzetik, egin on dena,
eta beti izango duzu non bizi,
- ²⁸ justizia maite baitu Jaunak,
eta ez du inor bertan behera uzten.
- ²⁹ Zintzoek beti izango dute babesak,
gaiztoen ondorengotza, ordea, suntsitua izango da.
Zintzoak herrialdearen jabe izango dira,
eta beti bertan biziko.
- ³⁰ Zuzenak jakinduriaz hitz egiten du,
bidezko dena esaten.
- ³¹ Bere Jainkoaren hitza du bihotzean,
haren oinek ez dute huts egingo.
- ³² Gaiztoak zelatan egoten zaizkio zintzoari,
nola hilko asmatzen.
- ³³ Baina Jaunak ez du haien eskuetan lagako,
epaitzen badute ere, ez du kondenatzen utziko.
- ³⁴ Itxaron Jaunarengan eta jarrai haren bideari,
berak altxatuko baitu herrialdearen jabe izateraino,
eta zutik ikusiko dugu gaiztoaren suntsipena.

- ³⁵ Ikusi dut gaiztoa bere indarraz harropuztua,
Libango zedroa bezala zabaldua.
- ³⁶ Gero pasa nintzen; desagertu da, ez da jadanik,
bila ibili eta ezin izan dut aurkitu.
- ³⁷ Begira gizaki prestuari, so egin zuzenari,
bakezaleak badu etorkizunik.
- ³⁸ Baina gaiztakeriak ez du ezer onik ekartzen,
bere baitan darama bere suntsipenaren hazia.
- ³⁹ Zintzoen salbamera Jaunarengandik dator,
hura dute gotorleku arrisku garaian.
- ⁴⁰ Jaunak denei laguntzen die,
onik ateratzen du eta salbatzen
berarengana jotzen duena babes bila.

38 (37). Salmoa
Zuk erantzungo duzu, Jauna, ene Jainko

- ² Jauna, maite nauzulako zentzutzen nauzu,
inporta natzaizulako zuzentzen nauzu.
- ³ Zure maitasuna hondoeneraino iristen zait,
zure eskuak babesten nau.
- ⁴ Gorputz osoa dut mindua,
eta ez dakit zergatik.
Nire hezurrentzat ez dago atsedetik:
hain naiz hauskorra!
- ⁵ Buruz gain ditut nire erruak,
azpian hartu naute, zama astunegiak legez.
- ⁶ Nire zauriak gaiztoturik daude eta zorretan usteldurik,
nire zorakeriaren ondorioz.
- ⁷ Okerturik eta makur nabil,
egun osoan kopetilun.
- ⁸ Sukarrak hartu nau hondoraino,
gorputz osoa dut mindua.
- ⁹ Leher eginda nago, guztiz lur jota,
garrasika eta aieneka barru-barrutik.
- ¹⁰ Ezagunak dituzu, Jauna, nire irrika guztiak,
nire intziriak ez daude zuretzat ezkutuan.
- ¹¹ Taupada bizian dut bihotza, huts egin didate indarrak,
alde egin dit begietako argiak ere.
- ¹² Nire zauriak direla eta, urrun doazkit adiskide eta lagunak,
urrun gelditzen senitartekoak ere.
- ¹³ Bizia kendu nahi didatenek tranpak jarri dizkidate,
kalte egin nahi didatenak egun osoan ari zaizkit mehatxuka,
eta makurkeriak asmatzen.
- ¹⁴ Baina nik gorrarena egiten dut, entzungo ez banu bezala,
ez dut ahorik zabaltzen, mutua banintz bezala.
- ¹⁵ Eta hala bihurtu naiz, entzuten ez duen
eta erantzun ezin duenaren antzeko.
- ¹⁶ Jauna, zuregan dut itxaropena:
zuk erantzungo didazu, Jauna, ene Jainko.
- ¹⁷ Hona nire eskaria: ez dezatela barre egin nire lepotik,
ez daitezela nire kontra harro, koloka naizenean.

¹⁸ Izan ere, erortzeko zorian nago,
minak ez dit alde egiten.

¹⁹ Bai, aitortzen dut errua,
larritua nauka nire bekatuak.

²⁰ Indartsu dira nire biziaren etsaiak,
ugari bidegabek gorroto nautenak.

²¹ Onaren ordezk gaitza ematen
eta on egiten saiatzen naizelako salatzen nautenak.

²² Jauna, ez utzi ni;
ene Jainko, ez gelditu urrutia.

²³ Lagundu berandu gabe, ene Jaun,
ene salbatzaile horrek!

39 (38). Salmoa
Orain, Jauna, zer itxaron dezaket?

- ² Neure buruari esan nion:
"Zainduko dut nire jarduera,
mihiaz huts egin ez dezadan,
ezpainak josirik gordeko ditut
aurrean gaizkilerik dudan bitartean".
- ³ Mutu gelditu nintzen,
behar baino gehiago ere isildu,
baina nire mina gero eta biziagoa zen.
- ⁴ Erretzen neukan bihotza bularrean,
gogoan nerabilela, sua pizten zitzaidan,
ezpainak ireki nituen arte eta esan:
- ⁵ Jauna, emadazu ezagutzera neure azkena
eta nire bizitzaren luzera,
zein galkorra naizen jakin dezadan.
- ⁶ Unetxo bateko bizia eman didazu,
zure aurrean hutsa da bizitzaren iraupena,
arnasaldi bat besterik ez da gizakia.
- ⁷ Ametsetan bezala dabil harat-honat,
haizea bezain hutsala haren zalaparta,
ondasunak pilatu, eta norentzat jakin ez.
- ⁸ Zer itxaron dezaket, beraz Jauna?
zuregan nire itxaropen bakarra.
- ⁹ Zure laguntzarekin nire bekatutik askatuko banintz,
egin gabe eroaren barregarria!
- ¹⁰ Isilik nago, ahorik zabaldu gabe,
nire bizia zure eskuetan baitago.
- ¹¹ Zuk inoiz ez duzu gozaten nire gaitzarekin,
zure ama-eskuarekin kontsolatzen nauzu.
- ¹² Gure bekatuak hondamena dakarkigu,
eta sitsak jantzia bezala hauts bihurtzen
hark maiteen duena.
Arnasaldi bat besterik ez da gizakia.
- ¹³ Entzun nire otoitza, Jauna, jaso nire deiadarra!
Ez egin entzungor nire negarrari!
Nire malkoek aurki bezate kontsolapen zuregan!
Arrotza naiz, baina zu zara nire ostatua,
erramesa naiz nire arbasoak bezala.
- ¹⁴ Ken niregandik begirada zorrotz hori,
noizbait ere irribarre egin ahal dezadan,
zure magalean aurrera ahal dezadan, bizi oparoaren esperoan.

Jauna arduratuko da gutaz

- ² Jaunarengan jarri nuen itxaropen guztia,
makurtu eta entzun du nire deiadarra.
- ³ Herio Leize sakonetik nau atera,
haitz gainean tinko jarri ditu nire oinak,
seguruak egin nire pausoak.
- ⁴ Kanta berria ipini dit ezpainetan,
gure Jainkoarentzat gorespen kanta;
askok ikusiko dute hau eta, ikaraturik,
Jainkoarengan konfiantza izango.
- ⁵ Zorionekoa Jaunarengan fidatzen dena,
idolo eta sasijainkoetara jotzen ez duena.
- ⁶ Jauna, ene Jainko, bai ugari egin dituzula mirariak!
Zenbat egitasmo gure alde!
Ez da zure parekorik!
Aldarrikatu nahi ditut eta hots egin,
baina konta ahala baino gehiago dira.
- ⁷ Ez duzu nahi izan sakrifizio eta eskaintzarik,
ez erre opari, ez bekatuen barkamen oparirik,
baizik eta belarriak ireki dizkidazu, zuri entzuteko.
- ⁸ Horregatik diot: "Hemen nauzu".
Liburuan agintzen zait, zure nahia betetzeko.
- ⁹ Ene Jainko, atsegin dut zure legea
barne muinetan.
- ¹⁰ Batzar nagusian iragarri dut zure salbazioa,
ez ditut ezpainak itxi, ongi dakizu, Jauna.
- ¹¹ Zure salbazioa ez dut golkorako gorde,
zure leialtasun eta salbamenaren berri eman dut.
Zure maitasun eta fintasuna ez ditut
batzar nagusian isildu.
- ¹² Jauna, gorde nazazu zure samurtasunera irekia!
Zure maitasun eta leialtasunak gorde nazatela beti.
- ¹³ Ezin konta ahalako zoritxarretan murgildua nago
neure erruek inguratua naukate, ihesbiderik gabe,
buruko ileak baino ugariago dira,
bihozgabeturik nago.

- ¹⁴ Jauna, nola irrikatzen dudan zure salbamena,
nola irrikatzen dudan zure laguntza!
- ¹⁵ Lotsa gorritan gera bitez denak batera,
ni hil nahian dabilzanak.
Atzera egin bezate barregarri, zoritxarra opa didatenak.
- ¹⁶ Lotsaz nahasturik geldi bitez
burla egiten didatenak.
- ¹⁷ Poz eta alai bitez zurekin zuregana jotzen dutenak.
“Handia da Jauna”, esan bezate etengabe
zure salbamena nahi dutenak.
- ¹⁸ Behartsu eta dohakabea naiz,
baina Jauna da nitaz arduratzen.
Zu zara nire laguntzaile eta askatzaile,
ene Jainko, ez luza!

41 (40). Salmoa
Otoitza gaixotasunean

- ² Zorionekoa gizagaixoz arduratzen dena!
Onik aterako du Jaunak zoritxar egunean.
- ³ Bizirik gordeko du eta zoriontsu egingo lurrean,
ez du utziko etsaien gogara.
- ⁴ Ohean minez dagoela, Jaunak lagunduko dio,
eta gaixoaldian oneratuko.
- ⁵ Nik esan nuen: “Erruki, Jauna! Senda nazazu
zure aurka bekatu egin dudan arren”.
- ⁶ Etsaiak gaizki esaka ari zaizkit,
“Noiz hil behar ote du?
Noiz galduko ote honen izena?”
- ⁷ Ikustera datorkidana, faltsukeriaz mintzo da.
Txarkeria du barruan gordeta eta kanpora irteteen zabaltzen.
- ⁸ Gorroto didatenak, elkar harturik,
nire aurka marmarrean ari dira.
- ⁹ Burutazio okerrak dituzte niretzat.
“Eritasun gaiztoak harrapatu du,
ez da gehiago ohetik jaikiko”
- ¹⁰ Nire adiskiderik minena ere, konfiantza osoko
eta mahaikide nuena, kontra jarri zait.
- ¹¹ Jauna, zure maitezko begirada nire gainean jarri
eta duindu egingo du nire bizitza.
- ¹² Honetantxe dakit maite nauzuna:
etsaiak ezin duela garaipen oihurik egin nire bizkarretik.
- ¹³ Osasuntsu iraunaraziko nauzu,
zuk eutsiko zeure aurrean betiko.
- ¹⁴ Bedeinkatua Jauna, herri guztien Jainkoa,
betidanik betidaino. Amen. Amen.

42 (41). Salmoa
Nire arima Jainko biziak egarri da

- ² Basahuntza irrikaz erre kara bezala,
halaxe ni zuregana, ene Jainko.
- ³ Jainkoaren egarri naiz, Jainko biziaren egarri:
noiz iritsiko ni Jainkoaren aurpegia ikustera?
- ⁴ Gau eta egun malkoak ditut janari,
jendea une oro galdezka ari zaidala:
Non duk Jainkoa?
- ⁵ Oroitzeak nostalgiaz betetzen nau,
nola joaten nintzen tenplura, Jainkoaren Etxera,
poz oihuz eta gora goraka,
jai giroan erromesen artean.
- ⁶ *Zergatik zaude, ene barrena hain goibel?
Zergatik hain urduri? Itxaron Jainkoarengan!
Goretsiko dut, bai, berriz ere, haren presentzia salbatzailea.*
- ⁷ Ene Jainko, triste dut bihotza,
horregatik zakartzat gogora.
Jordan aldetik, Hermon gainetik, Mitzar menditik,
mendi apal horretatik.
- ⁸ Zure ur jauzien burrunbadaren oihartzuna leizerik leize;
zure uhin eta olatu oldartsuak gainetik igaro zaizkit.
- ⁹ Jaunak bere maitasuna bidaliko dit egunez,
eta gaez inspiratzen nauen kantua
nire bizitzako Jainkoari egindako otoitza izango da.
- ¹⁰ Hauxe esango diot:
“Ene haitz, zergatik sentitzen zaitut hain urruti?
Zergatik behar dut goibel ibili, etsaiak estuturik?”
- ¹¹ Hezurak ere mailatuak ditut, etsaiak iseka egiten didate,
etengabe ari zaizkidala: “Non duk Jainkoa?”
- ¹² *Zergatik zaude, ene barrena, hain goibel?
Zergatik hain urduri? Itxaron Jainkoarengan!
Goretsiko dut, bai, berriz ere, haren presentzia salbatzailea.*

43 (42). Salmoa
Nire alaitasunaren Jainkoa

¹ Jauna, ene Jainko, zure eskuetan jartzen dut nire auzia,
maitasunik gabeko jendearen aurka;
zuk bakarrik libra nazakezu jende maltzur gaiztoaren eskutik.

² Ene Jainko babesle horrek, zergatik baztertzen nauzu?
Zergatik behar dut goibel ibili, etsaiak estaturik?

³ Bidali zure argia eta zure egia: gida nazatela,
eraman nazatela zure mendi santura, zure bizilekura.

⁴ Eta zure aldarera iritsiko naiz,
oi Jainko, nire poz betea zaren Jainko horrengana.
Zitara joz goretsiko zaitut, Jainko, ene Jainko.

⁵ *Zergatik zaude, ene barrena hain goibel?
Zergatik hain urduri? Itxaron Jainkoarengan!
Goretsiko dut, bai, berriz ere, haren presentzia salbatzailea.*

44 (43). Salmoa
Zenbat behar dugun zure laguntza, Jauna!

- ² Oi Jainko, geure belarriz entzuna dugu,
gurasoek kontaturik,
zuk haien garaian,
aspaldi hartan eginaren berri.
- ³ Zure presentzia salbatzailearekin
lagundu zenion haien historiari,
herri guztiekin egiten duzun bezala.
- ⁴ Ez ziren beren armei esker nagusitu lurraldeaz,
ez zuten beren indarrari esker lortu garaipena,
zure ahalmenari eta indarrari
eta presentzia argitsuari esker baizik,
maite zenituelako.
- ⁵ Zuk bakarrik, ene Errege, ene Jainko,
betetzen zenuen indarrez zure herria;
- ⁶ zurekin indartsu ginen zailtasunetan,
zure izenean egiten genien aurre ustekabeei.
- ⁷ Konfiantza ez neukan uztaian jarria,
garaipena ez zigun ezpatak ematen.
- ⁸ Zu ondoan zeundela gainditzen genituen irainak,
zu gure ondoan zaudela uxatuko ditugu gehiegikeriak.
- ⁹ Zu goستن zintugun egunero, Jainko,
zu ospatzen etengabe.
- ¹⁰ Orain, ordea, baztertu egin gaituzu eta lotsarazi,
zure indarra gugandik urrundu balitz bezala.
- ¹¹ Etsaien aurrean ihes eragin diguzu,
eta gorroto digutenek larritu egiten gaituzte.
- ¹² Gizagaixo sentitzen gara, bakarrik eta,
solidaritaterik gabe, umezurtz.
- ¹³ Zure herria norabiderik gabe dabil,
galduta eta guztiz irainduta.
- ¹⁴ Auzoko herrien iseka gai egin gaituzu,
ingurukoen burla eta barregarri.
- ¹⁵ Boteretsuk gozatu egiten dute gu horrela ikusita,
prest daude gurekin bukatzeko.

- ¹⁶ Begi aurrean nire desohorea, lotsaz gorri aurpegia,
mespretxu eta irainak direla eta,
mendeku bila dabilen etsaia dela eta.
- ¹⁷ Hau guztia zu ahantzi gabe gertatu zitzaigun,
zure itunari traizio egin gabe.
- ¹⁸ Gure bihotza ez da zuregandik urrundu,
ez gure pausok zuregandik okertu.
- ¹⁹ Ez al duzu sufritzen gu abandonatuta?
Herio-itzalean ikusita?
- ²⁰ Basatxakurren artera bota gaituzu,
eta herio-itzalean murgildu.
- ²¹ Gure Jainkoa ahaztu bagenu,
eta beste jainkoengana besoak luzatu,
- ²² konturatuko zen Jainkoa,
bihotz-zoko ezkutuenak ere ezagutzen dituen.
- ²³ Baina, errurik gabe, hondamena pairatzen dugu egunero,
hiltzeko ardiak bezala garabiltzate.
- ²⁴ Gure ondoan zutik sentitu nahi zaitugu,
gure duintasunaren defendatzaile.
- ²⁵ Ikus dezagula nola aurpegi ematen duzun gugatik,
gure miseria eta zapalkuntzaren minez.
- ²⁶ Gure adorea lur jota dago,
botata gaude herrestan.
- ²⁷ Zenbat behar dugun zure laguntza,
Jauna, nola irrikatzen dugun zure maitasunaren askapena.

45 (44). Salmoa
Errege ezteietarako kanta

- ² Hitz ederrez barrua gainezka,
erregeari opa diot neure olerkia.
Idazle trebearen luma da nire mihia.
- ³ Gizasemeetan ederrena zara,
ezpainetatik xarma darizu,
Jainkoak betidanik bedeinkatu baitzaitu.
- ⁴ Lotu gerrian ezpata, gudari ausart horrek,
zeure aintza eta ospea agertuz.
- ⁵ Zure ospez, izan garaile egia eta justiziaren borrokan,
ahulenekiko pasioa da zure apaingarria.
- ⁶ Kementsua eta zintzoa zara,
zure aurrean desagertu egiten dira gehiegikeriak,
eta senidetasunaren aurkako guztia.
- ⁷ Zure tronua betierekoa da, Jainko batena bezala,
berdintasun koroa da zure errege koroa.
- ⁸ Zuzen dena behar duzu maite,
oker dena gorrotatu,
Jainkoak, zure Jainkoak baitzaitu gantzutu,
jai giro pozgarrian, lagunaren artean aukeraturik.
- ⁹ Mirra, aloe eta kanela usainezkoak zure jantziak,
harpa soinua marfilezko jauregietan zure alaigarri.
- ¹⁰ Herriko alabak dituzu inguruan,
zure eskuinean erregina, urre finez apaindurik.
- ¹¹ Entzun, alaba! Zaude erne eta adi!,
ahaztu zeure herria, eta aitaren etxea.
- ¹² Zoraturik dago erregea zeure edertasunaz;
bera da zure jaun eta maitasuna. Entrega zatzaizkio.
- ¹³ Herriak erregaliekkin datozkizu,
herriko handikiak zure abegi onaren bila.
- ¹⁴ Guztiz ospetsu dago printzesa,
urrez apain brodaturiko jantzitan.
- ¹⁵ Erregeagana daramate;
neskatxa gazteak, bere adiskideak, ondoren doazkio.
- ¹⁶ Jai giro pozgarrian sartzen dira
erregearen jauregira.

- ¹⁷ Gurasoen tronuan semeak jarriko dituzu,
eta mundu osoaren agintari egingo.
- ¹⁸ Zure oroitzapena bizirik gordeko dut gizaldiz gizaldi
eta herriek menderen mende goratuko zaituzte.

46 (45). Salmoa
Jainkoa, bere herriaren berme segurua

- ² Jainkoa dugu babesleku eta indar,
larrialdian laguntzaile seguru.
- ³ Ez dugu, beraz, beldurrik
nahiz eta lurak dardara egin,
- ⁴ edota mendiak itsas ondora amildu,
nahiz eta olatuek apar-bitsetan orro egin.

*Bake eta justiziaren Jauna gurekin dago,
bere herria maite duen Jainkoa da gure gotorleku.*

- ⁵ Ibai baten adarrek alaitzen dute Jainkoan hiria,
Goi-goikoak bere bizilekua sagaratu du.
- ⁶ Jainkoa erdian duela, ez du koloka egiten,
goiz-goizetik laguntzen dio Jaunak.
- ⁷ Nazioek ikara, erreinuek koloka,
Jainkoa mintzatu eta lurra irauli.

*⁸ Bake eta justiziaren Jauna gurekin dago,
bere herria maite duen Jainkoa da gure gotorleku.*

- ⁹ Zatozte, ikus Jaunaren egintzak,
lurrean egin duen iraulketa.
- ¹⁰ Mundu osoan gerrak geldiarazi,
uztaiak puskatu, lantzak apurtu,
babeskiak sutan erre.
- ¹¹ Utzi armak, aitor ezazue Jainkoa naizela,
herrien gain eta lurraren gain nagoela.

*¹² Bake eta justiziaren Jauna gurekin dago,
bere herria maite duen Jainkoa da gure gotorleku.*

47 (46). Salmoa
Jainkoa, munduaren zerbitzari umil eta indartsua

- ² Herri guztiok, egin txalo,
egin pozez oihu eta irrintzi Jainkoari.
- ³ Izugarria baita Jauna, Goi-goikoa,
lur guztiaren zerbitzari handia.
- ⁴ Herriak askatasunera bultzatzen ditu,
nazioen arteko senidetasun loturak ehotzen ditu.
- ⁵ Guretzat lurralde bat aukeratu du,
maite dituen zintzoak harro daitezen.
- ⁶ Irrintzi artean igo da Jainkoa,
turuta soinuuz Jauna.
- ⁷ Kanta Jainkoari, kanta gure erregeari.
- ⁸ Jainkoa herrien zerbitzari handia da.
Kanta Jainkoarentzat trebeki.
- ⁹ Gure Jainkoak nazio guztiak zuzentzen ditu,
jenderik xumeena zainduz.
- ¹⁰ Munduko herrialde guztiak elkartzen dira
Abrahamen Jainkoaren herriarekin,
eta bera guztien zerbitzari leiala da.

48 (47). Salmoa
Jainkoak bakarrik eman dezakeen kemena

- ² Handi da Jauna, guztiz goresgarri
gure Jainkoaren hirian, bere mendi santuan.
- ³ Muino eder, lur osoaren pozgarri!
Senidetasunaren mendia, gailur zoragarria,
bakearen erregearen hiriburua.
- ⁴ Bertako jauregien artean
gotorleku seguru ageri da Jainkoa.
- ⁵ Bat-batean erregeek elkar hartu zuten,
eta denak batera haren aurka oldartu ziren.
- ⁶ Baina ikustean, izutu egin ziren,
eta ihesi joan ikaraz.
- ⁷ Orduan dardarak hartu zituen,
oinaze larriak, emakumea erdiminetan bezala,
- ⁸ ekialdeko haizeak ur handietako ontziak
puskatu dituenean bezala.
- ⁹ Entzun izan duguna geuk ikusi dugu:
Jaun ahalguztidunaren hirian,
geure Jainkoaren hirian,
sendo ezarri duela Jainkoak betiko!
- ¹⁰ Oi Jainko, zure maitasuna gogoratzen dugu
zure tenpluaren erdian.
- ¹¹ Zure omena bezala zure gorespina ere,
oi Jainko, mundu zabal osora iristen da.
Eskuzabal zera, Jauna, benetan.
- ¹² Senidetasunaren mendia poztu egiten da.
Poz-pozik daude munduko herri guztiak
zure probidentzia dela eta.
- ¹³ Egin senidetasunaren jira-bira,
zenbatu bertako dorreak.
- ¹⁴ Ikusi hango harresiak, ikertu jauregiak,
hurrengo gizaldiari esateko
- ¹⁵ hauxe da gure Jainkoa, gure Jainkoa sekulako,
berak gidatuko gaitu beti.

49 (48).Salmoa
Pertsona aberatsak ez du ulertzen

- ² Entzun hau herri guztiok,
egon adi munduko biztanleok,
³ jende xehe eta handikiok,
aberats eta behartsuok.
- ⁴ Jakinduriazko hitzak esango ditu nire ahoak,
zentzuzko gogoetak isuriko nire bihotzak.
- ⁵ Esaera zaharrak adi entzungo ditut,
zentzu ezkutua azalduko nire zitararekin.
- ⁶ Egun txarretan zergatik izan beldur
inguratzen nauten maltzurren maleziari?
- ⁷ Horiek beren ondasunetan oinarritzen dira,
eta bere aberastasun handiz harrotzen.
- ⁸ Horra, gizakiak ezin du bere burua salbatu,
ezta Jainkoari bere biziaren erospen-saria ordaindu ere.
- ⁹ Garestiegia da biziaren prezioa
noizbait ordaindu ahal izateko.
- ¹⁰ Amaigabe biziko al da, bada?
Ez al du inoiz hilobia ikusiko?
- ¹¹ Jakina da jakintsuak ere hiltzen direla,
zentzugabe eta inozoak bezalaxe desagertzen,
beren ondasunak besterentzat utziz.
- ¹² Hilobia izango dute betiko etxe,
han egongo dira amairik gabe,
lurrei ere beren izenak eman zizkieten arren.
- ¹³ *Gizaki aberatsak ez du ulertzen,
abere mutuen antzeko da.*
- ¹⁴ Hona hemen beren buruaz fio direnen zoria,
asebeterik bizi direnen azkena.
- ¹⁵ Hildakoen egoitzara eramango dituzte ardiak bezala,
herioa izango dute artzain.
Zuzen-zuzenean jaitsiko dira hilobira,
haien arrastoa ezabatu egingo da,
eta Hildakoen Egoitza izango dute bizileku.
- ¹⁶ Baina Jainkoak bizirik askatuko nau ni
Herioaren eskupetik.

- ¹⁷ Ez beldur izan norbait aberasten bada,
bere etxeko ondasunak areagotzen baditu.
- ¹⁸ Hiltzean ez du ezer berekin eramango,
aberastasunak ez dio jarraituko.
- ¹⁹ Bizi zenean hala ederresten zion bere buruari:
“Txaloka ari zaizkit dena ongi joan zaidalako”.
- ²⁰ Bere arbasoen artera joango da,
sekula berriro argirik ikusiko ez dutenengana.
- ²¹ *Gizaki aberatsak ez du ulertzen,
animalia mutuen antzeko da.*

50 (49). Salmoa
Jaunak epaitu egiten du bere herria

- ¹ Jauna, jainkoen Jainkoa mintzo da,
mundu osoari egiten dio batzarrera dei
eguzkiaren sorlekutik sarlekura.
- ² Solidaritatearen tronutik Jainkoa distiraz ari da.
Badator Jainkoa eta ez da isilduko:
- ³ su irenslea aurretik, erauntsi zakarra inguruan,
⁴ goitik dei egiten die zero-lurrei
bere herriarekin daukan auzian lekuko izatera.
- ⁵ “Bildu nire fededunak,
sakrifizioa eskainiz nirekin ituna egin dutenak”.
- ⁶ Iragar beza zeroak Jainkoaren justizia,
Jainkoa bera da epaile.
- ⁷ “Entzun, Israel, ene herri:
zure kontra egingo dudana aitortzen.
- ⁸ Neu naiz Jainkoa, zure Jainkoa.
Ez zaitut salatzen zure sakrifizio eta erre opariengatik.
Aurrean ditut beti.
- ⁹ Baina ez dizut eskatzen zure ukuiluko zekorrik,
ez zeure eskortako akerrik,
- ¹⁰ neureak baititut basoetako piztiak,
eta mendi garaietako animaliak.
- ¹¹ Mendiko hegazti guztiak ezagutzen ditut,
landan bizi den oro neurea dut.
- ¹² Gose banintz ez nizuke zuri eskatuko,
neurea baitut mundua eta bertako guztia.
- ¹³ Zekorren okela jaten dudala uste al duzu?
edota akerren odola edaten?
- ¹⁴ Eskaini gorespina sakrifiziotzat Jainkoari,
bete zeure promesa guztiak Goi-goikoari.
- ¹⁵ Dei egidazu larrialdian,
libratu egingo zaitut eta ohoratu egingo nauzu”.
- ¹⁶ Gaiztoari, berriz, hau diotso Jainkoak:
“Nola aipa ditzakezu nire arauak,
nola ahotan hartu nirekiko ituna,
- ¹⁷ nire zentzarazpenari gorroto badiozu
eta nire hitzei bizkar ematen?
- ¹⁸ Lapurra ikustean, harekin bat egiten duzu,
adulteriogileekin elkartzen zara,
- ¹⁹ gaiztakeriarako arin duzu ahoa,
engainua asmatzeko bizkor mihia.

²⁰ Zure senideaz gaizki esaka diharduzu,
zure amaren alaba belzten.

²¹ Zuk hau egin, eta ni isildu?
Zu bezalakoa naizela uste al duzu?
Ez, salatu egingo zaitut, dena aurpegira botako”.

²² Aditu, beraz, ongi Jainkoaz ahaztuok:
Bestela, haren samurtasunetik aldenduko zarete,
eta haren salbamen indarretik.

²³ “Sakrifiziotzat gorespina eskaintzen didanak,
horrek ematen dit ohore.
Nire bidean tinko irauten duenari
neure salbamina erakutsiko diot”.

51 (50). Salmoa
Nire bekatua beti nire aurrean dago

³ Zenbat irrikatzen dudan, oi Jainko, zure ontasunak,
zure samurtasun neurrigabeak garbitzea nire hobena!

⁴ Garbi nazazula oso-osorik neure errutik,
garbitu neure bekatutik!

⁵ Aitortzen dut, bai, neure hobena,
begi arrear dut etengabe neure bekatua;

⁶ Zure aurka, zure aurka bakarrik egin dut bekatu,
zure borondatearen aurka jokatu.

Horregatik, arrazoi izango duzu salatzean,
errugabe izango zara epaia ematean.

⁷ Hara, errudun jaio nintzen,
bekatari sortu ninduen amak.

⁸ Zuk, ordea, bihotz leiala duzu atsegin,
barru-barruan jakinduria didazu irakasten.

⁹ Kendu nire bekatua
eta ur bizia baino gardenago izango naiz,
garbi nazazu, eta elurra baino zuriago izango.

¹⁰ Senti ditzadala berriro poza eta alaitasuna,
susper dadila zuk jotako gizaki hau.

¹¹ Aldendu begiak nire bekatutik,
suntsitu nire erru guztiak.

¹² Ene Jainko, sortu bihotz garbia niregan,
espiritu berri sendoa nire baitan.

¹³ Ez nazazu bota zure aurretik,
ez utzi niri zure espiritu santurik gabe.

¹⁴ Poz nazazu berriro zure salbamenaz,
sendotu zeure espiritu handi zabalaz.

¹⁵ Zure bideak erakutsiko dizkiet gaiztoei,
eta zuregana bihurtuko dira bekatariak.

¹⁶ Libra nazazu indarkeriatik,
ene Jainko, ene Jainko salbatzailea.

¹⁷ Jauna, nire ezpainak irekitzen badituzu,
pozik ospatuko dute zure salbazioa.

¹⁸ Sakrifizioak ez dituzu atsegin,
erre-oparia eskainiko banizu ez zenuke onartuko.

¹⁹ Sakrifiziorik bikainena, damuz hautsiriko espiritua,
zuk ez duzu gutxiesten, ene Jainko, bihotz hautsi eta umildua.

²⁰ Goza dezala herriak zure ontasunarekin, Jauna,
defenda dezala zure errukiak.

²¹ Orduan onartuko duzu bere maitasunezko oparia,
eta justizia loratuko da bere esku otoizlarietan.

52. Salmoa

Olibondo hostotsuaren antzeko Jainkoaren etxean

- ³ Zergatik harrotzen zara gaiztakeriaz
eta jainkozalearen aurka oilartzen?
- ⁴ Makurkeriak asmatzen diharduzu etengabe;
zure mihia labana zorrotza, makurkeria-zalea.
- ⁵ Maiteago duzu gaizkia ongia baino,
gezurra hizketa jatorra baino.
- ⁶ Hitz galgarri oro duzu maite,
mihi maltzur horrek!
- ⁷ Jainkoaren justizia gabe galbidera zoaz,
biziaren lurretik erauzia izango zara.
- ⁸ Hori ikustean harritu egingo dira zintzoak,
eta barre egingo dute esanez:
- ⁹ "Horra Jainkoa euskarrizat hartu ez zuena,
konfiantza bere aberastasunetan jarri
eta bere makurkerietan oinarritua!"
- ¹⁰ Nik, berriz, Jainkoaren etxean olibondo hezearen antzeko,
haren maitasunean dut konfiantza beti-betiko.
- ¹¹ Beti goretsiko zaitut, ene Jainko, egin duzunarengatik:
beti ospatuko zaitut,
munduko jende guztiarentzat hain ona zarelako.

53 (52). Salmoa
Nire herria irensten dute, ogia bailitzan

- ² Hau dio eroak bere baitan:
“Ez da Jainkorik”.
Ustelduak daude, gauza higuingarriak egiten dituzte,
ez da inor on dagienik.
- ³ Baina Jainkoa gizakiei dago begira maitasunez,
ba ote den zentzu onekorik,
Jainkoa bilatzen saiatzen denik.
- ⁴ Denak okertu dira, bat egin dute galdukerian,
ez da inor on dagienik, bat bera ere ez.
- ⁵ Ez ote dute ikasiko gaiztaginek,
nire herria ogia bezala irensten duten
eta Jainkoaz arduratzen ez diren horiek?
- ⁶ Inoiz aurkituko al dute
Jainkoa justizian agertzen dela!
Mespretxatu egiten dute jende xehearen auzia,
baina Jauna da pobreen babeslekua.
- ⁷ Nork ekarriko du askapena gure lurrera?
Jainkoak ematen digu oparia onartzen dugunean.
Gozatuko du jendeak beren herriaren erdian.

54 (53). Salmoa
Jainkoak defendatzen du nire bizitza

- ³ Jainko, zinez behar dut
zuk babes nazazula zure laguntza eskuzabalaz,
zure botereaz defenda dezazula nire auzia,
- ⁴ entzun dezazula, oi Jainko, nire otoitza,
makur dezazula belarria nire eskarietara!
- ⁵ Arrotzek eraso baitidate,
gogorkeria zaleak ni hil nahian dabilta,
Jainkoaren ardurarik gabe.
- ⁶ Baina nik Jainkoa dut lagun,
Jauna biziaren benetako babes.
- ⁷ Hausnarketa egin eta alda dadila zelatan daukadana,
ireki dezala bihotza Jainkoaren zintzotasunera.
- ⁸ Bihotzez jartzen dut zure eskuetan bizitza,
eskerrak emango dizkizut ona zarelako,
- ⁹ larrialdi guztietatik libratu nauzulako,
gaizkian ez dagoela oparotasunik erakutsi didazulako.

55 (54). Salmoa

Haien kaleetatik inoiz ez dira desagertzen tirania eta engainua

- ² Ene Jainko, makur belarria nire otoitzari,
ez egin entzungor nire erreguari.
- ³ Kasu egidazu eta erantzun.
Urduri nago, kexu batean eta dardaraz,
- ⁴ etsaiaren oihua dela eta,
gaiztoaren begirada zorrotza dela eta,
ezbeharrak botatzen dizkidate gainera,
amorrus erasotzen.
- ⁵ Taupaka dut bihotza bularrean,
herio-larriak hartuta nago.
- ⁶ Beldurra eta ikara jabetu zaizkit,
dardara batean nago.
- ⁷ Neure baitan diot: "Ai uso-hegalak banitu!
Hegan egin eta pausatzeko.
- ⁸ Urrun eta urrun egingo nuke ihes,
basamortuan jarriko bizitzen.
- ⁹ Berehala aurkituko nuke babes,
ekaitzaren haize-burrunbatik".
- ¹⁰ Zure gardentasunak, Jauna, ingura gaitzala,
gogorkeria eta haserrea besterik ez baitut ikusten hirian.
- ¹¹ Gau eta egun, harresietan jiraka,
- ¹² kaleetatik inoiz ez dira urruntzen
tirania eta iruzurra.
- ¹³ Ez nau etsaiak iraintzen,
baizik eta zuk, nire kidekoak,
- ¹⁴ nire adiskide samur eta minak,
zuk nauzu mespretxatzen.
- ¹⁵ Solaskide gozo zintudan,
elkarrekin joaten ginen,
jai giroan Jainkoaren etxera.
- ¹⁶ Birpentsa dezatela, alda daitezela
beren bizitzak gal ez daitezen
eta urrun daitezela inguratzen dituen gaiztakeriatik.

- ¹⁷ Nik Jainkoari egin nion dei,
eta Jaunak salbatzen nau.
- ¹⁸ Arrats, goiz eta eguerdi kexu eta intzirika nengoela,
entzun zuen hark nire ahotsa.
- ¹⁹ Onik ateratzen du nire bizia
deklaratu didaten gerratik.
- ²⁰ Jainkoak entzun diezadala, eta lagun diezaiela aldatzen
eta pozez aurkitzen Jainkoaganako begirunea.
- ²¹ Adiskidearen kontra altxatu dute eskua, ituna hautsiz.
- ²² Gurina baino bigunago dute ahoa,
baina borroka-gose bihotza.
Olio baino leunagoak dituzte hitzak,
baina ezpata zorrotz dira izan.
- ²³ Jar zaitez Jainkoaren eskuetan,
sendo eutsiko dizu, bai, Ongileak.
Ez dio sekula zintzoari erortzen utziko.
- ²⁴ Zuk, oi Jainko, benetan bota duzu
bakearen eta justiziaren aldeko erronka.
Jende odolzale eta traidoreak porrot egingo du,
nik, ordea, zuregan dut konfiantza.

56 (55). Salmoa
Zure zahagian jasotzen dituzu nire malkoak

- ² Jauna, ene Jainkoa, ikusi nola ari zaizkidan segika,
nola erasotzen eta zapaltzen nauten egun osoan.
- ³ Egun osoan segika ditut etsaiak,
ugari dira goitik erasotzen didatenak.
- ⁴ Beldur naizenean,
zuregan dut konfiantza.
- ⁵ *Jainkoaren promesaz nago harro,
Jainkoarengan dut konfiantza, ez naiz ezeren beldur;
zer esango dit gizaki hutsak?*
- ⁶ Egun osoan bihurritzen dituzte nire hitzak,
nire kaltea beste asmorik ez dute.
- ⁷ Ezkurturik daude zelatan,
nondik nora nabilen begira,
niri bizia kentzeko zain.
- ⁸ Ez al dira ohartuko haien gaiztakeriaz?
Zuk, Jauna, herriak askatzen dituzu zure indarraz.
- ⁹ Zuk kontuan hartzen duzu nire bizitza herratua,
eta jasotzen dituzu nire malkoak zahagi batean.
- ¹⁰ Nire etsaiak ez dira gehiago etsai izango
dei egiten dizudan egunean.
Badakit neure alde dudala Jainkoa.
- ¹¹ *Jainkoaren promesaz harro nago,
Jainkoaren agintzariak harro.*
- ¹² *Jainkoarengan dut konfiantza, ez naiz ezeren beldur;
zer egingo dit gizakiak?*
- ¹³ Eman nizun hitzari eutsiko diot, ene Jainko,
eta esker onez beteko,
- ¹⁴ bizia libratu baitidazu heriotzatik, oinak erortzetik,
zure aurrean ibil nadin biziaren argitan.

57 (56). Salmoa
Nire bihotza prest dago

- ² Jauna, Jauna, nor bizi liteke betiko
zure errukiaren babesean!
Zure hegalen itzalpean babesten naiz,
ezbeharra iragan artean.
- ³ Jainkoari degiot dei, Goi-goikoari;
nire alde hainbeste egiten duen Jainkoari.
- ⁴ Zerutik bidaliko dit salbamena,
nahasiko ditu eraso egiten didatenak,
Jainkoak bere maitasun eta leialtasuna bidaliko dizkit.
- ⁵ Lehoien artean natza,
gizakiak irensten dituztenen artean,
horien hortzak lantza eta gezi,
mihia ezpata zorrotz.
- ⁶ *Jauna, jende guztiak aurki dezala zure presentzia,
zure ospeak bete dezala lurra!*
- ⁷ Sarea zapaldu zidaten bidean,
niri lur joarazteko,
zuloa egin zidaten aurrean,
eta beraiek erori ziren bertan.
- ⁸ Nire bihotza prest dago, Jauna, prest dago,
kantatu eta soinua joko dizut.
- ⁹ Esna zaitetz ene bihotza, esnatu harpa eta zitara,
esna dezadan egunsentia!
- ¹⁰ Herrien artean goretsiko zaitut, Jauna,
nazioen artean kantatuko.
- ¹¹ Zure maitasuna zeru zabala baino handiagoa baita,
zure leialtasuna hodeietarainokoa.
- ¹² *Jende guztiak aurki dezala zure presentzia,
Jauna, zure ospeak bete dezala lurra!*

58 (57). Salmoa
Justizia-uretan garbituko ditu oinak

- ² Agintariok, epai zuzenak ematen al dituzue?
Gizakiok, zuzen gobernatzen ote duzue?
- ³ Bai, zera! Bihotz makurrez jokutzen duzue,
zeuen egiteez lurraldean bidegabekeriak zabaltzen.
- ⁴ Gaiztoak sortzetik dira oker,
maltzurak jaiotzetik galduak.
- ⁵ Pozoia dute, sugedorriek bezala,
belarriak ixten dituzten suge gorren antzeko dira.
- ⁶ Liluratzailleen, zoratzailerik trebeenaren
soinua entzuten ez dutenen antzeko.
- ⁷ Jainkoaren laguntzarekin,
deusezta dezazula haien indar suntsitzailea.
Zure laguntzarekin, ene Jainko,
suntsi dezagula haien gehiegikeriazko boterea.
- ⁸ Gal bitez ur isuria bezala,
desegin dadila haien oldarkortasun bortitza.
- ⁹ Desager bitez lingirda darion barea bezala,
ireki daitezela bizimodu zintzo eta anaikorrera!
- ¹⁰ Haien bidegabekeriak herriak sarraskitu baino lehen,
deusezta ditzagula, Jauna, zure hats ahaltsuarekin.
- ¹¹ Aldaketa hauek ikusitakoan, zintzoak poztu egingo dira,
justizia-uretan garbituko dituzte oinak.
- ¹² Jendeak esango du: "Merezi du, bai, zintzo izateak;
bada benetan mundua gobernatzen duen Jainkoa"

59 (58). Salmoa
Jainkoa babes, maitasun, indar eta aterpe

- ² Ene Jainko, libra nazazu etsaiengandik,
gorde seguru erasotzaileengandik.
- ³ Senti zaitzadala nire ondoan,
gaitz eta indarkeria guztitik libratzeko.
- ⁴ Begira, zelatan daude nire kontra,
ahaltsuak azpijokoan ari zaizkit.
- ⁵ Errugabe naizen arren, bizkor datoz erasotzera.
Esnatu, Jauna, zatoz eta ikus.
- ⁶ Zuk, Jauna, unibertsoaren Jainkoa,
herrialde guztien Jainkoa,
zuk defenditzen duzu gehiegikeriak
eta mespretxuak jasaten dituena,
baina uko egiten diozu tranpari eta traizioari.
- ⁷ Hor dabilta arratsero, zakurrak bezala zaunkaka,
hiriaren inguru-minguruan.
- ⁸ Hor dabilta aho zabalik, ezpainetatik
hitz zorrotzak darizkiela, inork
entzuten ez dielakoan.
- ⁹ Baina zuk, Jauna, uko egiten diozu gaiztakeriari.
Kontzientziarik gabeko jendeak pena ematen dizu.
- ¹⁰ Zuregana jo dut, ene indar,
zu baitzaitut gotorleku, ene Jainko.
- ¹¹ Jainko maitalea niregana etorriko da,
eta indarra emango dit bidegabekeria gainditzeko.
- ¹² Buka bedi behingoz hainbeste malezia,
herrian senidetasuna nagusitu dadin.
Zure botereak, Jauna, indartu gaitzala
halako harrokeriatik libratzeko.
- ¹³ Haren aho eta ezpainei engainua darizkie,
porrot egin bezate haien harrokeria suntsitzailean,
botatzen dituzten gezur eta madarikazioetan.
- ¹⁴ Zure garrak bultza gaitzala borroka honetan,
desager dadila betiko bidegabekeria!
Eta jakin bezate zu Jainkoa zarela zure herriaren erdian,
bakearen zerbitzuan mundu guztian.

¹⁵ Hor dabilta arratsero, zakurrak bezala,
zaunkaka, hiriaren inguru-minguruan.

¹⁶ Janaren bila dabilta harat-honat,
asetzen ez badira, ez dira erretiratzen.

¹⁷ Nik, ordea, zure indarra dut kantatuko,
goizean zure maitasuna poz-oihuz ospatuko,
zu izan baitzaitut gordeleku, larrialdian ihesleku.

¹⁸ Zuri kantatuko dizut, ene indar horri,
zu baitzaitut neure gotorleku,
zu neure Jainko leiala neure maitasunezko Jainkoa.

60 (59). Salmoa
Nola irrikatzen dugun zure laguntza!

- ³ Oi Jainko, arbuiatuta, txikituta sentitzen gara,
gurekin haserre egongo bazina bezala,
eta ai nola irrikatzen dugun zure presentzia salbatzailea!
- ⁴ Gure Lurraldea dardaraka dago, zartatuta bezala,
eta pitzadurak konpontzen ez baditugu, hondatu egingo da.
- ⁵ Zure herria gorriak ikusten ari da,
ai nola irrikatzen dugun zure bakea, zure kontsolamendua!
- ⁶ Begirunea dizutenek hurbil aurkitzen zaituzte,
zure indarra antzematen dute ordu txarrean.
- ⁷ Gehiegikeria eta indarkerien aurka lehiatzen dira
zure laguntza salbagarrian babestuta.
- ⁸ Jainko santuak esan du:
“Garaipenak kantatuko ditut, adorea banatuko,
justiziazko metroekin neurtuko dut mundua,
- ⁹ herrialde guztietan nago presente,
herrialde guztietan jarduten dut indarrez,
senidetasuna handitu eta garaile atera dadin.
- ¹⁰ Pertsona txiki eta mesprextatuenen artean
jartzen dut nire oihal etxola,
etorkin eta erbesteratuen artean
haien zerbitzari izango naiz”
- ¹¹ Nork gidatuko nau gotorlekura,
nork eramango justiziazko senidetasunera?
- ¹² Ez ote zara zu izango, inoiz abandonatzen ez gaituzun Jainko,
ahuldadean indarra ematen diguzuna?
- ¹³ Nola irrikatzen dugun zure laguntza, oi Jainko,
giza laguntza alferrik baita.
- ¹⁴ Jainkoarekin gauza handiak egingo ditugu,
Jainkoarekin gaindituko dugu zapalkuntza oro.

61 (60). Salmoa
Bihotza goibeldurik oihu egiten dizut

- ² Entzun, ene Jainko, nire garrasia,
zaude adi nire otoitzari.
- ³ Leize ertzetik dei degizut
bihotz larriz.
- ⁴ Harkaitz gainera eramango nauzu,
zu baitzaitut babesleku,
etsaien kontra dorretxe sendo.
- ⁵ Zure etxean bizi nahi nuke betiko,
zure hegalen aterpean gorderik.
- ⁶ Zuk onartzen dituzu nire promesak,
ematen begirune dizutenentzat daukazun herentzia.
- ⁷ Herriak ikus dezala nola luzatzen diren bere bizitzako egunak,
finkatu eta aurrera egin dezala lur honetan.
- ⁸ Ibil dadila beti Jainkoaren presentzian,
gorde dezatela haren maitasun eta leialtasunak!
- ⁹ Horrela, zure izenean ohorez kantatuko dut etengabe,
eta promesak beteko dizkizut egunero.

62 (61). Salmoa
Jainkoagan bakarrik aurkitzen dut babes

- ² *Jainkoagan bakarrik aurkitzen dut atsedean,
harengandik dator nire salbamena.*
- ³ *Bera bakarrik da nire harkaitz eta salbamen,
nire gotorleku, inola ere ez naiz eroriko.*
- ⁴ Noiz arte oldartu behar duzue gizakiaren kontra,
hau akabatu nahian?
Pareta okertua, hesi koloka zarete guztiok!
- ⁵ Azpikeria beste asmorik ez dute,
gezurra atsegin, hondatzeko,
hitzez bedeinkatu egiten dute
eta barrutik madarikatu.
- ⁶ *Jainkoagan bakarrik aurkitzen dut atsedean,
harengandik dator nire salbamena.*
- ⁷ *Bera bakarrik da nire harkaitz eta salbamen,
nire gotorleku, inoiz ere ez naiz eroriko.*
- ⁸ Jainkoarengan dago nire salbamena eta ohorea,
Jainkoa da nire harkaitz sendo eta babesleku.
- ⁹ Izan bedi harengan konfiantza, haren herri zaretenok,
zabaldu hari zeuen bihotza! Jainkoa dugu babesleku.
- ¹⁰ Haizea eta itxura besterik ez dira gizakiak,
ahaltsuak gezur hutsa;
denak batera pisuan jarrita,
haizea baino arinago izango lirateke.
- ¹¹ Ez izan konfiantzarik zapalkuntzan,
ez jarri usterik lapurretan.
Ondareak ugalduta ere,
ez eman haiei bihotza.
- ¹² Jainkoak esan du,
behin eta berriro entzun diot,
berari dagokiola ahalmena.
- ¹³ Bai, zuri dagokizu, Jauna, leialtasuna,
bakoitzari bere egintzen arabera
ordaintzen diozu.

63 (62). Salmoa
Zure irrikaz dago nire gorputza

- ² Jainko, ene Jainko, lehia biziz nabilkizu bila,
zure egarri da nire barrena,
zure irrika naizen guztia,
lur lehor, agor, urik gabea bezala.
- ³ Beti ondoan ikusten zintudan,
zure indarra eta ospea ikusiz;
- ⁴ Bizia baino ederragoa baita zure maitasuna,
horregatik nire ahoak ospatuko zaitu.
- ⁵ Bizitza guztian bedeinkatuko zaitut,
zuri dei eginez altxatuko ditut eskuak.
- ⁶ Jakirik gozoenez bezala aseko naiz,
eta nire ezpainez poz-oihuka goretsiko zaituzte.
- ⁷ Gaez ohean zuregan dut gogoa,
zuri otoitzean igarotzen ditut orduak.
- ⁸ Zu izan zaitut laguntzaile;
kantuz ariko naiz pozik zure hegalean itzalean.
- ⁹ Zuri itsatsia nago oso-osorik,
eta zure eskuinak eusten dit niri.
- ¹⁰ Nire hondamen bila dabiltzanak, ordea,
porrot egingo dute.
- ¹¹ Hausnar bezate, bizimodua aldatu,
gaitzak irentsi ez dezan haien bizitza.
- ¹² Bere herria Jainkoarekin poztuko da,
haren izenagatik zin egiten duena harro izango da;
gezurtiei, berriz, ahoa itxiko die.

64 (63). Salmoa
Ezpata baten antzera zorrozten dute mihia

- ² Entzun Jainko, nire kexa,
zaindu nire bizia etsai beldurgarriengandik.
- ³ Gorde nazazu makurren azpilanetik,
elkar hartu duten gaizkileengandik.
- ⁴ Ezpata bezain zorrotza dute mihia,
geziak bailiran botatzen hitz pozoitsuak,
⁵ ezkututik jaurtitzen diote errugabeari,
bat batean eta ezeren beldurrik gabe.
- ⁶ Gaitz egiteko elkar berotzen dute,
tranpa ezkutuak nola jarriko dabilta,
esanez: "Nor konturatuko da?"
- ⁷ Gaiztakeriak asmatu eta asmaketa
bihotzaren sekretuetan ezkututzen dute.
- ⁸ Baina zu, oi Jainko,
gugan mobilizatzen zara, gugan gaitzaren kontra,
haien oinek lauskitu ez gaitzaten,
⁹ gaitzak hondamena jo dezan
eta jendeak poza aurki dezan justizian.
- ¹⁰ Jende guztiak ikasi eta eskertzen du,
Jainkoaren egintzak iragartzen dituzte,
hark eginak hausnartzen.
- ¹¹ Jende zintzoa Jaunarekin poztuko da
eta harengan bilatuko du babesu,
alaitu egingo dira zuzenak.

65 (64). Salmoa
Zuk merezi duzu zure herriaren gorespena

- ² Oi Jainko, zuri zor zaizu zure herriaren gorespena,
zuri bete behar promesak,
- ³ otoitzak entzuten dituzun horri.
Zugana datoz gizakiak oro.
- ⁴ Ezin konta ahala dira gure erruak,
baina zuk barkatu egiten dizkiguzu hobenak.
- ⁵ Zorionekoa zuk aukeratu eta gonbidatzen duzuna
zure santutegian bizitzera.
Ase gaitezela zure etxeko ondasunez,
zure etxeko dohain santuz eta adiskidetasunez.
- ⁶ Salbaziozko egintza harrigarritz erantzuten diguzu,
Jainko gure salbatzaile horrek,
munduko bazter guztien,
urrutieneko itsasoen itxarobide horrek.
- ⁷ Zuk ezarri dituzu mendiak tinko zeure indarrez,
ahalmenez zaude jantzia.
- ⁸ Zuk baretzen duzu itsas olatuen burrunba,
zuk baretzen herrien zalaparta.
- ⁹ Mundu-bazterretako biztanleak
harri eta zur daude zure mirarien aurrean;
bai sortaldeari bai sartaldeari pozez oihu eragiten diezu.
- ¹⁰ Zuk zaintzen duzu lurra,
urez ase eta oparo aberasten.
Jainkoaren erreka gainezka doa urez.
- ¹¹ Zuk ematen diozu gizakiari garia, zuk prestatzen lurra,
ildoak ureztatu, zokorrak berdindu,
euri-zaparradaz harrotu, ernamuinak bedeinkatu.
- ¹² Urtea ondasunez mukurutzen duzu,
zure lautadak joritasunez janzten.
- ¹³ Heze eta jori daude landa zabalak,
pozez apaindurik mendi-muinoak.
- ¹⁴ Zelaiak artaldez jantzi dira,
ibarrak gariz estali,
denek irrintzi eta kantu.

66 (65). Salmoa
Bai direla miresgarriak zure egintzak, Jauna

- ¹ Egin irrintzi Jainkoari lurtar guztiok.
- ² Kanta haren omenez,
eman ohore hari gorespenez.
- ³ Esan Jainkoari: “Zu bai izugarria zure egintzetan!
zure indar handiaren aurrean makurtu egiten dira etsaiak.
- ⁴ Mundu osoa ahuspezten da zure aurrean,
kantu degizute, abestiz zaituzte ospatzen.
- ⁵ Zatozte, ikus Jainkoak eginak,
izugarriak gizakientzat haren ekintzak.
- ⁶ Itsasoa lehor bihurtu zuen, oinez igaro ziren bertatik.
Poz gaitezen, beraz, Jainkoarekin.
- ⁷ Nagusi da betidanik bere ahalmenaz,
erne ditu begiak herrien gain,
errebeldak aurka altxa ez dakizkion.
- ⁸ Bedeinka herriok, gure Jainkoa,
oihukatu goraki haren gorespena.
- ⁹ Bizirik eutsi baitzigun
eta gure oinei erortzen utzi ez.
- ¹⁰ Probatu gaituzu, bai, gure Jainko horrek,
zilarra bezala garbitu.
- ¹¹ Estutasun larrian jarri,
zama astuna bizkarrera bota,
- ¹² zamariak bagina bezala, zapal gaitzaten utzi;
suari eta urei aurre egin izan behar diegu,
baina azkenik eman diguzu arnasa.
- ¹³ Zure etxean sartuko naiz erre-oparirako,
eta horrela beteko dizut promesa,
- ¹⁴ larrialdian neure ahoz hitz emana.
- ¹⁵ Eskaintza oparoak eskainiko dizkizut,
senidetasunaren usain gozozko intsentsua,
maitasuna eta justizia oparituko dizkizut.
- ¹⁶ Jainkoari begirune diozuenok, zatozte eta entzun:
hark nire alde egina kontatuko dizuet.
- ¹⁷ Nire ahoak hari dei egin orduko,
prest zegoen nire mihian gorazarrea.
- ¹⁸ Asmo okerrak izan banitu,
Jaunak ez zidakeen entzungo.
- ¹⁹ Baina Jainkoak entzun egin zidan,
nire otoitz-oihua aditu.
- ²⁰ Bedeinkatua Jainkoa! Ez du baztertu nire otoitza,
ezta aldendu ere niregandik bere maitasuna.

67 (66). Salmoa
Lurrak eman du bere uzta

- ² Erruki gutaz, oi Jainko, bedeinka gaitzazu,
erakutsi guri zure aurpegi argia,
- ³ ezagut dezan munduak zure nagusitza,
herri guztiek zure garaipena.
- ⁴ *Goraipa zaitzatela herriek, oi Jainko,*
goraipa zaitzatela herri guztiek.
- ⁵ Kanta bezate nazioek pozaren pozez,
herriak justiziaz gobernatzen baitituzu,
nazioak munduan zuk gidatzen.
- ⁶ *Goraipa zaitzatela herriek, oi Jainko,*
goraipa zaitzatela herri guztiek.
- ⁷ Lurrak eman du uzta,
bedeinka gaitzala gure Jainkoak.
- ⁸ Bedeinka gaitzala Jainkoak
izan biezaio begirune mundu osoak.

68 (67). Salmoa
Askatasun usoak eta alaitasun lumak

- ² Jainkoa jaiki eta sakabanatu egiten da gaitza.
Bidegabekeria desagertu egiten da haren aurretik.
- ³ Kea desegiten den bezala desegiten da,
nola urtzen argizaria sutan.
- ⁴ Zintzoak, berriz, pozik dira,
Jainkoaren aurrean dantzan, bozkarioz gainezka.
- ⁵ Kanta Jainkoari, jo soinua haren omenez,
presta bidea jende apalaren artean dabilenari;
goza Jaunarekin, haren aurrean poz-oihuka.
- ⁶ Umezurtzen aita-ama,
alargunen defendatzailea da Jainkoa,
bere bizileku santuan.
- ⁷ Baztertuei etxea ematen die Jaunak,
preso zeudenak kanta artean askatzen,
erbeldeak bakarrik gelditzen dira basamortuan.
- ⁸ Oi Jainko, zure herriaren gidari atera zinenean,
basamortuan zehar zindoazela,
- ⁹ dardara egin zuen lurrak,
urtu egin zen Jainkoaren aurrean zerua,
herri guztiak sendotzen dituen Jainkoren aurrean.
- ¹⁰ Euria ugari bota zenuen, oi Jainko,
zure lurralde eta jabegoa indarberritu.
- ¹¹ Hantxe kokatu zen zure herria,
behartsuen ardura duzu, oi Jainko, zure ontasunean.
- ¹² Jaunak iragarpen egin du,
ugaria da mezularien taldea.
- ¹³ Ihes doaz, ihesi doaz ahaltzuak,
lurraldeko larreak harrapakin gisa banatuak dira
zure artegian atsedenean zaudetelarik:
- ¹⁴ askatasun usoak,
alaitasun lumak.
- ¹⁵ Jainkoak herriak adiskidetzen dituen bitartean,
errugabetasun elurra erortzen da lurraren gainean.
- ¹⁶ Basango mendi, mendi gorena,
gailur garaidun Basango mendia.
- ¹⁷ Zergatik zaudete gailur garaiok,
inbidiaz begira Jainkoak bizitzeko aukera duen mendiari,
Jaunak betiko bizileku egin duenari?

- ¹⁸ Milaka dira maitasunen langileak,
Jauna presente egiten dute mundu guztian.
- ¹⁹ Jainko, goratu egiten duzu jende xumea,
justizia maite duten pertsonak sorrarazten dituzu,
eta haiengan adierazten duzu zure maitasuna.
- ²⁰ Bedeinkatua egunero Jainkoa!
Bere gain hartu gaitu geure Jainko salbatzaileak.
- ²¹ Jainko salbatzaile dugu Jainkoa,
Jainko Jaunari esker libratu gara heriotzatik.
- ²² Jainkoa guztien zerbitzura dago,
pasioz egiten dio aurre gaitzari.
- ²³ Jaunak dio: "Umilaziotik aterako ditut,
hegoaldeko herrialde pobreetatik ekarriko,
²⁴ senidetasun uretan txukatzeko oinak,
inoiz justizia baztertu gabe".
- ²⁵ Hor ageri da, ene Jainko, zure gorteiua,
nire Jainko eta Erregearen gorteiua santutegirantz:
- ²⁶ Kantariak aurrean, musikariak atzean,
neskatxak tartean panderoa joz.
- ²⁷ Taldeka bedeinkatzen dute Jainkoa;
Jauna da, herri guztien oinarria!
- ²⁸ Aurretik jende xumeena doa, jende solidarioa ilaratan,
bakearen eta justiziaren aldeko borrokalariak.
- ²⁹ Dasta dezagula, oi Jainko, zure indarra,
munduan erakusten duzuna,
- ³⁰ jendeak jo beza zure tenplura,
bake eskaintzekin zure presentzian.
- ³¹ Buka dezagula bidegabekeriarekin zure ahalmenez,
buka dadila zapalkuntza oro.
Ez diezaio gula esku eman aberastasunen distirari,
eta bazter dezagula indarkeria oro.
- ³² Alda dezala boteretsuen bihotza
eta jar daitezela behartsuen zerbitzura.
- ³³ Munduko erresumak, kanta Jainkoari,
jo soinua Jaunari,
- ³⁴ betidanik xumeenengana makurtu
eta bertatik bere ahotsa entzunarazten duenari.

³⁵ Onartu Jainkoaren boterea,
bere maiestateak dizdiz egiten du herrialde guztietan,
gutxituen alde jartzen du bere indarra.

³⁶ Jainkoa xumetasunean errebelatzen da,
bakearen eta justiziaren Jainkoa,
herrialde guztiei indarra eta ilusioa ematen dizkiena.
Bedeinkatua Jainkoa!

69 (68). Salmoa
Alferrik espero dut errukia

- ² Ene Jainko, ene Jainko, zure salbamena...
nola irrikatzen dudan salbamena,
leporaino baititut urak!
- ³ Istinga sakonean murgiltzen ari naiz
eta oinak non tinkaturik ez;
ur handitan nago sartua
eta korronteak narama.
- ⁴ Akitua nago deiadarka, errea daukat eztarria,
lausoturik begiak ene Jainkoaren zain eta zain.
- ⁵ Buruko ileak baino gehiago dira
arrazoirik gabe gorroto didatenak,
nire tximak baino ugariago
nire erasotzaileak, nire etsai gezurtiak.
Lapurtu ez dudana itzuli behar ote dut?
- ⁶ Ene Jainko, ezagutzen duzu nire zakarkeria,
ez daude zuretzat ezkutuan nire hutsegiteak.
- ⁷ Jauna, Jaun ahalguztiduna,
ez biezaie nire erruz usteak huts egin,
zuregan konfiantza dutenei,
ez nadila lotsabide gerta zuregana jotzen dutenentzat.
- ⁸ Zuregatik jasan ditut irainak,
zuregatik estali dit lotsak aurpegia.
- ⁹ Arrotz gertatua naiz neure senideentzat,
ezezagun neure amaren seme-alabentzat.
- ¹⁰ Zure etxearen maiteminak erretzen nau,
zure kontrako irainak datozkit gainera.
- ¹¹ Barau eginez penatzen banaiz
iraina besterik ez dut jasotzen.
- ¹² Dolu-jantzia hartzen badut
irri-lelo bihurtzen naiz.
- ¹³ Plazan eserita, marmarka ari zaizkit,
mozkorrek koplak ateratzen dizkidate.
- ¹⁴ Jauna, zuri degizut otoitz:
Jauna, egidazu orain mesede.
Erantzun zure maitasun handiaz,
zure egiazko salbamenaz.

- ¹⁵ Atera nazazu lokatzetik,
ez nadila murgil;
libra nazazu gorroto didatenengandik
eta ur handietatik.
- ¹⁶ Ez nazala ur korronteak eraman,
ez nazala zurrunbiloak irentsi
ez nadila putzuan itxita geldi.
- ¹⁷ Erantzun, Jauna, zure maitasun zoragarriaz,
bihur niregana begiak zeure erruki handiaz.
- ¹⁸ Goza dezadala zure presentziaren bakeaz!
Larri naiz, askotxo berandutzen ari zait zure laguntza!
- ¹⁹ Irrika biziaz sentitu nahi zaitut nire ondoan,
etsaien eskutik libre sentitzeko.
- ²⁰ Badakizu nola iraintzen nauten,
nola desohoretu eta lotsarazten,
ongi ezagunak dituzu nire etsaiak.
- ²¹ Irainek bihotza urratu didate,
guztiz adorerik gabe nago.
Ezbeharrean laguntza espero nuen, baina alferrik;
kontsolatzaileak, baina ez ditut aurkitu.
- ²² Janaritan pozoia jarri didate,
egarriarentzat ozpina edaten eman.
- ²³ Hautsi daitezela preso dauzkaten loturak,
kontura daitezela zein den inguratzen dituen gaitza.
- ²⁴ Ireki bekizkie begiak, ikus dezaten,
indartsu izan daitezela, baina onerako.
- ²⁵ Zure maitasunak ingura ditzala indarrez,
zure minak harrapa ditzala!
- ²⁶ Aurki dezatela komunitarioaren atsegina,
eta ikas dezatela senidetasunean bizitzen.
- ²⁷ Ez dezatela jazarri atsekabetuta dabilena,
ez ditzatela zauritu errugabeak.
- ²⁸ Senti dezatela barkamenaren premia,
zure salbamenera iristeko,
- ²⁹ biziaren liburuan azaltzeko
eta jende zintzo artean baztertuak ez izateko.
- ³⁰ Ni, berriz, gizagaixo atsekabetu hau,
indarberri nazala, oi Jainko, zure salbazioak.
- ³¹ Orduan, Jainkoaren izena kantuz goretsiko dut,
esker onez handietsiko.
- ³² Atseginago izango zaio Jaunari zezena baino,
adardun eta azkazaldun zekorra baino.

³³ Jende apalak ikusi du eta poztu egiten da;
izan bihotz Jainkoarengana jotzen duzenok,
³⁴ entzuten baitie Jaunak bere behartsuei,
ez ditu baztertzen berari atxikiak daudenak.

³⁵ Gorets bezate zeru-lur eta itsasoek
eta bertan bizi diren guztiek.

³⁶ Jainkoak bere herria salbatuko baitu,
berreraikiko herrixka, herri eta hiriak.
Beraietan biziko dira eta haien jabe izango.

³⁷ Jainkoaren zerbitzarien ondorengoak izango dira oinordeko,
hura maite dutenak biziko bertan.

70 (69). Salmoa
Nola berandutzen zaren, Jauna!

² Jauna, nola irrikatzen dudan zure salbamena,
irrikatzen dudan zure laguntza!

³ Lotsa gorritan gera bitez denak batera,
ni hil nahian dabiltzanak.
Atzera egin bezate barregarri,
zoritxarra opa didatenek.

⁴ Lotsaz nahasturik geldi bitez
burla egiten didatenak.

⁵ Poz eta alai bitez zurekin,
zuregana jotzen dutenak.
Handia da Jauna esan dezala etengabe
zure salbamena nahi duenak.

⁶ Behartsu eta dohakabea naiz,
baina Jauna da nitaz arduratzen.
Zu zara nire laguntzaile eta askatzaile,
ene Jainko ez luza!

71 (70). Salmoa
Etengabe itxarongo dut

- ¹ Jauna, zuregan dut babesu,
ez diezadala inoiz usteak huts egin.
- ² Zuzena baitzara, libra nazazu, askatu;
makur belarria eta salba nazazu.
- ³ Izan zakizkit harkaitz babesle,
agindua duzu noizbait etorriko zarela ni salbatzera;
bai, zu zara nire haitz eta gotorleku.
- ⁴ Senti dezadala nola askatzen nauzun gaiztoaren eskutik,
bidegabeko eta gogorkeria zaleen ukabiletik.
- ⁵ Jainko Jauna, zu zaitut itxaropen,
zu gaztetatik neure segurtasun.
- ⁶ Zu izan zaitut euskarri amaren sabeletik,
zuk atera nauzu amaren erraietatik.
Zuri etengabe nire gorespenu.
- ⁷ Mirari bat bezala gertatu nintzen askorentzat,
zu zintudan neure babesleku seguru.
- ⁸ Zure gorespenez eta ekintza ospetsuez
betea nuen ahoa egun osoan.
- ⁹ Ez ni baztertu zahartu naizen honetan,
ez eskutik utzi indarrak ahuldu zaizkidanean.
- ¹⁰ Etsaiak begira ditut,
nire zelatan daudenek elkar hartu dute.
- ¹¹ Hau diote: "Jainkoak bertan behera utzia du;
segi atzetik, harrapatu, ez du inor izango libratzeko"
- ¹² Baina zu, Jainko, ez zara gelditu niregandik urrun,
ene Jainko, zatoz laster laguntzera!
- ¹³ Gal bitez lotsagarri nire salatzaileak!
Irainak eta desohoreak estal bitza
nire zoritxarraren bila dabilzanak.
- ¹⁴ Nik, berriz, itxaroten jarraituko dut,
gero eta areago zu goretsiko.
- ¹⁵ Nire ezpainen egun osoan emango dute
zure salbamen-asmu eta egintzen berri.
- ¹⁶ Zure tenplu bikainean sartuko naiz, Jainko Jauna,
leiala zu bakarrik zarela iragarriko.

- ¹⁷ Ene Jainko, gaztetatik irakatsi didazu,
eta zure egintza miragarriak
iragartzen ari izan naiz gaur arte.
- ¹⁸ Orain, zahar eta ile zuri naizenean,
ez nazazu bertan behera utzi, ene Jainko,
zure indarra elkarteari iragar diezaiodan,
zure tenplura datorkeen edonori.
- ¹⁹ Zure salbamen asmoa, oi Jainko, zerurainokoa da,
gauza handiak egin baitituzu.
Nor zure adinakorik, oi Jainko?
- ²⁰ Hamaika larrialdi eta zoritxar pasarazi didazu.
Baina berriro biziareziko nauzu,
Herio-Leize sakonetik altxatuko.
- ²¹ Lehen baino izen handiagoa emango didazu,
berriro kontsolatuko.
- ²² Orduan harpa soinu z goretziko zaitut,
ene Jainko, leiala zarelako.
Zitaraz kantatuko dizut,
oi herri guztien Jainko.
- ²³ Poz-oihuz ospatuko zaitu nire ahoak,
zuk salbatu duzun nire izate osoak.
- ²⁴ Nire mihiak zure salbamen-asmoa
iragarriko du egun osoan,
lotsaz eta minez gelditu baitira
nire zoritxarraren bila zebiltzanak.

72 (71). Salmoa
Justizia loratuko da haren egunetan

- ¹ Ene Jainko, emaiozu zure zuzentasuna erregeari,
zeure justizia erregearen semeari.
- ² Goberna beza zure herria justiziaz,
dohakabeak zuzenbidez.
- ³ Ekar bezate mendi eta muinoek herriarentzat
justiziazko bakea.
- ⁴ Egin biezaie justizia herriko dohakabeei,
salba bitza behartsuak, apurtu zapaltzaileak.
- ⁵ Iraun beza eguzkia eta ilargia direino,
munduaren azken arte.
- ⁶ Jaits bedi euria belardira bezala,
lurra asetzen duen lanbroa bezala.
- ⁷ Haren egunetan lora bedi justizia,
ugaldu bakea eta ongizatea ilargia itzali arte!
- ⁸ Izan bedi zerbitzari itsasotik itsasora,
ibaiaren alde batetik bestera.
- ⁹ Justiziaren etsaiek porrot egingo dute haren aurrean,
gogorrek ez dute zereginik izango.
- ¹⁰ Herri guztiek esker onez onartuko dituzte,
eta kantatuko haren omenez.
- ¹¹ Boteretsuek ezagutuko dute,
nazio guztiek irrikatuko dute justizia.
- ¹² Berak libratuko du laguntza eske ari den behartsua,
nork defendaturik ez duen dohakabea.
- ¹³ Gupida izango die gizagaixo eta pobreei,
bizia salbatuko behartsuei.
- ¹⁴ Berak babestuko ditu gogorkeria eta bidegabekeriak.
Balio handia izango du haien biziak berarentzat.
- ¹⁵ Bizi bedi luzaro, ekar biezazkiote balio handiko opariak,
bedeinka bezate egunero.
- ¹⁶ Gari ugari izango da lurraldean,
mendi gainetan kulunka.
Sor beza fruitua Libanok bezala,
zelaiko belarra bezain ugari.
- ¹⁷ Iraun beza haren izenak betiko,
eguzkiak adina!
Bedeinkatuak bitez harengan ondorengoak,
zoriontsu nazio guztiak.

- ¹⁸ Bedeinkatu Jauna, herri guztien Jainkoa,
mirarigile bakarra.
- ¹⁹ Bedeinkatua betiko haren izen ospetsua!
Haren aintzak bete beza lur osoa!
Amen! Amen!

73 (72). Salmoa
Jainkoaren misterioan sartzen

- 1** Bai ona dela Jainkoa herri guztiekin, bihotz garbiko gizon-emakumeekin.
- 2** Baina ozta-ozta ez dut nik estropezu egin, ia-ia erori nintzen.
- 3** Izan ere, gaiztoen arrakasta ikusirik harroputz horien inbidiaz nengoen.
- 4** Ez dute inongo problemarik, osasuntsu eta ongi aseak daude.
- 5** Ez dute giza nekerik, ez besteez bezala oinazeak eraman beharrik.
- 6** Harrokeria dute lepoko, bidegabekeria soineko.
- 7** Begiak dirdira egiten die gantz artetik, barruko gutizia kanporatuz.
- 8** Iseka ari dira eta zitalkeriak esaten,
- 9** goitik behera begira, jendea nola larrutuko hitz egiten. Haien ahoak zeruari erronka, haien mihia lur osoan barrena.
- 10** Horregatik, nire herria haiengana bihurtzen da, haien hitz guztiak ura bezala irentsiz.
- 11** Hau diote: "Nola jakin Jainkoak? Ba al du ohartzerik Goi-goikoak"?
- 12** Horra hor gaiztoak lasai asko beti, ondasunak pilatzen.

- 13 Beraz, alferrik gorde dut bihotza garbi
eta errugabe naizela agertzeko eskuak garbitu,
- 14 egunero oinazeak eraman behar baditut eta goizero
zigorra jasan.
- 15 Baina haiiek bezala jardutea erabakiko banu, zure jatorriaz
arnegatu egingo nuke.
- 16 Saiatu nintzen ulertzen begi aurreko arazo hori.
- 17 Jainkoaren misterioan sartu nintzen arte.
Orduan ulertu nuen zein den haien atarramendua.
- 18 Irristalekuan jarriak dituzu eta
hondamendira amiltzen.
- 19 Haienak egin du,
ikaragarritzko azkenaz.
- 20 Esnatutakoan ametsa bezala,
gutxietsi egingo dituzu, Jauna, mamuen erreinuan.
- 21 Bihozmindurik nengoen, barrua gogorturik, eta hala,
inozo eta ezjakin nintzen,
- 22 abere baten pareko, zure begietan.
- 23 Baina ni zurekin izango naiz beti, eskua
hartua naukazu,
- 24 zeure aholkuz nauzu gidatuko,
eta, azkenik, ospez zeureganatuko.
- 25 Ez zaitut, bada, zu zeruan?
Ez dut beste pozik lurrean!
- 26 Gorputz eta espirituz, indargaltzen ari banaiz ere, zu zara nire
adorearen euskarri, oi Jainko,
zu nire betiko ondasun.

- 27 Zugandik urruntzen direnak galdu egiten dira,
baina zuk arbuiatzen zaituena maitatzen jarraitzen duzu.
- 28 Nire zoriona, berriz, Jainkoaren ondoan egotea da, Jainko
Jaunarengan babestea,
eta haren egintza guztiak ospatzea.

74 (73) Salmoa
Negar eginarazten duten hondakinak

- 1** Oi Jainko, zergatik ematen du baztertu gaituzula betiko?
Zergatik zaude haserre-sutan zure herriko
ardien kontra?
- 2** Oroit zaitez betidanik zeuretzat hartu zenuen komunitateaz! zeuk askatu
zenuen ondareaz,
zure bizileku egin duzun jende baztertuaz.
- 3** Jaso zeure herria azkenik gabeko hondakin hauetatik: etsaiak erraustu
du zure herri xehea
- 4** Zure etsaiek zure elkartearen erdian orroak egin zituzten, beren banderak
ehunka ekarri.
- 5** Baso itsuan aizkoran ari den egurgina ziruditen,
- 6** aizkora eta mailuz bota zituzten zur landu guztiak.
- 7** Zuk hain maite duzunari su eman zioten, zure egoitza
santua bota eta profanatu.
- 8** Hau zuten helburu, erabat erraustea arraza eta
herrialdeko batzar santu guztiak.
- 9** Ez dugu ikusten jadanik zure presentziaren ezaugarririk,
ez dago profetarik, eta inork ez dakigu noiz arte.
- 10** Noiz arte ari behar du, oi Jainko, etsaiak irainka?
Amaigabe mespretxatu behar ote du zure izena?
- 11** Zergatik ezkutatzen duzu zeure indarra?
Zergatik zaude besoak tolestaturik?
- 12** Zu zara, oi Jainko, zu betidanik nire salbatzaile, zuk lortu
zenuen lurrean garaipena.
- 13** Zuk gorroto diozu menperatze orori,
dei egiten diguzu zapalkuntzaren aurka.
- 14** Zuk suntsitzen duzu boteretsuen harrokeria, eta txikitzen
haien asmoak.

- 15 Zuk sortarazi dituzu iturri eta errekek,
zuk agorrazazi inoiz lehortu gabeko ibaiak.
- 16 Zureak dira gau-egunak, zuk eratuak
eguzki-ilargiak.
- 17 Zuk ezarri dituzu munduaren mugak, zuk
moldatu uda-neguak.
- 18 Gogoan har, Jauna, etsaiak irain egiten dizu, herri
burugabeak zure izenari mespretxu.
- 19 Ez eman piztiei zeure usapala,
ez ahaztu betiko zure dohakabeen bizia.
- 20 Gogora ezazu zeure ituna,
beteak herrialdeko bazterrak gogorkeriaz.
- 21 Ez bedi zapaldu desohoraturik gera,
gorets bezate zure izena dohakabe eta behartsuek.
- 22 Jaiki zaituz Jainko hori, defenda zure auzia!
Har gogoan burugabeon etengabeko irainak.
- 23 Senidetasunaren etsaiak ez dira garaile aterako,
munduko iruzurtiek porrot egingo dute haien ahaleginetan.

**75 (74). Salmoa Jainkoa da
gobernatzen duena**

- 2 Eskerrak zuri, Jainko, eskerrak zuri hain hurbil
zaitugun horri!
Zeruak zure egintza miragarriak ditu iragartzen.
- 3 “Neuk erabakiko dudan unean zuzenbidez
epaituko dut mundua.
- 4 Nahiz eta lurrak bizilagun guztiekin ikara egin. nik dauzkat
tinko haren zutoinak.”
- 5 Hau diotset handiputzei: “Ez harrotu!” eta gaiztoei:
“Ez ibili indarrak erakusten!
- 6 Ez altxa hain gora kopeta,
ez hitz egin harro-harro lepoa luzatuz”.
- 7 Ez ekialdetik, ez mendebaldetik, ez
basamortutik ere ez dago epaia.
- 8 Jainkoa da gobernatzen duena, harroak eraisten
ditu, apalak goratzen.
- 9 Eskuan du Jaunak kopa,
maitasunaren eta justiziaren ardoz betea. Bertatik
edango dute ase arte,
herri guztiek edango dute.
- 10 Ni betiko poztuko naiz,
herri guztien Jainkoaren omenez kantari.
- 11 “Gaiztoen indarra hautsiko dut, zintzoen indarra,
berriz, areago egingo”

76 (75). Salmoa
Zu, Jauna, indartsua zara, eta mardula

- 2 Jainkoa mundu guztian agertu da, handia da
haren izena herri guztietan;
- 3 Bakearen hirian dauka bere oihal etxola,
senidetasunaren mendian bere egoitza.
- 4 Han hautsi ditu geziaren ziztua,
babeskia, ezpata, gerra.
- 5 Distiratsua zu, handi-ederra, antzinako
mendiak baino areago.
- 6 Azken loak hartu ditu gudari adoretuak, besoak
mugitzeko ere ez dira gauza.
- 7 Zure indarrez herrien Jainko, zurrun utzi dituzu
gurdi eta zaldiak.
- 8 Zu, Jauna, indartsua eta mardula zara:
nork iraun zutik zure bakezko indarraren aurrean?
- 9 Historiaren bihotzetik ematen duzu epaia, lurra
beldurrez mutu gelditzen da,
- 10 zu, oi Jainko, epaia ematera jaikitzean, munduko
dohakabeak salbatzera.
- 11 Gizakirik amorratuena ere goretsi beharko zaitu, zuk askatutako
herriak izango dira gure koroa.
- 12 Egin promesak Jaunari, zure Jainkoari, eta bete,
herri guztiek aldarrika dezatela Jainkoaren salbamena:
- 13 handikiak arnasarik gabe uzten
eta lureko boteretsuak eraisten dituen.

77 (76). Salmoa
Jainkoak haserre itxi ote ditu bere erraiak?

- ² Goraki degiot Jainkoari deiadar,
goraki deiadar, entzun diezadan.
- ³ Neure larrialdian Jaunarengana jotzen dut,
gauetz aspertu gabe besoak luzatzen,
pozbide orori uko eginez.
- ⁴ Jainkoaz oroiturik, intziri dagit,
hartaz pentsatzean, adorea galtzen dut.
- ⁵ Ez didazu uzten, Jauna, begiak biltzen,
nahasturik nago, ez dakit zer esan.
- ⁶ Aspaldiko garaiz gogoratzen naiz,
antzinako urteez oroitzen.
- ⁷ Gauetz kantu leloa datorkit gogora,
barrutik hausnarrean eta neurekiko galdezka ari naizela:
- ⁸ Jaunak betiko baztertuko ote gaitu?,
ez ote digu sekula berriz mesede egingo?
- ⁹ Amaitu ote erabat haren maitasuna?,
bukatu ote betiko haren agintzaria?
- ¹⁰ Jainkoa ahaztu ote da bere gupidaz?,
haserrez bihotza itxi ote du?
- ¹¹ Eta neurekiko diot: "Hauxe nire gaitza,
Goi-goikoaren jokabidea aldatu egin dela".
- ¹² Gogoan ditut, Jauna, zure egintza handiak,
gogoan, bai zure aspaldiko mirariak.
- ¹³ Zuk egindako guztiak buruan darabiltzat,
zure egintza handiak hausnartzen ditut.
- ¹⁴ Santua da, oi Jauna, zure jarduera!,
zein Jainko zu bezain handi?
- ¹⁵ Zu zara mirariak egin dituen Jainko bakarra,
zuk erakutsi diezu herriei zure indarra.
- ¹⁶ Zeure indarrez askatu zenuen herria,
hain maite zenituen seme-alabak.

- ¹⁷ Itsasoak zu ikusi orduko, oi Jainko,
itsasoak ikusi orduko dardara egin zuen,
itsas leizeak ikara.
- ¹⁸ Hodeiek euri-jasak bota zituzten,
lainoek trumoia jo, zure geziak han-hemen bristadaka.
- ¹⁹ Zure trumoi-burrunbak zeruan jotzean
oinaztargiek mundua argitu zuten,
lur barrenak ikara eta dardara egin.
- ²⁰ Itsasoan zehar igaro zinen, ur handien artetik oinez,
baina inork zure aztarnarik aurkitu ezin.
- ²¹ Artaldea bezala eraman zenuen zeure herria,
ongi zerbitzatzen zigunaren eskutik.

78 (77). Salmoa
Jainkoagan jar dezaten esperantza

- ¹ Entzun, ene herri, nire irakaspena,
makur belarria nire esanetara.
- ² Alegia bidez mintzatuko naiz,
Lehengo garaien ikasbideak aldatuz.
- ³ Guk entzun eta jakindakoak,
gurasoek kontatu ziguten.
- ⁴ Jaunaren egintza goresgarriak
haren garaipena eta egin dituen mirariak.
- ⁵ Ez dizkiegu ezkutatuko gure hurrei, baizik
eta datorren belaunaldiari kontatuko.
- ⁶ Xedapenak eskaini zizkion Jakobena herriari,
legea eman Israeli;
hauek beren hurrei irakasteko
agindu zien gurasoei,
hurrengo gizaldiek, geroko hurrek, jakin zitzaten.
- ⁷ Horrela, Jainkoarengan jarriko zuten konfiantza,
haien egintza handiak ahantzi gabe,
haren aginduak beteko zituzten.
- ⁸ Ez ziren izango beren gurasoen antzeko:
jende ez-esaneko eta errebeldea, gizaldi bihotz-arina, Jainkorekiko
barru desleialekoa.
- ⁹ Efrainen leinuko arkulariek, ongi armaturik egon arren,
bizkarra erakutsi zuten guda-egunean.
- ¹⁰ Jainkoaren ituna ez zuten gorde,
ez zioten haren legeari jarraitu nahi izan.
- ¹¹ Ahaztu egin zituzten haren egintza handiak,
hark erakutsi zizkien mirariak.
- ¹² Mirariak eginak zituen haien gurasoen begi aurrean,
Egipton, Tanisko lurraldean.
- ¹³ Itsasoa erdibi egin zuen haiek pasatzeko,
horma bat bezala, urei tinko eutsiz.
- ¹⁴ Lainoaz gidatu zituen egunez,
su argiz gauez.
- ¹⁵ Basamortuan harkaitza zulatu zuen
harpeko uretatik edanarazteko.
- ¹⁶ Harkaitzetik ur lasterrak atera zituen,
ura ibaika isurarazi.

- ¹⁷ Baina haiek Jainkoaren kontra bekatuan jarraitu zuten,
basamortuan Goi-goikoaren aurka altxatu ziren.
- ¹⁸ Jainkoa probatu nahi izan zuten:
- ¹⁹ “Gauza ote da Jainkoa guri basamortuan otordua emateko?”
- ²⁰ Egia, harkaitza jo eta ibaika isuri du ura;
baina gauza ote da ogia emateko,
bere herriari okela eskaintzeko?”
- ²¹ Hori entzutean, Jauna biziki harritu zen,
pasioa piztu zitzaion Jakobean alde,
erraiak zirraratu zitzaizkion Israelen aurrean.
- ²² Sinetsi ez zutelako beren Jainkoarengan,
ez zirelako fio haren salbamen asmoaz.
- ²³ Goi lainoei agindua eman eta
zeruko ateak ireki zituen;
- ²⁴ mana isuri zien janari,
zeruko garia eman.
- ²⁵ Aingeruen ogia jan zuten gizakiek,
Jainkoak janariz ase zituen.
- ²⁶ Gero, eguzki haizea aterarazi zuen zerutik,
eta hego haizea bere gordelekutik.
- ²⁷ Okela isuri zien hautsa bezain ugari,
hegaztiak itsas hondarra bezain oparo.
- ²⁸ Kanpalekura bertara erorarazi,
oihal etxolen ingurura.
- ²⁹ Asebetean jan zuten,
eman zien Jainkoak irrika zutena.
- ³⁰ Baina beren irrika ase orduko,
artean janaria hagin artean zutela,
- ³¹ herriak Jainkoaren mesedeak ahantzi zituen,
indartsuenek ere kale egin zuten
eta Israeleko lorea zimeldu egin zen.
- ³² Bekatuan jarraitu zuten,
mirariak eta guzti ez zuten Jainkoarengan sinetsi.
- ³³ Lurrina bezala itzali zen haien bizia,
amets irudipena bezain arin.
- ³⁴ Baina Jainkoak haiek akabatzea erabakitzen zuen orduko,
harengana jotzen zuten,
damutu eta hura bilatzen saiatzen ziren.
- ³⁵ Jainkoa zutela beren harkaitza oroitzuz, Goi-
goiko Jainkoa zutela beren askatzailea;
- ³⁶ Baina ahoan zurikeria besterik ez zuten,
mihiaz engainatu besterik ez zuten egiten.

- ³⁷ Ez zeuden bihotzez hari atxikiak, ez
zioten haren itunari fede ematen.
- ³⁸ Jainkoak, hala ere, bihozbera izaki eta,
errua barkatzen zien, eta suntsitzen ez.
- ³⁹ Oroitzen baitzen gizaki huts zirela,
airean galtzen den arnasa baino ez.
- ⁴⁰ Mila aldiz altxatu zitzaizkion kontra basamortuan,
zenbat aldiz atsekabetu zuten bakarlekuan.
- ⁴¹ Behin eta berriro zuten Jainkoa probatzen,
herriaren babeslea ahantzita.
- ⁴² Ez zuten gogoratzen haren eskuak egina,
etsairengandik askatu zituenera,
- ⁴³ nolako mirariak egin zituen Egipton,
nolako egintza harrigarriak Tanisko lurraldean.
- ⁴⁴ Hango ibai-errekak odol bihurtu ziren,
eta egiptoarrek bertatik edan ezin.
- ⁴⁵ Ezpat-euliak bidali zituen haiek irensteko,
igelak dena hondatzeko.
- ⁴⁶ Haien uztak matxinsaltoi eman zizkien,
lanaren fruituak larrapote,
- ⁴⁷ haien mahastiak kazkabarrak suntsitu zituen,
pikondoak izotzaz.
- ⁴⁸ Haien abelgorriak harriaz galdu zituen,
artaldeak tximistaz.
- ⁴⁹ Gainera hustu zien bere haserre sua,
bere sumin, amorru eta suntsipena,
zoritar-mandatari taldea,
- ⁵⁰ bere haserreari bidea irekitzeko.
Ez zituen heriotzatik gorde,
haien bizia izurriaren menpe utzi zuen.
- ⁵¹ Egiptoko lehen seme guztiak jo zituen, Camen etxoletan,
egiptoarren gizontasunaren lehen fruituak.
- ⁵² Orduan, artzainak ardiak bezala aterarazi zuen bere herria,
artaldea bailiran eraman basamortuan zehar.
- ⁵³ Seguru gidatu zituen, beldurrik gabe, haien
etsaiak, berriz, itsasoak estali zituen.
- ⁵⁴ Bere lurralde santura eraman zituen,
berak eskuratutako mendiraino,
zuzenbidea eta justizia nagusitzen direneraino.
- ⁵⁵ Beste herriak bota egin zituen haiek iristean, eta
Jainkoaren samurraren maite, gozatu zuten
eta beste herrien artean jarri zituzten oihal dendak.

- ⁵⁶ Haiek, ostera, Goi-goiko Jainkoa probatu zuten,
haren kontra altxatuz; haren xedapenak ez zituzten gorde.
- ⁵⁷ Alde batera utzi zuten eta traizio egin,
gurasoek bezala, uztai txarrak bezala huts egin.
- ⁵⁸ Muinoetako sasi kultuekin sumindu egin zuten,
beraien sasi-jainkoekin jeloskor jarri.
- ⁵⁹ Jainkoak entzun egin zien, irauli zitzaizkion erraiak
eta erruki izan zion bere herriari.
- ⁶⁰ Jaunaren tenplua abandonatu zuten,
jende artean bizitoki zeukan oihal etxola.
- ⁶¹ Onenak gatibu eraman zituzten,
zapaltzailearen esku haien distira.
- ⁶² Ezpataz hil zuten herria,
hondamenean gelditu zen Jaunaren ondarea.
- ⁶³ Suak irentsi zituen gazteak,
ez zen eztei kanturik izan neskatxentzat.
- ⁶⁴ Apaizak ezpataz erori ziren,
eta alargunek hiletarik jo ez.
- ⁶⁵ Jainkoa, ordea, zintzoa izan zitzaion bere herriari,
adore emanaz seme-alabei.
- ⁶⁶ Indartu egin zituen bidegabekeriaren borrokan,
ausart egin bakearen aldeko apustuan.
- ⁶⁷ Jainkoak herriaren erdian hartu zuen jarleku,
boteretsuekin solidarizatu gabe.
- ⁶⁸ Apalenekin egon nahi izan zuen,
berak hain maite zuen jende xehearekin.
- ⁶⁹ Baztertuen artean jarri zuen oihal etxola,
oinarri sendo nahi izan zuen haientzat.
- ⁷⁰ Ahulenak aukeratu zituen,
baztertuen artegitik bildu zituen.
- ⁷¹ Morrontzatik askatu zituen,
bere herria askatasunera bideratzeko.
- ⁷² Bihotz zintzoz zaindu zituen,
esku trebez eraman.

79 (78). Salmoa
Zure samurtasuna irits bedi laster gugana

- ¹ Ene Jainko, jentil herriak zure ondarean sartu dira,
zure tenplu santua profanatu dute
eta Bakearen Hiria hondakin pila bihurtu.
- ² Zure zerbitzarien gorpuak
zeruko hegaztiei eman dizkiete janari,
jende baztertuaren haragia bazapiztiei.
- ³ Haien odola palastaka isuri dute
errefuxiatuen landetan,
eta lur emateko inor ez.
- ⁴ Auzoko herrien iseka-gai bihurtu gara,
ingurukoen burla eta barregarri.
- ⁵ Noiz arte, Jauna?
Amaigabekoa ote zure haserrea?
Noiz arte zure maitasun mindua
sua bezala, gure aurka pizturik?
- ⁶ Hustu zure sumina ezagutzen ez zaituzten nazioen gain,
zuri dei egiten ez dizuten erresumen gain.
- ⁷ Jende dohakabearen herria irentsi baitute,
haren bizimodua hondatu.
- ⁸ Ez leporatu guri aurrekoen erruak.
Betor laster gureganaino zure samurtasuna,
lur jota baikaude erabat.
- ⁹ Lagundu, gure Jainko salbatzaile horrek,
zure izenaren ohoreagatik,
zure barkamen eskuzabala irrikatzen dugu,
barkatu gure bekatuak.
- ¹⁰ Zergatik esan behar du bihotzik gabeko jendeak:
"Non dute Jainkoa"?
- Erakutsiezaiezu gure begien aurrean,
nola lehenesten dituzun herririk ahulenak.
- ¹¹ Irits bedi zureganaino presoen intzeria,
libra zure indar handiaz heriotzara kondenatuak.
- ¹² Eman auzoko herriei zazpi halakoz
zure bihotz berritze maitasuna,
zuri egindako irain eta isekagatik.
- ¹³ Eta guk, zure herriak, zuk zainduriko artaldeak,
eskerrak emango dizkizugu beti,
zure gorespena kantatuko mendez mende.

80 (79). Salmoa

Nola irrikatzen dugun, oi Jainko, zure leheneratzea!

² Entzun gure herriaren artzain,
zure herria artaldea bezala daramazun horrek,
zure seme-alaben bizitza zainduz.

³ Aurki zaitzagula gure artean,
zure salbamen indarrari esker.

⁴ *Oi Jainko, eraberi gaitzazu,
erakutsi guri aurpegi argia, salba gaitezen!*

⁵ Jauna, indarkeriarik ezaren Jainkoa,
noiz arte pairatuko ditu zure herriak
gehiegikeriak eta mespretxuak?

⁶ Negarra eman diguzu janari,
malkoak erruz edari.

⁷ Auzokoen hizpide egin gaituzu,
etsaiak burlaka ari zaizkigu.

⁸ *Oi, Jainko ahalguztiduna, eraberi gaitzazu,
erakutsi guri aurpegi alaia, salba gaitezen!*

⁹ Egiptotik mahatsondo bat atera zenuen,
eta maitasunez landatu beste herrietan.

¹⁰ Sustraiak bota zituen eta lurraldea bete.

¹¹ Bere itzalaz estali zituen mendiak,
bere aihenez zedrорik garaienak.

¹² Itsasoraino luzatu zituen adarrak,
ibai handiraino muskilak.

¹³ Zergatik zulatu diozu inguruko hesia?
Bidaztiak fruitua lapurtzen diote,

¹⁴ basurdeek triskatzen, basapiztiak murrizten.

¹⁵ Oi, indarkeriarik ezaren Jainko,
zu herri zapalduaren alde zaude.

¹⁶ Kontsolagarri zaigu zuk mahatsondo hau
zaintzen duzula jakitea.

¹⁷ Su eman zioten, zaborra balitz bezala:
zure presentziak hunki dezala hori egiten duena.

¹⁸ Jende ahulenak goza dezala zure babesarekin.

¹⁹ Ez gara zuregandik inoiz aldenduko,
bizia emango diguzu, eta guk zuri dei egingo.

²⁰ *Oi Jauna, Jainko ahalguztiduna, eraberi gaitzazu,
erakutsi guri aurpegi argia, salba gaitezen!*

81 (80). Salmoa
Irin lorez elikatuko nukeen nire herria

- ² Egin poz-oihu Jainkoari, gure indarrari,
egin irrintzi herri guztien Jainkoari.
- ³ Ekin soinuari, jo danbolina,
zitara gozoa eta harpa.
- ⁴ Jo turuta ilargi berrian,
eta ilargi beteko gure jaiegunean!
- ⁵ Horixe da Israelen legea,
gure Jainkoak erabakia,
- ⁶ bere seme-alabei ezarritako araua
herria zapalkuntzatik atera zenean.
- ⁷ Mintzo ezezaguna entzuten dut:
“Bizkarretik zama kendu nizun
zure besoak lan astunetatik askatu;
- ⁸ Zapaldurik zeundela deiadar egin zenidan
eta libratu zintudan.
Ekaitzaren artetik erantzun nizun,
Meribako iturrian probatu ninduzun arren.
- ⁹ Entzun, ene herri, ohar degizut!
Behingoz entzungo al didazu!
- ¹⁰ Ez izan zeure baitan beste jainkorik,
ez dezazula adora jainko arrotzik.
- ¹¹ Neu naiz Jauna, zure Jainkoa,
zapalkuntzaren lurraldetik atera zintuena.
Ez duzu ahoa zabaldu besterik eta aseko zaitut.
- ¹² Baina nire herriak ez zidan kasurik egin,
nire seme-alabek ez zuten nirekin ezer nahi.
- ¹³ Beren bihotz setatiaren arabera jokatu zuten,
beren apeten arabera ibili ziren.
- ¹⁴ Ai neure herriak entzungo balit,
ai, nire bidetik balebil!
- ¹⁵ Indartsu egingo nuke arazoan aurrean,
nekaezin zapalkuntza ororen aurka.
- ¹⁶ Jauna gorrotatzen dutenek onartuko lukete
eta haien zoriak sendotasuna izango luke.
- ¹⁷ Neure herria garirik onenaz janarituko nuke,
eztirik gozoenaz aseko.

82 (81). Salmoa
Justizia egingo die pertsona xume eta pobreei

- ¹ Jainkoa zerutar izakien batzarrean jaiki da,
herri-agintarien aurka epaia emateko.
- ² Noiz arte eman behar dituzu bidegabeko epaiak,
errudunen alde jarriz?
- ³ Defendatu gizagaixo eta umezurtzak,
egin justizia dohakabe eta behartsuei.
- ⁴ Askatu gizagaixo eta behartsuak,
libratu gaizkileen eskutik?
- ⁵ Baina haiei ez zaie buruan sartzen
ez dute ulertu nahi, ilunpetan dabilta,
lurraren oinarriak koloka dira.
- ⁶ Hona nik esan: "Denok jainko,
Goi-goikoaren seme-alabak zareten arren,
- ⁷ gizaki bezala hilko zarete,
edozein handiki bezala eroriko".
- ⁸ Altxa, Jainkoa, eta goberna mundua,
zu baitzara herri guztien euskarri.

83 (82). Salmoa
Porrot egin dezatela haien asmoek

- ² Jainko, zu inoiz ez zaude isilik,
inoiz ez geldi eta mutu, hori badirudi ere.
- ³ Horra zure etsaiak asalaturik,
gorroto dizutenak burua jasorik.
- ⁴ Zure herriaren aurka egitasmo maltzurak dituzte,
zuk babestuen kontra elkar hartu dute.
- ⁵ Hau diote: "Ea, suntsi ditzagun herri gisa!
Ez bedi gehiago aipa bere izenik".
- ⁶ Denek azpikerian bat egin dute, zure kontra hitzartu:
⁷ bakearen eta senidetasunaren etsaiak,
gehiegikeria eta indarkeriaren lagunak,
⁸ tranpak eta faltsukeriak asmatzen dituztenak,
ebaste eta faltsukeriaren konplizeak,
⁹ herriaren sufrimenduari jaramonik egiten ez diotenak,
beti ere beraiei komeni zaienaren bila.
- ¹⁰ Porrot egin dezatela beren asmoetan,
honda daitezela beren bidegabekeriazko gazteluak;
- ¹¹ Beraien aginte eta botere ametsak
simaurra bezala lurrean barreiatuta gera daitezela.
- ¹² Beraien buruzagiek gal dezatela sinesgarritasuna,
agerian gera daitezela "buka dezagun Jainkoaren pobreekin"
- ¹³ esaten zutenen tranpa eta gezurak.
- ¹⁴ Ene Jainko, eraman itzazu zurrunbiloan hautsa bezala,
haize-boladak lastoa bezala.
- ¹⁵ Basoa erretzen duen suaren antzera,
mendiak kiskaltzen dituen sugarraren antzera.
- ¹⁶ Horrela ingura ditzala zure maitasunaren indarrak,
justiziaren urakanak irabaz ditzala senidetasunerako.
- ¹⁷ Lotsa daitezela egin duten gaizkiaz,
eta deitu diezaiotela zure izenari.
- ¹⁸ Lotsatuta eta damututa gera daitezela,
galduta eta nahasturik.
- ¹⁹ Jakin bezate zu, zu bakarrik zarela Jauna,
zu bakarrik lur guztiaren jaun zerbitzari ahaltzua.

84 (83). Salmoa

Nire gogo eta gorputza poztu egiten dira Jainko biziagatik

- ² Bai maitagarriak zure egoitzak,
Jaun ahalguztiduna!
- ³ Urtzen daukat barrena,
zure tenpluko atarien irrikaz.
Bihotza eta naizen guztia poz-oihuz ari zait,
oi Jainko bizia.
- ⁴ Txolarreak badu etxea,
bai enarak ere kumeentzat habia:
zure aldareen ondoan, unibertsoaren Jainkoa,
ene errege eta ene Jainko!
- ⁵ Zorionekoak zure etxean bizi direnak,
etengabe zu goresten.
- ⁶ Zorionekoak zuregan dutenak beren indarra
bideari berriz ekiteko asmotan daudenak.
- ⁷ Ibar lehorra igarotzean, iturburutik edaten dute,
lehen euriek ur begiz baitute estaltzen.
- ⁸ Gainez gain doaz
eta Jainkoa agertu egiten zaie bere etxean.
- ⁹ Jauna, unibertsoaren Jainkoa,
zuk entzuten duzu nire otoitza,
zuk entzuten didazu, herri guztien Jainko!
- ¹⁰ Oi Jainko, gure babeskia, gure defendatzailea,
bere herriaren bizia zaintzen duena.
- ¹¹ Hobe da egun bat zure atarietan,
mila egun beste edonon baino,
hobe nire Jainkoaren etxeko ataria zapaltzea
gaiztoen oihal dendan bizitzea baino.
- ¹² Bai, Jainko Jauna dugu eguzki eta babeski,
Jaunak egiten digu mesede eta ohore,
hark ez die zoriona ukatzen
prestu jokatzeko dutenei.
- ¹³ Oi, unibertsoaren Jauna,
zorionekoa zuregan konfiantza duena!

85 (84). Salmoa
Jauna, onbera izan zara zure lurrarekin

- ² Jauna, onbera izan zara zure herrialdearekin,
aldatu egin duzu zure seme-alaben zoria;
- ³ Barkatu egin dituzu zeure herriaren erruak,
estali bekatu guztiak,
- ⁴ zure maitasunez inguratu duzu,
indartu zure arnasarekin.
- ⁵ Nola irrikatzen dugun zure lehengoratzea!
zein berandu datorkigun zure faborea gozatzea!
- ⁶ Jendearekin haserretzea ez da zure estiloa,
ezta zure herriaren gaitzen aurrean indiferente izatea.
- ⁷ Jauna, zugandik arnasa eta bizia espero ditugu,
zure herriak zurekin goza dezan.
- ⁸ Jauna, Jauna, zure maitasunari esker
herriak arnasa har dezala zure salbamenarekin.
- ⁹ Jainko Jaunak dioena entzungo dut.
Bai, etorkizuna agintzen die herrialde guztiei,
bihozberritu eta uste ona dutenei.
- ¹⁰ Gertu dago begirune diotenak salbatzeko,
haren ospea lurraldean kokatuko da
- ¹¹ Maitasunak eta leialtasunak topo egiten dute,
justiziak eta bakeak elkar besarkatzen.
- ¹² Leialtasuna lurretik ernetzen da,
justizia zerutik jaisten.
- ¹³ Jaunak berak emango du oparotasuna,
gure lurrak uzta ekarriko.
- ¹⁴ Jaunaren aurretik joango da justizia,
haren urratsei jarraituko ongizateak.

86 (85). Salmoa
Handia da zuk didazun maitasuna

- ¹ Makurtu belarria, Jauna, erantzun,
dohakabe eta behartsu bainaiz.
- ² Zuk babesten eta salbatzen nauzula jakiteak pozten nau!
Maite zaitut, Jauna, zuk sortua naiz,
zuga dut uste on. Zu zara nire Jainkoa.
- ³ Zure presentzian bihotz minez nago!
Egun osoa nire bihotza zuri adi dago.
- ⁴ Zuk animatzen duzu zure sorkariaren bizitza,
zugatik intzirika bainago.
- ⁵ Ona zara zu, Jauna, eta barkabera,
dei egiten dizutenentzat onginahiz betea.
- ⁶ Zuk makurtzen duzu belarria nire otoitzera,
kasu egiten diozu nire erregu oihuari.
- ⁷ Larrialdian dei degizut,
zuk erantzun egiten baitidazu.
- ⁸ Jauna, ez dago zu bezalako jainkorik,
zure egintzak paregabeak dira.
- ⁹ Herri guztiak, zuk eginak, adoratzera etorriko zaizkizu,
zuri, Jauna, ohore ematera.
- ¹⁰ Handia baitzara, mirarigilea,
zu bakarrik Jainkoa.
- ¹¹ Erakustazu, Jauna, zure bidea,
zurekiko leial joka dezadan.
Batu nire bihotza barnean,
zureganako begirunean bizi nadin.
- ¹² Eskerrak bihotzez, Jauna,
beti-beti ospatuko zaitut,
- ¹³ handia baita niretzat duzun maitasuna,
Herio-Leize sakonetik libratu nauzu.
- ¹⁴ Oi Jainko, harroputzek eraso didate,
gogorkeria zaleak ni hil nahian dabilta,
zure ardurarik gabe.
- ¹⁵ Baina zu bihozbera eta errukiorra zara,
haserregaitza, onginahiz eta leialtasunez betea.
- ¹⁶ Zure maitezko begiradak ingura nazala,
zure indarrak sendotu nazala
eta salbatu zure jarraitzaile honen alaba.

¹⁷ Zuk bakarrik, Jauna, eman diezadakezu
zure ontasunaren ezaugarria;
lotsaturik gera daitezen nire etsaiak,
zuk kontsolatzen eta laguntzen nauzula ikustean.

87 (86). Salmoa
Nire iturri guztiak zugan daude

- ¹ Jainkoagan beragan oinarritua,
² Jaunak maiteago du pobreen hiria
ahaltsuen bizitoki guztiak baino.
- ³ Harrigarriak esaten dira zutaz,
Jainkoaren herri apal horretaz.
- ⁴ Munduko boteretsuak sartzen ditut
ezagutzen nauen jende artean.
Herririk berezienak eta barreatuenak
han jaiok dira.
- ⁵ Jainkoaren herri apalaz esan behar da:
“Den-denak han sortuak dira”.
Goi-goikoak berak eutsi dio.
- ⁶ Hona Jaunak herrien zerrendan idatzitakoa:
“Hauek guztiak han jaiotakoak dira”.
- ⁷ Esker dantzan egiaz kantatuko dute:
“Nire iturri guztiak zugan daude”.

88 (87). Salmoa
Ilunpea da nire lagunartea

- ² Jauna, ene Jainko salbatzailea,
gau eta egun laguntza eske deiadar degizut;
- ³ Oinazean intzirika naukazu,
eten gabe zure bila ari naiz goibelaldian.
- ⁴ Zoritzarrez josia nago,
Herio Leize ertzean nire bizia.
- ⁵ Zulora doazenekin bat egina naukate,
hain nago indargabetua.
- ⁶ Herioaren esku utzia nago,
erail eta hilobian sartuak bezala;
itxuraz ez naukazu gogoan,
zurekiko lokarriak moztuak baitituzte.
- ⁷ Zulo sakonera jaurti naute,
barren-barreneko ilunpetara.
- ⁸ Zama astuna daukat gainean,
atsekabe itsasoan murgildurik.
- ⁹ Ezagunak urrundu egin zaizkit,
haientzat higuigarri bihurtu nauzu,
Preso nago, irtenbiderik gabe.
- ¹⁰ Atsekabearen atsekabez begiak akiturik dauzkat.
- Egun osoan zuri deika nago, Jauna,
eskuak zuregana luzaturik.
- ¹¹ Hildakoen alde egingo ote duzu miraririk?
Itzalak jaikiko ote dira zuri eskerrak emateko?
- ¹² Iragartzen ote da hilobian zure maitasuna,
hondamendi leizean zure leialtasuna?
- ¹³ Ezagutzen ote dira zure mirariak ilunpetan,
zure justizia ahanzturaren lurrean?
- ¹⁴ Baina nik deiadar degizut laguntza eske,
zuregana doa nire otoitza goiz-goizetik.
- ¹⁵ Zergatik sentitzen naiz arbuiatuko baninduzu bezala,
aurpegia gordeko bazenit bezala?
- ¹⁶ Haurtzarotik dohakabe eta gaixo,
zure izu-ikararen zamapean lehertua nauzu.
Ezin dut gehiago.
- ¹⁷ Zure sumina gainetik igaro zait,
zure ikara larriak galdu nau.

- ¹⁸ Uholdeak bezala murgildua naukate egun osoan,
alde guztietatik inguratua.
- ¹⁹ Adiskide eta lagunak urrundu egin dizkidazu,
ilunpeak ditut lagunarte bakar.

89 (88). Salmoa
Jaunaren maitasuna eta leialtasuna

- ² Jauna, beti kantatuko ditut zure maitasun egintzak,
gizaldiz gizaldi iragarriko leial zarela.
- ³ Bai, ziur nago: zure maitasunak eratu zuen zerua,
zerua bezain tinko ezarria da zure leialtasuna.
- ⁴ Neure aukeratuarekin ituna egin nuen,
nire zerbitzariarekin zin eginez.
- ⁵ Tinko ezarriko dut betiko zure errege-jatorria,
sendo sekulako zure tronua.
- ⁶ Zeruetan zure agintzari miragarria goستن dute, Jauna,
santuen batzarrean zure leialtasuna.
- ⁷ Nor han goian Jaunaren pareko?
Nor jainkoen artean Jauna bezalako?
- ⁸ Maitagarri da Jainkoa herriaren kontseiluan,
handi eta ikaragarri inguruko guztientzat.
- ⁹ Jauna, Jainko ahalguztiduna, nor zu bezalakorik?
Ahaltsu zara, leialtasunez jantzia.
- ¹⁰ Zuk menderatzen duzu itsaso arranditsua,
zuk baretzen dituzu uhin harrotuak.
- ¹¹ Zapalkuntza orori aurre egiten diozu,
zuk desegiten duzu beso indartsuaz bidegabekeria.
- ¹² Zeurea duzu zerua, zeurea lurra,
Zuk ezarri zenuen sendo mundua eta bertako guztia.
- ¹³ Zuk egin zenituen Iparra eta Hegoa,
mendiek poz-oihu dagite zure aurrean.
- ¹⁴ Indartsua da zure ezkerra, garailea zure eskuina.
- ¹⁵ Justizia eta zuzenbidea zure erregetzaren oinarri,
maitasuna eta leialtasuna doaz zure aurretik.
- ¹⁶ Zoriontsua zu goستن dakien herria,
zure argitan dabilena.
- ¹⁷ Zure aurrean alaitzen da egunero,
zure justizia du bozkario.
- ¹⁸ Bai, zu zaitugu ospe eta indar,
zure onginahiak egiten gaitu garaile.
- ¹⁹ Bai, Jauna da gure babeski,
herriaren Santua gure indar.

- ²⁰ Behinola, ikuskari bidez mintzatuz,
zeure fededunei esan zenien:
“Gerlariaren ordeaz mutikoa jarri dut errege,
gudarostearen gainetik gaztea jaso.
- ²¹ Pertsona zerbitzariak aurkitzen nituenean,
neure olio santuz sagaratzen nituen.
- ²² Nire eskuak sendo eutsiko die,
nire besoak indartsu egingo.
- ²³ Etsaiak ez ditu engainatuko,
ez gizatxarrak makurtuko.
- ²⁴ Etsaiek ez dituzte desegingo,
gorroto dietenak ez dituzte zaurituko.
- ²⁵ Nire leialtasuna eta maitasuna berekin izango dituzte,
nire laguntzak zerbitzari egingo ditu.
- ²⁶ Nire maitasuna zabalduko du
lurraren mutur batetik besteraino.
- ²⁷ Dei egingo didate: Ene Aita, ene Ama,
ene Jainko, harkaitz salbatzailea.
- ²⁸ Eta nik neure bedeinkapena emango diet,
lurreko herri guztien ardura.
- ²⁹ Betiko maitasuna gordeko diet,
haiekin dudan itunari sendo eutsiko.
- ³⁰ Betiko ezarriko dut haien errege-jatorria,
zerua bezain iraunkor egingo haien oroitzapena.
- ³¹ Haien seme-alabek nire irakaspena bazterrera uzten badute,
nire arauen arabera bizi ez badira.
- ³² Nire arauak profanatzeko badituzte,
nire aginduak betetzen ez badituzte,
- ³³ porrot egingo dute beren okerkeriarengatik,
beren erruak izango dira haien zigorkadak.
- ³⁴ Baina ez diet kenduko nire maitasuna,
leialtasunean ez dut huts egingo.
- ³⁵ Ez dut urratuko neure ituna,
ezta jango ere eman nuen hitza.
- ³⁶ Behin betiko egin dut zin neure santutasunagatik,
eta ez natzaio desleial izango onartzen dudan herriari.
- ³⁷ Haren jatorriak betiko iraungo du,
haien tronua eguzkiak adina,
- ³⁸ zeruko lekuko hutsezina bezala ezarriko
betiko dirauen ilargiak adina”.

- ³⁹ Orain orde, zeure sagaratuarekin haserreturik,
zorigaitzak hartu du zure herria.
- ⁴⁰ Zeure zerbitzariarekin zenuen ituna ukatuko bazenu bezala,
haren duintasuna lurrean barreiatuta.
- ⁴¹ Haren harresi guztiak zulatu,
gotorlekuak hondatu balituzte bezala.
- ⁴² Handik igarotzen direnek lapurreta degiote,
auzoko guztiek iseka.
- ⁴³ Haren etsaiei indarra bizkortu diezu,
eta garaipena eman.
- ⁴⁴ Hari, berriz, ezpata ahoa kamustu zaio,
eta haren erresistentziak lur jo du.
- ⁴⁵ Galdu da haren distira,
haren duintasunak lur jo du.
- ⁴⁶ Laburtu dira haien gaztaroko urteak,
eta lotsa gorritz estali.
- ⁴⁷ Noiz arte, Jauna, noiz arte?
Noiz sentituko dugu zure presentzia,
zure askatzearen indarra?
- ⁴⁸ Badakizu, Jauna, bizitzak dirauena,
zein huts egin dituzun gizakiak.
- ⁴⁹ Nor biziko da heriotzarik ikusi gabe?,
zuk bakarrik askatuko gaituzu leizearen hatzaparretatik.
- ⁵⁰ A zer-nolako itxaropena ematen digun zure maitasun egintzak,
hitz eginez hitzeman zenion leialtasunak.
- ⁵¹ Gogoan hartu, Jauna, zure herri iraindua,
haiengandik jasan behar ditudan hainbat eztenkada.
- ⁵² justiziaren etsaien mespretxua
biktimen negarrari egindako iraina.
- ⁵³ Bedeinkatua Jauna beti!
Amen! Amen!

90 (89). Salmoa
Nork balioets lezake zure maitasunaren indarra!

- ¹ Jauna, zu izan zaitugu babesleku
gizaldiz gizaldi.
- ² Mendiak jaio baino lehen,
lurra eta mundua sortu baino lehen,
Jainko zara zu betidanik eta betiko.
- ³ Gizakia hauts bihur dezakezu esanez:
“Itzul lehenera, gizakiok!”
- ⁴ Mila urte zuretzat
atzo iragan zen egunaren pareko, gau-
ordu baten pareko.
- ⁵ Lotan murgiltzen dituzu
goizaldean belarra bezala ermetzen dira eta loratzen,
⁶ arratsaldean, berriz, zimeldu eta ihartzen,
⁷ zure maitasuna gabe,
akitu egiten gara, hil, zure ardura gabe.
- ⁸ Gure erruek ikara bizian jotzen gaituzte,
ilundu egiten dute zure presentziaren argia.
- ⁹ Zure eskuetatik urruti erortzen dira gure egunak,
hasperen batean amaitzen gure urteak.
- ¹⁰ Gure bizitza hirurogeita hamar urte,
onenean ere laurogei, indartsuenek,
gure bizi-leia neke eta atsekabe huts,
bizitza arin doa, hegan goaz.
- ¹¹ Nork ezagutzen du zure maitasunaren indarra,
nork esker dezake zure ontasunaren neurrigabetasuna?
- ¹² Gure egunak baloratzen irakatsi diguzulako
bizi gaitezke zentzuz.
- ¹³ Noiz arte, Jauna, zugandik urruti?
Nola behar dugun zure askapena!
- ¹⁴ Ase gaitzazu goizero zure maitasunez,
bizitza guztia poz-oihuz zorionean igaro dezagun.
- ¹⁵ Emaguzu zoriona orain arteko egun estuen ordezt,
ikusit ditugun urte gorrien ordezt.
- ¹⁶ Zure sorkariok ikus dezagula zure ekintza
eta zure seme-alabok zure nagusitza.
- ¹⁷ Guregana bedi Jaunaren gozoa!,
burutu bitza ongi zure eginbeharrak.

91 (90). Salmoa
Ene Jainko, zutaz fidatzen naiz

- ¹ Goi-goikoaren aterpean bizi zaren horrek,
gaua ahaltsuaren itzalpean ematen duzun horrek,
² esan Jaunari: "Oi Jauna, zu ene babesleku eta gaztelu,
ene Jainko, zuregan dut uste on".
- ³ Berak libratuko zaitu ehiztariaren saretik,
eta izuri galgarritik;
⁴ Bere hegalean emango dizu gerizpe
haren lumapean izango duzu babesleku,
bere leialtasunarekin gorde eta zainduko zaitu.
- ⁵ Ez diozu beldurrik izango gauaren izuari,
ez egunez jauzitako geziari;
⁶ ez ilunpetan zabaltzen den izurriari,
ez egun argitan jotzen duen gaitzari.
- ⁷ Zure ezker aldean mila,
zure eskuinaldean hamar mila erorita ere,
zu ez zaitu joko.
- ⁸ Begiak zabaldu orduko
ikusiko duzu gaiztoen zigor-ordaina.
- ⁹ Jauna hartu baituzu babesleku,
Goi-goikoa bizileku.
- ¹⁰ Ez zaizu zoritxarrik gertatuko,
ezta zure etxera hondamenik iritsiko.
- ¹¹ Bere aingeruei aginduko die
zu nonahi ere zaintzeko.
- ¹² Besoetan eramango zaituzte
harriekin estropezu egin ez dezazun,
¹³ suge pozoitsuen gainean ibiliko zara,
basapiztiak oinazpian hartuko.
- ¹⁴ "Niri atxikia dagoenez gero, onik aterako dut,
toki egokian jarriko, aitortzen nauelako.
- ¹⁵ Dei egitean erantzun egingo diot,
berekin izango nau larrialdian;
libratu egingo dut eta ohorez jantziko.
- ¹⁶ Bizitza luze eta betea emango diot,
eta neure salbamena gozaraziko".

92 (91). Salmoa
Faltsukeriarik gabeko ene Harkaitz

- ² Bai eder, Jauna, zu gorestea
eta Goi-goiko hori kantuz ospatzea.
- ³ Goizean zure maitasuna iragartzea,
gau osoan zure leialtasuna,
- ⁴ hamar hariko harpaz, kitara soinuz.
- ⁵ Pozarren nauka, Jauna, zure ekintzak,
poz-oihuka zuk egindakoak.
- ⁶ Bai handiak, Jauna, zuk eginak,
zeinen sakonak zure egitasmoak!
- ⁷ Ai ohartzeko zentzudunak bagina,
ulertzeko azkarrak.
- ⁸ Belarrak bezain ugari ernetzen badira gaiztoak,
garatu gaizkile guztiak,
- ⁹ betiko hondatuak izango dira.
Zu, Jauna, diren guztien gainetik zaude betierean.
- ¹⁰ Begira, Jauna, bidegabekeriaren amaiera,
horra hor gaizkiaren porrota,
horretan ari denaren nahasmendua.
- ¹¹ Niri, ordea, bufaloen indarra eman didazu,
olio berriz gantzutu nauzu.
- ¹² Zelatan naukanaren porrota ikusiko dut,
gaizkileen gain behera entzungo.
- ¹³ “Zintzoa palmondoa bezala garatuko da,
Libanoko zedroa bezala haziko.
- ¹⁴ Jaunaren etxean landaturik
gure Jainkoaren ondoan garatuko da.
- ¹⁵ Zaharturik ere fruitua emango du,
mardul eta heze iraungo beti.
- ¹⁶ Jauna zuzena dela iragartzeko,
nire harkaitza, gaiztakeriarik gabea”.

93 (92). Salmoa
Santutasuna da zure etxearen apaingarria

- ¹ Jauna da errege, ospez jantzia,
Jauna indarrez inguratua
eta horrela sendo dago mundua, ez da kolokatuko.
- ² Zure tronua betidanik dago sendo ezarria,
betikoa zara zu, Jauna.
- ³ Ozendu dute itsas urek, Jauna,
ozendu itsas urek orroa,
ozendu itsas urek olatu burrunba.
- ⁴ Baina itsas orroa baino bizkorrago,
itsas uhinak baino ahaltuago,
ahaltuago da Jauna zeru goietan.
- ⁵ Zuk erabakiak fidagarri dira,
zure etxea santutasunez eder, Jauna,
egun eta beti.

94 (93). Salmoa

Zure kontsolamenez barrutik bihotz ematen didate

- ¹ Jainko Jauna, justizia zale,
nekaezina zapalkuntzaren aurka,
² etor bedi gure artera zure epaia,
lurrean gailendu ez dadin harrokeria.
- ³ Noiz arte behar dute gaiztoek, Jauna,
noiz arte behar dute gaiztoek garaile?
⁴ Noiz arte ahoberoak lotsagabe erronkan,
gaizkile guztiak harropuzturik?
⁵ Zure herria hauts egiten dute, Jauna,
zure ondarea zapaltzen.
⁶ Alargun eta etorkinak hilarazten dituzte,
umezurtzak txikitzen.
⁷ Pentsatzen dute: “Jaunak ez du ikusten,
jende umiliatuaren Jainkoa ez da konturatzen”.
- ⁸ Kontura zaitezte, bada, ergelok!
Zentzugabeok, noiz ulertu behar duzue?
⁹ Belarria ezarri zuenak ez ote entzungo?
Begia eratu duenak, ez ote ikusiko?
¹⁰ Herriak zentzutzen dituenak, ez ote du heziko:
Gizakiei irakasten dienak, ez ote du jakingo?
¹¹ Jaunak badaki gizon-emakumeen asmoak hutsak direla.
- ¹² Zorionekok zuk hezten duzuna, Jauna,
zure legean eskolatzen duzuna.
¹³ Aldi txarren ondoren, lasai biziartzten duzu,
gaiztoentzat hilobia zulatzen duten bitartean.
¹⁴ Jaunak ez baitu bere herria zapuztuko,
ez bere ondarea bertan behera utziko.
¹⁵ Justiziaren arabera emango dira epaiak,
hari jarraiki ibiliko bihotz zuzenekoak.
- ¹⁶ Nork defendatuko nau gaizto horien aurka?
Nor alde aterako gaizkile horien kontra?
¹⁷ Jaunak lagundu ez balit,
herio-isilpean nengokeen dagoeneko.
¹⁸ Erortzear nagoela uste dudanean,
zure maitasunak eusten dit, Jauna.
¹⁹ Bihotza kezkaz betea izan arren,
zure kontsolamenduaz gozaten nauzu.

²⁰ Lagun izango ote dituzu epaile makurrak,
tirania lege egiten dutenak?

²¹ Zintzoari erasotzen diote, hiltzeko,
errugabea heriotzara kondenatzen.

²² Baina nik Jainkoa dut ihesleku,
Jainkoa neure babes-harkaitz.

²³ Min hartzen du gaizakerian bizi direnekin,
justiziarik gabe hondatzen baitute bizitza,
zintzotasunik gabe, hondamenera doaz.

95 (94). Salmoa
Entzungo al duzue gaur haren ahotsa!

- ¹ Zatozte, degiogun poz-oihu Jaunari,
poz-irrintzi salbatzen gaituen harkaitzari.
- ² Sar gaitezen haren presentzian eskerrak emanez,
salmoak abestuz.
- ³ Jauna, Jainko handia baita,
jainko guztien gain errege handia.
- ⁴ Bere esku dauzka harpeko leizeak,
bereak ditu mendi-gailurrak.
- ⁵ Berea du itsasoa, berak egina,
eta lehorra, bere eskuz moldatua.
- ⁶ Zatozte, gurtu dezagun ahuspezturik,
belaunika gaitezen egin gaituen Jaunaren aurrean!
- ⁷ Bera da gure Jainkoa,
eta gu hark larraturiko herria,
haren gidaritzapeko artaldea.
- ⁸ Egingo al diozue gaur kasu haren esanari:
“Ez gogortu zuen bihotza,
zuen gurasoek Meribako basamortuan bezala,
- ⁹ han zuen arbasoek aurpegi eman eta probatu baininduten,
nik haien alde egina ikusi arren”.
- ¹⁰ Berrogei urtez, belaunaldi hark gogait eragin zidan,
eta esan nuen: “Herri galdua da, bihotzez desleiala,
nire bidetik ibili nahi ez duena”.
- ¹¹ Horregatik tristetu nintzen pasiozko maitasunez;
“Ez, ez dira sartuko atsedean eman nahi nien lurraldean”.

96 (95). Salmoa
Justiziaz zerbitzatuko du mundua

- ¹ Kanta Jaunari kantu berria,
kanta Jaunari lurtar guztiok.
- ² Kanta Jaunari, bedeinka haren izena!
Hots egin egunez egun salbatzaile dela.
- ³ Zabaldu haren ospea atzerrietan,
haren mirariak herri guztietan.
- ⁴ Handia baita Jauna, guztiz goresgarria,
jainko guztien aldean miresgarria.
- ⁵ Izan ere, hauts dira asmatsen ditugun jainkoak;
Jaunak, ordea, zeruak egin ditu.
- ⁶ Distira eta handitasuna ditu inguruan,
indarra eta edertasuna haren santutegian.
- ⁷ Goretsi Jauna, munduko herriok,
goretsi Jaunaren ospea eta indarra,
- ⁸ goretsi Jaunaren izen ospetsua!
Sartu haren aurrean eskaintzak eramanez.
- ⁹ Adora Jauna bere santutasunez agertzean,
poztu bedi haren presentzian lur osoa!
- ¹⁰ Esan nazioen artean: "Errege da Jauna",
sendo ezarri du mundua, ez du koloka egingo,
herriak zuzenbidez gobernatzen ditu.
- ¹¹ Poztu bedi zerua, alaitu lurra,
egin beza burrunba itsasoak eta bertako guztiak,
- ¹² egin festa landa zabalak eta bertan dagoenak,
poz-oihu basoko zuhaitzak oro,
- ¹³ badatorren, lurra gobernatzera datorren Jaunaren aurrean,
justiziaz gobernatuko du mundua
eta leialtasunez herriak.

97 (96). Salmoa
Lur guztiaren zerbitzari handia

- ¹ Errege da Jauna, poztu bedi lurra!
alai bitez uharte eta kostaldeak!
- ² Hodei beltz ilunak haren inguruan,
justizia eta zuzenbidea haren tronu-oinarri.
- ³ Gaiztoen itzalak kiskaltzeko,
sua doakio aurretik.
- ⁴ Haren tximistek munduan argi ikustean
lurra jartzen da dardara.
- ⁵ Mendiak jauzika jartzen dira, arkumeak bezala
lurraren jabe eta zerbitzariaren aurrean.
- ⁶ Zeruek haren justizia iragartzen dute,
herri guztiek haren ospea ikusten.
- ⁷ Lotsa dira idolozone guztiak,
huskeria horiekin harro daudenak.
Ahuspez Jaunaren aurrean beste jainko guztiak.
- ⁸ Entzutean, poztu egiten da Jainkoaren herria,
munduko hiri guztiak alaitu egiten dira,
zure epaiengatik, Jauna.
- ⁹ Zu Jauna baitzara lur guztiaren zerbitzari handia,
beti jende xumearekiko erne.
- ¹⁰ Gaitzari gorroto diotenak maite ditu Jaunak,
bere fededunen bizia zaintzen du,
gaiztoen eskutik libratzen.
- ¹¹ Argia sortzen da zintzoaren barruan,
poza bihotz zuzenekoengan.
- ¹² Poztu zaitezte Jaunarekin, zintzook,
goretsi, santua dela gogoratuz.

98 (97). Salmoa
Mundua justiziaz epaituko du

- ¹ Kanta jaunari kantu berria,
egintza harrigarriak egin baititu;
garaile egin du
bere esku indartsu paregabeak!
- ² Bere garaipena azaldu du Jaunak,
bere salbamen-ekintza agertu nazioen aurrean.
- ³ Ez du ahaztu bere maitasuna,
bere herriari zor dion leialtasuna.
Munduko bazter guztiek ikusi dute
gure Jainkoaren garaipena.
- ⁴ Egin irrintzi Jaunari, lurtar guztiok,
egin poz-oihu eta kantu, jo soinua.
- ⁵ Ospatu Jauna zitaraz eta kantu ederrez,
turuta eta adar hotsez.
- ⁶ Egin irrintzi errege den Jaunari,
turuta eta adar hotsez.
- ⁷ Egin beza orro itsasoak eta bertan den guztiak,
munduak eta bertan bizi direnek.
- ⁸ Egin bezate txalo ibaiek,
poz-oihu aho batez mendiek.
- ⁹ Jaunaren aurrean, bai baitator lurra gobernatzera,
justiziaz epaituko du mundua,
zuzenbidez herria.

99 (98). Salmoa
Justizia maite duen zerbitzari ahaltsua

- ¹ Errege da Jauna, dardara bitez herriak!
Hegaldun izakien artean du tronua: ikara bedi lurra!
- ² Handia da Jauna mundu guztian,
herri guztien zerbitzari gorena.
- ³ Gorets bezate haren izen handi eta ikaragarria.
Santua da bera.
- ⁴ Justizia maite duen zerbitzari ahaltso,
zuk ezarri duzu zuzenbidea munduan,
zuk egiten zuzenbidea eta justizia herri guztietan.
- ⁵ *Goratu Jauna, gure Jainkoa,
ahuspeztu haren oin-aulki aurrean.
Santua da bera.*
- ⁶ Haren apaizen artean ziren Moises eta Aaron,
haren izenari dei zegoitenen artean: Samuel;
dei egiten zioten Jaunari, eta hark erantzun.
- ⁷ Laino-adarretik hitz egin zien,
eta haiek gorde haien aginduak,
eta eman zien legea.
- ⁸ Jauna, gure Jainkoa, zuk erantzuten zenien, bai,
Jainko barkabera izan zinen haientzat,
askotan erori baziren ere.
- ⁹ *Goratu Jauna, gure Jainkoa,
ahuspeztu herri guztien Jainkoaren aurrean:
santua da Jauna, gure Jainkoa!*

100 (99). Salmoa
Haren ateetatik eskerrak emanez

- ¹ Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari!
- ² Zerbitza ezazue pozik Jauna,
joan oihu alaiz haren aurrera.
- ³ Aitortu Jauna Jainko dela.
Berak eginak, eta bereak gaitu.
- ⁴ Sartu haren ateetatik eskerrak emanez,
haren atarietan gorazarrez.
- ⁵ Bai, ona da Jauna, haren maitasuna betikoa,
haren leialtasuna mendez mendekoa.

101 (100). Salmoa
Maitasunari eta justiziarik kantatuko diot

- ¹ Maitasuna eta justizia nahi ditut kantatu,
zuretzat Jauna, soinua jo.
- ² Jokabide prestua nahi dut azaldu,
noiz etorriko zara niregana?
Zintzo jokatuko dut etxeko arazoetan.
- ³ Ez diot inolako arretarik jarriko zitalkeriari.
Gorroto izango dut idolozelekia,
ez zait itsatsiko.
- ⁴ Urruti niregandik bihotz makurrekoa!
Gaiztoarekin ez dut ezer ere nahi.
- ⁵ Lagun hurkoaren izena ezkutuan belzten duena
suntsitu egingo dut,
harroputz eta handizaleak ez ditut jasango.
- ⁶ Herritar fidagarriak aukeratuko ditut kontseilari,
jokabide prestuko gizonak zerbitzari.
- ⁷ Engainatzaileak ez da nire etxean biziko,
gezurtiak ez du nire aurrean iraungo.
- ⁸ Goizero zentzatuko dut
gaiztakeria egitea atsegin duena,
harik eta herritik erauzi arte doilorkeria eta gehiegikeria oro.

102 (101). Salmoa
Txori bakartia bezala teilatuan

- ² Jauna, irrikaz sentitu nahi dut entzuten nauzula,
zugana heltzen dela nire oihua.
- ³ Bai segurtagarria dela jakitea
ez duzula aurpegia ezkutatzen
larrialdiaren egunean,
makurtzen duzula belarria dei egiten duzunean.
- ⁴ Badoaz nire egunak kea bezala,
erretzen dauzkat hezurak, txingarrak bezala.
- ⁵ Belarra bezala zimeltzen zait bihotza,
nire ogia bera jatea ahanzten zait.
- ⁶ Hainbesteko negarrak akituta,
nire hezurak itsatsi egiten zaizkio nire larruazalari.
- ⁷ Hontz-zuria basamortuan bezala nago,
gau hontza hondakinen artean bezala.
- ⁸ Loak hartu ezinik, hor nago,
txori bakartia teilatuan bezala.
- ⁹ Egun osoan etsaiak irainka ari zaizkit,
amorru bizian madarikatzen.
- ¹⁰ Errautsa dut janari,
malkoak edari.
- ¹¹ Zeure haserre-suminez,
ez dut sentitzen zure zaintza.
- ¹² Badoaz nire egunak,
arratsaldeko itzalaren antzera desagertuz.
- ¹³ Baina zuk, Jauna, betiko irauten duzu,
zure oroitzapena mendez mende luzatzen da.
- ¹⁴ Gupida izango diozu zure herriari berriro
bada-eta zure errukiaren ordua,
heldu da garaia.
- ¹⁵ Zure seme-alabek maite dituzte haren harriak,
erruki diete hango hondakinei.
- ¹⁶ Begirune izango diote nazioek Jaunaren izenari,
lurreko biztanle guztiek
haren aintzari.
- ¹⁷ Jaunak bere herria berriz eraikitzen duenean,
eta aintzaz beteta agertzean
- ¹⁸ ikusiko da zapalduaren otoitza entzuten duela,
ez dituela baztertzen haren otoitzak.

- ¹⁹ Bego han idatzirik hurrengo gizaldientzat,
herri zahar berrituak goratuko du Jauna.
- ²⁰ Solidarizatu egin da zapalduekin,
munduko arazoetan sartu da,
- ²¹ presoan intziriak entzuteko,
eta hiltzera kondenatuak askatzeko.
- ²² Jaunaren izena iragarriko du munduak,
haren gorespena Bakearen Hiriak.
- ²³ Herriak beren erregeekin batera
Jauna gurtzera bilduko direnean.
- ²⁴ Nire indarra apaldu da bidean,
nire egunen kopurua murriztu egin da.
- ²⁵ Esan nuen, ene Jainko,
ni egunen erdian banoa ere,
zu bizi zara eta eutsi egiten didazu mendeetan.
- ²⁶ Hasieratik sendo ezarri zenuen lurra,
zure eskuek egina da zerua.
- ²⁷ Haiek galduko dira, baina zuk iraungo duzu,
jantzia bezala gastatuko dira,
soinekoa bezala aldatuko dituzu
eta haiek desagertuko dira.
- ²⁸ Zu, ordea, beti bera, zure urteak
amaigabeak dira.
- ²⁹ Zugan gizakia seguru dago,
zure eskuetan aurkitzen dugu sendotasuna.

103 (102). Salmoa
Ez inoiz ahaztu haren mesedeak

- ¹ *Bedeinka beza ene arimak Jauna,*
ene barren osoak haren izen santua!
- ² *Bedeinka beza ene arimak Jauna,*
ez bitza ahaztu haren mesedeak.
- ³ Erru guztiak barkatzen dizkit,
gaitz guztiak sendatzen,
- ⁴ bizia Herio Zulotik ateratzen dit,
maitasun eta errukiz inguratzen nau.
- ⁵ Bizitza osoan bere edertasunez nau asetzen,
beti arranoa bezain gazte gordetzen.
- ⁶ Jaunak justizia egiten du,
zapalduen eskubideak defendatzen.
- ⁷ Bere egitasmoak adierazi zizkion herriari,
bere salbamen indarra herrialde guztiei.
- ⁸ Bihozbera eta errukiorra da Jauna,
haserregaitza eta onginahiz betea.
- ⁹ Ez da beti agiraka ari,
ez du haserrea luzaro gordetzen.
- ¹⁰ Ez gaitu erabiltzen gure bekatuek merezi bezala,
ez digu ordaintzen gure erruen arabera.
- ¹¹ Nola zerua lurraren gainean garai,
hala haren maitasuna begirune diotenentzat handi!
- ¹² Nola ekialdea mendebaldetik urruti,
hala ditu hark gure hobenak beregandik urruntzen.
- ¹³ Nola ama seme-alabentzat errukior,
hala Jauna pertsona guztiekin samur.
- ¹⁴ Badaki ongi zerez gauden eginak,
gogoan du hautsa besterik ez garela.
- ¹⁵ Gizakien egunak belarraren pareko:
zelaiko lorea bezala loratzen da,
- ¹⁶ eta haizeak jo orduko, bertan behera galtzen,
zegoen tokian aztarnarik utzi gabe.
- ¹⁷ Baina Jaunaren maitasunak sekulako dirau,
munduko pertsona guztientzat,
haren salbamen asmoa belaunalditik belaunaldira luzatzen da,
- ¹⁸ haren ituna gordetzen eta legeak betetzen dituztenentzat.
- ¹⁹ Jaunak gure artean ezarri zuen etxea,
maitasun handiz gobernatzen du unibertsoa.

²⁰ Bedeinka ezazue Jauna gurtzen duzenok,
eta hark esana egiteko prest zaudetenok,
haren hitzaren hotsa entzun orduko.

²¹ Bedeinka ezazue Jauna haren fededun guztiok,
haren nahia egiten duzen zerbitzariok.

²² Bedeinka ezazue Jauna, beraren egintza guztiok,
bere presentziak argitutako toki guztietan.

Bedeinka beza ene arimak Jauna.

104 (103). Salmoa
Nire Jainkoarentzat soinua joko dut bizi naizen bitartean

¹ *Bedeinka beza ene arimak Jauna!*

Jauna, ene Jainko, bai handia zarela!
Distiraz eta handitasunez zaude jantzia,
² argiz inguratua, soinekoz bezala.
Oihal-etxola bezala zabaltzen duzu zerua,
³ zeure goi gelatan pilatzen ura;
hodei gainean kokatzen duzu zeure karroza,
haize-hegaletan zabilta.
⁴ Haizeak dituzu mezulari,
sugarak zerbitzari.

⁵ Lurra sendo oinarritu zenuen,
eta ez du sekula kolokarik egingo.

⁶ Ozeanoz estali zenuen, jantziz bezala,
eta mendiak azpian hartu zituzten urek.

⁷ Baina zure mehatxuz ihes egin zuten,
zure trumoi-hotsak uxaturik.

⁸ Mendietan gora, ibarretan behera,
zuk izendaturiko lekuraino.

⁹ Gainditu ezineko muga ezarri diezu urei,
berriro lurra estal ez dezaten.

¹⁰ Iturburu eta errekek sorrarazten dituzu
mendi artean doazela,

¹¹ basapiztiek edan dezaten,
basastoek egarria ase.

¹² Ur bazterretan bizi dira zeruko txoriak,
hostopean kantari.

¹³ Zure goi-geletatik dituzu mendiak ureztatzen,
zure biltegietako emaitzez lurra asetzen.

¹⁴ Abereentzat belarra ernarazten duzu,
lanerako animalientzat bazka.

Lurretik laborea ateratzen duzu,
¹⁵ eta gizakiaren bihotza alaitzen duen ardoa,
aurpegia distiratsu egiten duen olio,
eta giza indarrak berritzen dituen ogia.

¹⁶ Urez ase dira Jaunaren zuhaitzak,
hark landaturiko Libanoko zedroak.

¹⁷ Bertan egiten dute txoriek habia,
ipuruetan zikoinak etxea.

¹⁸ Mendi garaiak ahuntzentzat dira,
harkaitzak azkonarren gordeleku.

- ¹⁹ Ilargiak urtaroak finkatzen ditu,
eguzkiak badaki noiz ezkutatu.
- ²⁰ Iluna zabaltzean, badator gaua,
basapiztia denak harat-honat dabilta.
- ²¹ Lehoikumeek orro dagite harrapakin bila,
Jainkoari janari eske.
- ²² Eguzkia irtetean barrena sartzen dira
beren gordelekuetan etzatera.
- ²³ Orduan, gizakia bere eginkizunetara doa,
arratsa arte lanera.
- ²⁴ Bai ugariak, Jauna, zuk eginak!
Denak jakinduriaz egin dituzu,
zure sorkariz betea da lurra.
- ²⁵ Horra itsasoa, handi eta zabal:
hor dabilta borbor, ezin konta ahala,
piztia txiki eta handiak.
- ²⁶ Hor dabilta ontziak batetik bestera,
baita Leviatan ere, zuk berarekin jolasteko egina.
- ²⁷ Denak zure zain daude,
zuk bere garaian jana emateko zain.
- ²⁸ Zuk eman eta haiek harrapatu,
zuk eskua zabaldu eta haiek ondasunez ase.
- ²⁹ Zuk aurpegia gordetzean, ikara dira,
zuk arnasa kentzean
hil egiten dira eta hauts bihurtzen.
- ³⁰ Zure arnasa bidali, eta berriro sortzen dituzu,
eta lurbira berritzen.
- ³¹ Betiko izan bedi Jaunaren ospea!
Poz bedi lurra berak eginekin!
- ³² Hark lurrari begiratu eta lurrak dardara egiten du,
hark mendiak ukitu eta, arkumeak bailiran, jauzika hasten dira.
- ³³ Bizi naizen artean kantatuko diot Jaunari.
- ³⁴ Atsegin bekio nire kanta;
Jaunagan daukat nire poza.
- ³⁵ Desager bedi lurretik gaiztakeria,
buka bitez injustizia eta zapalkuntza.

Bedeinka beza ene arimak Jauna.

105 (104). Salmoa
Berak beti gogoan du bere ituna

- ¹ Eman eskerrak Jaunari, dei egin berari,
jakinarazi herrien artean haren egintza bikainak!
- ² Kanta iezaiozue, jo soinua berarentzat,
kanta haren egintza miragarriak.
- ³ Harro zaitezte hartaz, Jainko santuaz,
poztu, Jaunaren bila zabilzatenok.
- ⁴ Jo ezazue Jaunarengana, indartsuagana,
bila etengabe haren aurpegia.
- ⁵ Izan gogoan hark egindako mirariak,
haren egintza harrigarriak eta agindu zuzenak.
- ⁶ Zuek, haren zerbitzari Abrahamen jatorrikook,
Jakoben ondorengook, haren aukeratuok.
- ⁷ Bera da Jauna, gure Jainkoa,
lur osoaren gobernaria.
- ⁸ Gogoan du etengabe bere ituna,
mila gizalditarako hitzeman.
- ⁹ Abrahamekin eginiko ituna,
Israeli emaniko zinitza.
- ¹⁰ Jakobi legetzat ziurtatua,
Israeli betiko ituntzat emana,
- ¹¹ esatean: "Zuei dizuet emango Kanaan lurraldea,
hauxe da zuen ondare zatia".
- ¹² Gutxi batzuk besterik ez ziren,
etorkin taldetxo bat besterik ez,
- ¹³ nazio batetik bestera martxan,
erreinuz erreinu.
- ¹⁴ Baina Jainkoak ez zuen utzi inork zapal zitzan,
eta adore eman zien zapalkuntzaren aurkako errebeldian.
- ¹⁵ "Ez ukitu nire aukeratuak,
ez egin kalterik nire profetei".
- ¹⁶ Gosea erakarri zuen lurraldera,
ogi hornidura oro kendu.
- ¹⁷ Gizon bat bidalia zuen aurretik,
Jose, esklabotzat saldua.
- ¹⁸ Oinak katean lotu zizkioten,
burdinazko lepokoa erantsi,
- ¹⁹ hark iragarria bete zen arte,
Jaunaren hitzak haren errugabetasuna frogatu zuelarik.

- ²⁰ Orduan erregeak askarazi egin zuen,
herrien nagusiak giltzapetik libre utzi.
- ²¹ Bere jauregiko buru egin zuen,
eta bere ondasun guztien administratzaile.
- ²² Berak behar zituen handikiak eskolatu,
eta kontseilariei jakinduria irakatsi.
- ²³ Orduan Israel Egipton sartu zen,
eta Kamen lurraldean atzerritar gisa bizi izan ziren.
- ²⁴ Jainkoak bere herria erruz ugaltu zuen
eta zapaltzaileak baino indartsuago egin.
- ²⁵ Hauei bihotza aldatu zien,
Jainkoaren herria gorroto zezaten,
eta haren zerbitzariak maltzurki erabili.
- ²⁶ Orduan Moises bere zerbitzaria bidali zuen,
eta Aaron bere aukeratua.
- ²⁷ Iragarritako mirariak egin zituzten egiptoarren kontra
egintza harrigarriak Kamen lurraldean.
- ²⁸ Jaunak ilunpea bidali eta dena ilundu zen,
baina haiek ez zituzten haren egintzak ulertu.
- ²⁹ Urak odol bihurtu zizkien,
eta bertako arrainak hilarazi.
- ³⁰ Lurraldean igelak azaldu ziren borborka,
baita erregearen logelan ere,
- ³¹ Jainkoak agindu eta ezpateuli eta eltxoak
zabaltu ziren bazter guztietan.
- ³² Euriaren ordezkakabarra bidali zien,
eta tximistak beren lurraldera.
- ³³ Mahasti eta pikondoak hondatu zituen,
eta zuhaitz guztiak puskatu.
- ³⁴ Larrapoteak etorri ziren,
matxinsaltoak ezin konta ahala.
- ³⁵ Lurraldeko landare guztiak garbitu zituzten,
lurreko fruituak oro.
- ³⁶ Egiptoko lehen seme guztiak jo zituen,
haien gizontasunaren lehen fruituak.
- ³⁷ Zilar eta urrez beterik atera zituen israeldarrak,
ez zuen haien leinuetako inork lur jo.
- ³⁸ Poztu egin zen Egipto haien irteteaz,
haienganako beldur-ikarak hartuak baitzituen.
- ³⁹ Lainoa bidali zuen Jaunak haiek estaltzeko,
eta sua gauez argi egiteko.
- ⁴⁰ Haiek eskatu eta galeperrak bidali zizkien,
zeruko ogiz ase zituen.
- ⁴¹ Hark harkaitza zulatu eta ura atera zen,
eta ibaika joan basamortuan barrena.

⁴² Gogoan izan zuen bere agintzari sakratua,
Abraham bere zerbitzariari egina.

⁴³ Bozkariotan atera zuen bere herria,
poz-oihuka bere aukeratuak.

⁴⁴ Lurralde berri batean kokatu ziren,
landu eta bere fruituak jan zituzten,

⁴⁵ haren arauak bete eta legeak gordez.

106 (105). Salmoa
Senidetasun unibertsalera deitzen gaituen

- ¹ Aleluia! Gora Jauna!
Goretsazue Jauna, ona baita,
haren maitasuna betikoa baita.
- ² Nork azalduko Jaunaren egintza handiak?,
nork aski goretsiko hura?
- ³ Zorionekoa zuzenbidea errespetatu
eta etengabe justizia egiten duena.
- ⁴ Nitaz oroitzen zara, Jauna,
zure herriarekiko onginahiagatik,
eta nigana zatoz zure salbamenarekin.
- ⁵ Ikus dezadan zure aukeratuen zoriona,
poztu nadin zure herriaren pozarekin,
eta zure oinordeko izateaz harrotu.
- ⁶ Bekatu egin dugu gurasoen antzera,
oker jokatu dugu, errudun gara.
- ⁷ Gure gurasoek, Egiptotik hasita,
ez zituzten ulertu zure egintza harrigarriak,
ahaztu egin zituzten zure maitasunaren ezaugarri ugariak.
Errebelatu egin ziren, Itsaso Gorritik hasita.
- ⁸ Jaunak salbatu zituen arren
bere izenaren ohoreagatik eta bere ahalmena azaltzeko.
- ⁹ Mehatxu eginez, Itsaso Gorria lehortu egin zuen,
basamortuan zehar bezala pasarazi zituen itsas hondotik.
- ¹⁰ Gorroto zietenen eskutik salbatu zituen,
etsaien menpetik askatu.
- ¹¹ Urak harresi baten modura altxatu ziren,
suntsitu ez zitezen.
- ¹² Orduan, Jaunaren hitzak sinetsi zituzten,
eta kantuz goretsi zuten.
- ¹³ Baina azkar ahaztu zituzten haren egintzak,
eta ez zuten itxaropenik jarri haien egitasmoan.
- ¹⁴ Jan-irrika sartu zitzairen basamortuan,
eta Jainkoa tentatu zuten eremuan.
- ¹⁵ Eskatzen ziotena eman zien hark,
eta bizi oparoa eskaini zien.

- ¹⁶ Moisesen eta Aaron Jainkoaren sagaratuaren inbidia izan zuten kanpalekuan.
- ¹⁷ Beren gaiztakeriak suntsitu zituen arren, Jainkoak maite zituen arren.
- ¹⁸ Botere irrikak jan zituen eta haien asmoak ezertan gelditu ziren.
- ¹⁹ Horeb mendian zekorra egin zuten, metal urtuzko idoloaren aurrean ahuspeztu ziren.
- ²⁰ Beren ospe zuten Jainkoaren ordeztu, belarra jaten duen zekorraren irudia jarri zuten.
- ²¹ Ahaztu egin zuten Jainkoa, beren salbatzailea, Egipton gauza harrigarriak egina.
- ²² Kamen lurraldean mirariak eta Itsaso Gorri aldean ikusgarriak egin zituen.
- ²³ Jainkoa haiek suntsitzeko asmotan zegoelakoan, Moises haren aukeratua tartean sartu zen, bere haserrea baretzeko, suntsi ez zitzaizkien.
- ²⁴ Lurralde zoragarriari mespretxu egin zioten, Jainkoaren hitzaz fidatu ez zirelarik.
- ²⁵ Beren oihal etxoletan marmar egin zuten, Jaunaren esanera jarri gabe.
- ²⁶ Tematu ziren beren jarreran eta basamortuan galdu ziren,
- ²⁷ herrien artean sakabanatu ziren, eta jentilen artean barreiatu.
- ²⁸ Jainko faltsuekin uztartu ziren, eta jainko hilei eskainitako oparigaiak jan zituzten.
- ²⁹ Bide zuzena utzi zuten eta izurrite bat etorri zitzaizkien.
- ³⁰ Batzuk bakarrik jarraitu zuten zintzo, esperantzaren euskarri.
- ³¹ Horregatik Jainkoak ontzat eman zuen gizaldiz gizaldi.
- ³² Baina bide okerrean tematu ziren eta Moises haserretu zuten.
- ³³ Izan ere, barrua samindu zioten eta hark zentzugabe hitz egin zuen.
- ³⁴ Bidegabekeriarekin kutsatu ziren Jainkoaren aginduaren kontra.
- ³⁵ Jentilekin elkartu ziren ezkontzaz eta haien ohiturak bereganatu zituzten.
- ³⁶ Gurtza eman zieten haien idoloiei eta hauek galbide gertatu zitzaizkien.

- ³⁷ Beren seme-alabak opari eskaini zizkieten deabrueri,
³⁸ odol errugabea isuri zuten
eta lurraldea profanatu zuten beren krimenekin.
- ³⁹ Horrela jokatu, beren buruak kutsatu
eta Jainkoari desleial izan zitzaizkion.
- ⁴⁰ Herria bere Jaunagandik urrunduz zen
eta bere bedeinkapenak arbuiatu zituen.
- ⁴¹ Etsaien eskuetan erori ziren
eta errukirik gabe menperatuak izan ziren.
- ⁴² Etsaiek tiranizatu egin zituzten
eta menpean hartu.
- ⁴³ Hamaika aldiz libratu zituen,
baina haiek, beraien jarreran setatsu,
beren erruengatik galtzen ziren.
- ⁴⁴ Baina ikusi zituen Jaunak beren larrialdian,
eta haien garrasiak entzun.
- ⁴⁵ Oroitu zen haiekin egin zuen itunaz
eta bere maitasun samurraz gidatu zituen.
- ⁴⁶ Haiekiko gupida sortu zuen
erbestera eramanez zituztenengan.
- ⁴⁷ Zu zara gure salbamena, Jauna, gure Jainkoa,
zuk deitzen gaituzu senidetasun unibertsalera,
eskerrak emateko zure izen santuari,
eta gorespena harro abes dezagun.
- ⁴⁸ Bedeinkatua Jauna, herri guztien Jainkoa,
betidanik betidaino!
Eta herri guztiak erantzun beza:
"Amen! Aleluia!"

107 (106). Salmoa
Beti jende behartsu eta zapalduaren ondoan

- ¹ Goretsazue Jauna, ona baita.
Haren maitasuna betikoa baita.
- ² Aldarrika bezate Jaunak askatuek,
zapaltzailearen eskutik askatu dituela,
³ eta herrialde guztietatik bildu
ekialde eta mendebaletik, iparralde eta hegoaldetik.
- ⁴ Noraezean zebiltzan basamortuan,
bide bakartietan, bizitzeko hiririk aurkitu ezinik.
- ⁵ Gose-egarriz hilzorian zeuden,
adorea galdurik.
- ⁶ *Baina larrialdian Jaunari oihu egin
eta libratu egin zituen estualditik.*
- ⁷ Bide zuzenetik eraman zituen,
bizitzeko hirira iritsi arte.
- ⁸ Gorets bezate Jauna bere maitasunagatik,
gizakien alde egin dituen gauza harrigarriengatik.
- ⁹ Egarriz larri zeudenak ase ditu,
gosetuak ondasunez bete.
- ¹⁰ Ilunperik beltzenean zeutzan,
burdinaz eta miseriaz loturik.
- ¹¹ Jainkoaren aginduen kontra errebelatu baitziren,
eta Goi-goikoaren egitasmoa mespretxatu baitzuten.
- ¹² Jainkoa lagun zuten larrialdian eta,
halere, lur jotzen zuten hain setatiak izateagatik.
- ¹³ *Baina larrialdian Jaunari oihu egin
eta salbatu egin zituen estualditik.*
- ¹⁴ Ilunperik beltzetik atera zituen
eta haien lokarriak hautsi.
- ¹⁵ *Gorets bezate Jauna bere maitasunagatik,
gizakien alde egin dituen gauza harrigarriengatik.*
- ¹⁶ Brontzezko ateak puskatu zituen,
burdinazko morroiloak apurtu.
- ¹⁷ Beren jokaera txarrarengatik ahuldurik zeuden,
beren erruengatik zirtzil bihurturik.
- ¹⁸ Janari guztiei nazka zieten,
eta heriotzaren atarian zeuden.
- ¹⁹ *Baina larrialdian Jaunari oihu egin
eta salbatu egin zituen estualditik.*
- ²⁰ Bere hitza bidali zien sendagarri,
eta hondamenditik atera.
- ²¹ *Gorets bezate Jauna bere maitasunagatik,
gizakien alde egin dituen gauza harrigarriengatik.*

- ²² Eskain biezaiote gorespen oparia,
eta haren egintzak poz-oihuz kanta!
Itsasora jo zuten ontzietan,
ur handietan zutelarik ogibidea.
- ²³ Jaunaren egintzak ikusi zituzten,
haren egintza harrigarriak itsaso zabalean.
- ²⁴ Haren esanera haizea altxatu zen,
olatu handiak harrotu zituen ekaitza.
- ²⁵ Zeruan gora, leizean behera ibili ziren
barruak dardaraz arriskuagatik.
- ²⁶ Buelbaka eta balantzaka, mozkorraren antzera,
beren trebetasun guztia alferrik zutela.
- ²⁷ *Baina larrialdian Jaunari oihu egin
eta atera egin zituen estualditik.*
- ²⁸ Ekaitza haize gozo bihurtu zuen
eta olatuen orroa isildu.
- ²⁹ Poztu ziren barealdiaz
eta beren gogoko portura eramane zituen Jainkoak.
- ³⁰ *Gorets bezate Jauna bere maitasunagatik,
gizakien alde egiten dituen gauza harrigarriengatik.*
- ³¹ Gora bezate herri-batzarrean,
goretsi zaharren kontseiluan.
- ³² Ibaiak basamortu bihurtzen ditu,
iturburuak lur lehor.
- ³³ Lur joriak gatzaga,
tokiko jendearen gaiztakeria bide,
- ³⁴ Basamortua, berriz, urtegi bihurtzen du
eta landa lehorra iturburu.
- ³⁵ Gosedunak biziarazten ditu bertan
eta bizitzeko hiriak eraikitzen dituzte.
- ³⁶ Soroak erein, mahastiak landatu
eta uzta oparoak biltzen.
- ³⁷ Jainkoak bedeinkatu eta erruz ugaltzen dira,
haien abere taldeei ez die urritzen uzten.
- ³⁸ Zapalkuntzak, ezbehar eta atsekabeak
gutxiturik eta apalduak zeuzkaten,
baina Jainkoa lagun zuten atsekabeak.
- ³⁹ Handikiak mespretxatzen eta biderik gabeko basamortuan
noragabe ibilarazten dituenak
- ⁴⁰ behartsuak miseriatik altxatzen ditu,
eta haien familiak artaldeak bezain ugari bihurtzen.
- ⁴¹ Gauza hauek ikustean, zuzenak poztu egiten dira,
gaiztoak, berriz, mutu gelditzen.
- ⁴² Zuhurrak har bitza hauek guztiak gogoan,
eta saia bedi Jaunaren mesedeak ulertzen!

108 (107). Salmoa
Kantatzera eta musika jotzera noa

- ² Nire bihotza prest dago, ene Jainko,
kantatu eta soinua joko dizut.
- ³ Esnatu ene poza!
Esnatu, harpa eta zitarra!
Esna dezadan egunsentia!
- ⁴ Herrien artean goretsiko zaitut Jauna,
nazioen artean kantatuko.
- ⁵ Bai, zure maitasuna zeru zabala baino handiagoa,
zure leialtasuna hodeitarainokoa.
- ⁶ Zerua baino handiagoa zara, Jauna,
zure ospea mundu osoaren gain!
- ⁷ Gehiegikeria eta indarkeria guztien aurka borrokatzeko,
babes gaitzala zure laguntza salbagarriak.
- ⁸ Jainko santuak esan du:
“Garaipenak kantatuko ditut, adorea banatuko,
mundua justiziazko neurriaz neurtuko.
- ⁹ Herri guztietan nago presente,
herri guztietan jarduten dut indarrez,
senidetasuna handitu eta garaile atera dadin.
- ¹⁰ Jende txikien eta mespretxatuen artean
jartzen dut nire oihal denda,
etorkin eta erbesteratuen artean
izango naiz haien zerbitzari.
- ¹¹ Nork gidatuko nau hiri gotortura?
Nork eramango nau justiziazko senidetasunera?
- ¹² Ez ote zara izango zu, oi Jainko,
inoiz abandonatzen ez gaituzuna,
eta gure ahuldadean indartzen gaituzun hori?
- ¹³ Emaguzu laguntza etsaien kontra,
giza laguntza alferrik baita.
- ¹⁴ Jainkoarekin gauza handiak egingo ditugu,
Jainkoarekin gaindituko dugu zapalkuntza oro.

109 (108). Salmoa
Zuk, Jauna, ene Jainko, lagunduko didazu

- ¹ Ene Jainko, ez egin entzungor nire gorespenari!
² Jende gaizto eta maltzurak
ahoa zabaldu du nire aurka,
gezurrez pertsegitzen naute.
³ Gorroto hitzez inguratzen,
arrazoirik gabe erasotzen.
⁴ Neure maitasunaren ordainez salatu egiten naute,
nik, haien alde otoitz egiten nuen bitartean.
⁵ On eginaren ordain, gaitza bihurtzen didate,
maitasunaren ordain, gorrotoa.
- ⁶ Haiek diote: "Izenda ezazu gaiztoren bat haren kontra,
bego salatzailea haren ondoan.
⁷ Atera bedi kondenatua auzian,
huts egin biezaio bere goradeiak.
⁸ Urri bitez haren egunak,
har beza beste batek haren kargua.
⁹ Geldi bitez umezurtz haren haurrak,
alargun haren emaztea.
¹⁰ Ibil bitez haren haurrak harat-honat eskale,
beren etxeak konfiskatu dizkietelarik.
¹¹ Ken biezazkio hartzekodunak bere ondasunak
bere irabaziak arrotzek harrapa.
¹² Ez bekio inor maitasunez hurbil,
eta haren umezurtzen gupidarik izan.
¹³ Suntsituak izan bitez haren ondorengoak,
gizaldi bakar batean galdu haren deitura.
¹⁴ Oroit bedi Jauna haren gurasoen erruaz,
ez beza kendu amaren bekatua.
¹⁵ Izan bitza Jaunak beti begi aurrean,
eta suntsi beza lurretik haien oroitzapena".
- ¹⁶ Izan ere ez da saiatu maitasunez jokatzeko,
dohakabea eta behartsua pertsegitu
¹⁷ eta bihotz eroria hil nahi izan du.
Madarikazioa zuen gogoko: betorkio gainera.
Bedeinkaziorik ez zuen opa: urrun bekio!
¹⁸ Madarikazioa zeraman soin gaineko,
sar bekio barreraino ura bezala,
gorputza guztira zabaldu olio bezala.
¹⁹ Estal beza, beraz, soinekoak bezala,
lot beza etengabe, gerrikoak bezala.

- ²⁰ Izan bedi hori Jaunarengandiko zigorra nire salatzaileentzat,
gaizki esaka ari zaizkidanentzat.
- ²¹ Baina zuk, ene Jainko Jaun horrek,
egizu mirari bat nire alde,
zarena zarelako, guztiz ona zarelako,
libra nazazu zeure maitasunagatik.
- ²² Dohakabe eta behartsua bainaiz,
urraturik baitut bihotza barruan.
- ²³ Banoa ni, arratseko itzalaren antzera desagertuz,
matxinsaltoak bezala uxatzen naute.
- ²⁴ Barauaren barauz, zangoak koloka ditut,
gorputza argal eta ihar;
- ²⁵ iseka gai bihurtu natzaie,
ni ikustean buruari eragiten diote burlaz.
- ²⁶ Zuk Jauna, ene Jainkoa, lagunduko didazu,
salbatu egingo nauzu, zure maitasunari dagokionez.
- ²⁷ Jakin bezate zure eskua dela,
zu zeu Jauna, nire alde atera dena.
- ²⁸ Madarika nazatela, zuk ni bedeinka,
altxa daitezela aurka, lotsagarri geldituko dira,
eta zure zerbitzari hau poztuko da.
- ²⁹ Estal bitez laidoz nire salatzaileak,
hil bitza lotsa gorriak soingainekoak bezala.
- ³⁰ Aho betean emango dizkiot eskerrak Jaunari,
jendetzaren erdian goretsiko dut,
- ³¹ behartsuaren ondoan jarri baita,
kondenatu nahi zutenen eskutik salbatzeko.

110 (109). Salmoa
Zerbitzari kementsu lanean

- ¹ Hona Jaunak ene Jaunari esan:
“Eseri tronuan nire eskuinean:
etsaiak oin aulki jarriko dizkizut”.
- ² Zure indarraren errege makila
Jaunak ematen dizu,
justiziaz goberna dezazun.
- ³ Zerbitzu pertsona zara jaio zinenetik;
Jauna izango duzu adore-emaile,
bera egunsenti eta gaztetasun ihintz.
- ⁴ Zin egina du Jaunak eta ez da damutuko,
“Betiko zara apaiz, nik esan bezala,
Melkisedeken ordenaren arabera”.
- ⁵ Zure eskuinean daukazu Jauna,
buka dezazun abusuekin bere maitasunaren egunean;
- ⁶ herrien arteko bakea ezarri eta bizia ereiten du,
duintasuna hedatzen du lurraren luze-zabalean.
- ⁷ Edan ezazu biziaren iturrietatik
eta segi ezazu adoretzu zure lanean.

111 (110). Salmoa
Santua eta miresgarria da haren izena

¹ Aleluia! Gora Jauna!

Bihotz-bihotzez goretsiko dut Jauna,
batzarrean zuzenekin elkarturik.

² Handiak dira Jaunak eginak,
gogoko dituenen guztientzat aztergai.

³ Haren egintzak ospez eta ederrez beteak,
haren salbamen asmoak betiko dirau.

⁴ Haren egintza harrigarriak gogoan gordetzekoak dira.
Errukior eta bihozbera da Jauna.

⁵ Mundu guztiari jaten ematen dio,
bere ituna beti gogoan izan du.

⁶ Herri guztiei agertzen die bere egintzaren indarra,
senidetasuna sortzen du nazioen artean.

⁷ Haren egintzak leial eta zintzo, haren legeak fidagarri.

⁸ Behin betiko ezarriak, leialtasun eta zuzentasunez burutuak.

⁹ Askatasuna bidali die herriei,
haiekin ituna finkatu betiko,
santua eta miresgarria da haren izena.

¹⁰ Jaunarenganako begirunea da jakinduriaren oinarria,
benetan zuhur honen arabera jokatzeko dutenak,
Jaunaren gorespenak betiko dirau.

112 (111). Salmoa
Ohorez jasoko du bere kopeta

¹ Aleluia!

Zorionekoa Jaunari begirune diona,
eta haren aginduak biziki atsegin dituen.

² Ahaltsua izango da lurraldean haren askazia,
bedeinkatua zuzenaren ondorengotza.

³ Ondasunak ugari haren etxean,
haren eskuzabaltasunak betiko dirau.

⁴ Ilunpetan argia ageri da zuzenentzat,
Jainko errukiorra, bihozbera eta zintzoa.

⁵ Zorionekoa errukitu eta laguntzen duena,
bere arazoak zuzen daramatzana.

⁶ Zintzoak ez du inoiz koloka egingo,
haren oroitzapenak beti bizirik iraungo du.

⁷ Ez du izango berri txarren beldurrik,
adoretsu dago Jaunarenganako konfiantzaz.

⁸ Seguru sentitzen da, ezeren beldurrik gabe,
bakezko begiez ikusiko ditu etsaiak.

⁹ Eskua betean ematen die behartsuei,
haren justiziak betiko dirau,
ohorez jasoko du kopeta.

¹⁰ Hori ikusiz amorruez dago gaiztoa,
erremindurik eta urtzen;
gaiztoen ametsek porrot egingo baitute.

113 (112). Salmoa
Hautsetik altxatzen ditu pertsona ezinduak

¹ Aleluia! Gora Jauna!

Goretsazue Jaunaren zerbitzariok,
goretsi Jaunaren izena.

² Bedeinkatua izan bedi Jaunaren izena,
orain eta beti.

³ Eguzkiaren sorlekutik sartaldera
goretsia izan bedi Jaunaren izena.

⁴ Jauna nazio guztien gainean garai,
haren ospez zeruak baino gorago.

⁵ Nor Jauna, gure Jainkoa bezalakorik?
Gure bizitzaren euskarri da,

⁶ zaindu egiten ditu zerua eta lurra.

⁷ Gizagaixoa hautsetatik altxatzen du,
behartsua simaurretatik ateratzen,

⁸ eta handikien artean,
bere herriko nagusien artean jartzen.

⁹ Emakume agorrari ohore egiten dio etxean,
haurrak eman eta ama zoriontsu egiten.

114 (113 A). Salmoa
Lurra Jaunaren presentzian dantzatzen da

- ¹ Israel Egiptotik irten ondoren,
Jakoben herria erbestetik,
- ² Jaunaren santutegi bihurtu zen Juda,
haren jabetza Israel.
- ³ Jainkoa ikustean itsasoak ihes,
Jordanek atzera egin zuen.
- ⁴ Mendiek salto, ahariak bezala,
eta muinoek arkumeeek bezala.
- ⁵ Zer zenuen, itsaso, ihesi?
Eta zuk, Jordan, atzeraka?
- ⁶ Zer zenuten saltoka mendiok,
ahariak bezala?
- ⁷ Lurra Jainkoaren aurrean dantzatzen da,
herri guztien Jainkoaren aurrean.
- ⁸ Haitza urtegi bihurtu zuen,
sukarria iturburu.

115 (114). Salmoa
Guk Jauna bedeinkatzen dugu

- ¹ Guregatik ez, Jauna, guregatik ez,
baizik zeure izenaren ohoregatik,
erakutsi zeure ospea, zeure leialtasun eta maitasunagatik.
- ² Zergatik esan behar dute federik gabeko jendeek
“Non dute Jainkoa”?
- ³ Gure Jainkoa zeruan dago
eta nahi duen guztia egiten du.
- ⁴ Haien idoloak, berriz, zilar eta urre dira,
gizakien eskulan.
- ⁵ Ahoa bai, baina hitzik ez dute,
begiak bai, eta ikusten ez.
- ⁶ Belarriak bai eta entzuten ez,
sudurra bai eta usaintzen ez.
- ⁷ Eskuak bai, eta ukitzen ez, oinak bai,
eta ez dira ibiltzen,
eztarrarian hotsik atera ezin.
- ⁸ Antzekoak dira gurtzen dituztenak,
haiengan konfiantza dutenak.
- ⁹ Jainkoaren herriak Jaunagan du konfiantza,
bera dute laguntzaile eta babesle.
- ¹⁰ Jaunaren bila dabiltzanak, haiengan dute konfiantza,
bera dute laguntzaile eta babesle.
- ¹¹ Jaunari begirune diozuenok,
Jaunari begirune diogunok,
huraxe dugu laguntzaile eta babesle.
- ¹² Jauna oroitzen da eta bedeinkatzen gaitu,
bere herri osoa bedeinkatzen du
bere lagun guztiak bedeinkatzen ditu.
- ¹³ Guztiak bedeinkatzen ditu berdin-berdin,
gizon nahiz emakume, txiki eta handi.
- ¹⁴ Ugal zaitzatela Jaunak,
zuek eta zuen seme-alabak.
- ¹⁵ Bedeinka zaitzatela Jaunak,
zeru-lurren egileak.
- ¹⁶ Unibertso osoa Jaunaren etxea da,
eta lurra gizakien esku utzi du.
- ¹⁷ Hildakoak Jaunagan bizi dira,
betieran gurtzen dute.
- ¹⁸ Guk ere goresten dugu Jauna,
orain eta beti.

116 (115). Salmoa
Jaunak konplitu egiten du zurekin

- ¹ Maite dut Jauna entzun egin duelako nire erregu-oihua,
² belarria makurtzen duelako dei egiten diodanean.
- ³ Herio lokarriek estutu ninduten,
Herio Leizearen mandatariek atzeman;
estu eta larri nintzen.
- ⁴ Baina Jaunari dei egin nion:
"Arren, Jauna, libra nazazu".
- ⁵ Errukiorra eta zintzoa da Jauna,
gupidatsua gure Jainkoa.
- ⁶ Jaunak zaintzen ditu xumeak, ahulak,
lur jorik nengoen eta salbatu egin nau.
- ⁷ Zaude berriro bakean, ene arima,
ona izan baita zurekin Jauna.
- ⁸ Libratu dit bizia heriotzatik,
begiak negarretik,
oinak erortzetik.
- ⁹ Jaunaren aurrean ibiliko naiz, beraz, bizien lurraldean.
- ¹⁰ Sendo nengoen fedean,
"Bai zoritxarreko naizela" esatean ere.
- ¹¹ Kinka larrian pentsatu nuen:
"Ez dago inor fidagarririk"
- ¹² Nola ordainduko diot Jaunari
egin didan on guztia?
- ¹³ Kopa altxatuko dut salbamenagatik esker onez,
Jaunari dei eginez.
- ¹⁴ Beteko dizkiot Jaunari promesak,
herri osoaren aurrean.
- ¹⁵ Mingarri zaio Jaunari,
bere fededunen heriotza.
- ¹⁶ Bai, zure zerbitzari naiz, Jauna,
zure zerbitzari apal:
askatu dituzu nire lokarriak.
- ¹⁷ Gorespen opariak eskainiko dizkiot, Jaunari dei eginez.
- ¹⁸ Beteko dizkiot Jaunari promesak, herri osoaren aurrean,
Jaunaren etxeko atarietan,
zukan, Bakearen Hirian.

117 (116). Salmoa
Maitasuna eta leialtasuna

Aleluia!

¹ Goretsazue Jauna, nazio guztiok,
ospa ezazue herri guztiok.

² Sendoa da guretzat haren maitasuna,
beti-betikoa Jaunaren leialtasuna.

Aleluia! Gora Jauna!

118 (117). Salmoa
Hau Jainkoaren egintza izan da

Aleluia!

- ¹ *Goretsazue Jauna, ona baita,
haren maitasuna betikoa baita.*
- ² Esan bezate herri guztiek:
“Haren maitasuna betikoa!”
- ³ Esan bezate Jaunari begirune diotenek:
“Haren maitasuna, betikoa da”
- ⁴ Esan bezate Jaunaren bila dabilzanek:
“Haren maitasuna, betikoa da”.
- ⁵ Estualdian Jaunari nion dei egin,
eta lasaibide eman ez erantzun zidan.
- ⁶ Jauna nire alde, ez naiz beldur,
zer egin dezake nire kontra gizakiak?
- ⁷ Jauna nire alde, nire sendogarri,
gaitzak ezingo nau menderatu.
- ⁸ Hobe da Jaunarengan babestea,
gizakiaz fidatzea baino.
- ⁹ Hobe da Jaunarengan babestea,
handikiez fidatzea baino.
- ¹⁰ Errukirik gabeko jendeek inguratzen ninduten,
Jaunaren izenean uxatu nituen.
- ¹¹ Inguratu ninduten, inguratu,
Jaunari esker uxatu nituen.
- ¹² Liztorrek bezala inguratu ninduten,
sua sastrakan bezala, zirtaka.
Jaunari esker uxatu nituen.
- ¹³ Gogor bultzatu ninduten botatzeko,
baina Jaunak lagun egin zidan.
- ¹⁴ Jauna dut indar eta babes,
bera salbatzaile.
- ¹⁵ Poz eta garaipen oihuak dira
jende zintzoaren etxoletan.
“Jaunaren eskua, garaile,
- ¹⁶ aparta da Jaunaren eskua,
Jaunaren eskua, garaile”

¹⁷ Ez, ez naiz hilko, biziko baino
Jaunaren egintzak kontatzeko.
¹⁸ Jaunak eutsi zidan atsekabeen,
ez zuen utzi heriotzak erantsi nintzan.

¹⁹ Zabaldu niri garaileen atea,
eta Jaunari eskerrak emanaz sartuko naiz.
²⁰ Hona hemen Jaunaren atea,
sar bitez hemendik garaileak.
²¹ Eskerrak Jauna, entzun didazulako,
nire salbatzaile izan zarelako.

²² Etxegileek baztertuko harria
giltzarri gertatu da.
²³ Jaunak egin du hori,
gure begien harrigarri.
²⁴ Hauxe da Jaunaren ekintza eguna,
alai gaitezen eta poztu berarengan.

²⁵ Oi Jauna, zu bakarrik zara gure salbamena.
Oi Jauna, zu bakarrik gure arrakasta.
²⁶ Bedeinkatua Jaunaren etxera sartzen dena,
Jaunaren etxetik bedeinkatzen zaitugu.
²⁷ Jauna Jainkoa da, berak argitzen gaitu.

Egin prozesioa, abarrak eskuetan aldarearen ertzetaraino.

²⁸ Zu, nire Jainko, eskerrak zuri,
ene Jainko, gora zu!

²⁹ *Goretsazue Jauna, ona baita,
haren maitasuna betikoa baita.*

119 (118). Salmoa
Atsegin dut zure aginduetan

I

- ¹ Zorionekoak erabat zintzo jokatzen dutenak,
Jaunaren legean dabiltzanak.
- ² Zorionekoak, haren xedapenak betez,
bihotz-bihotzez harengana jotzen dutenak.
- ³ Bidegabekeriarik egin gabe
haren bideetan dabiltzanak.
- ⁴ Jauna, zeure legeak ezarri dituzu,
arretaz bete ditzagun.
- ⁵ Eman ditzadala urratsak tinko,
zure arauak gordetzeko.
- ⁶ Orduan ez naiz lotsa izango
zure agindu guztiei begira.
- ⁷ Bihotz zintzoz goretsiko zaitut,
zure erabaki zuzenak ikasiz.
- ⁸ Zure arauak nahi ditut gorde:
ez nazazu inoiz eskutik utz!

II

- ⁹ Nola gorde dezake gazteak bere burua garbi?
Bere bizimodu zure hitzera egokituz.
- ¹⁰ Bihotz-bihotzez nabilkizu bila,
ez utzi zure aginduetatik saihesten.
- ¹¹ Gogoan jasotzen dut hitzemaña,
zure aurka bekatu ez egiteko.
- ¹² Bedeinkatua zu, Jauna,
irakats niri zure aginduak.
- ¹³ Neure ahotsez iragartzen ditut
zuk emaniko erabaki guztiak.
- ¹⁴ Zure xedapenei jarraitzea niretzat pozgarriago
aberastasun handienak baino.
- ¹⁵ Zure legeak nahi ditut hausnartu
zure bideak begien aurrean eduki.
- ¹⁶ Zure arauak ditut gozamen,
zure hitzak ez ditut ahanzten.

III

- ¹⁷ Egiozu on zure zerbitzari honi: biziko naiz
eta zure hitza gordeko dut.
- ¹⁸ Ireki nire begiak, ikus ahal ditzadan
zure legearen dohain harrigarriak.
- ¹⁹ Atzerritar naiz munduan,
ez ezkutatu niri zure aginduak.
- ²⁰ Akiturik ditut barne indarrak,
zure erabakien etengabeko irrikaz.
- ²¹ Agiraka egiten diezu harroputz madarikatuei,
goza dezaten zure aginduekin.
- ²² Iraina eta mespretxua ez ditut axola
baldin eta betetzen badituz zure xedapenak.
- ²³ Nahiz eta jauntxoak nire aurka hitzartu,
zerbitzari honek zure arauak hausnartzen ditu.
- ²⁴ Bai, zure xedapenak ditut gozamen,
horiek kontseilari.

IV

- ²⁵ Lur jorik nago:
biziberri nazazu zure promesaren arabera.
- ²⁶ Neure bizitzaren berri eman dizut eta erantzun egin didazu,
niri zure arauak irakatsiz.
- ²⁷ Ulertarazi niri zure legeen bidea,
eta zure dohain harrigarriak hausnartuko ditut.
- ²⁸ Erortzen ari naiz nahigabez ahuldurik,
jaso nazazu zeure promesaren arabera.
- ²⁹ Aldendu niregandik jokabide maltzurra
eta emadazu zeure legea dohain.
- ³⁰ Leialtasunaren bidea aukeratu dut,
paregabetzat jotzen dituz zure erabakiak.
- ³¹ Zure xedapenei loturik nago:
Jauna, ez ni lotsagarri utzi.
- ³² Zure aginduen bidetik lehiatuko naiz,
barrua lasaitzen didazunez gero.

V

- ³³ Erakutsi niri, Jauna, zeure arauen bidea,
horri jarraitzea izango dut sari.
- ³⁴ Ulertarazi zeure legea, eta gordeko dut,
bihotz-bihotzez beteko.
- ³⁵ Gida nazazu zeure aginduen bidetik,
hori baitut atsegin.
- ³⁶ Makurtu nire gogoa zeure xedapenetara,
eta ez beste irabazirik desiratzera.
- ³⁷ Urrundu nire begiek huskerietatik,
emadazu bizia zeure indarrez.
- ³⁸ Bete zerbitzari honi zeure promesa,
begirune dizutenei egina.
- ³⁹ Baztertu niregandik iraina, beldur baitiot,
zure erabakiak bakarrik dira on.
- ⁴⁰ Begira zure legeak nola irrikatzen ditudan,
zuzena zara, biziberri nazazu.

VI

- ⁴¹ Atzeman nazala, Jauna, zure onginahiak,
zure salbazioak, hitzeman duzunez.
- ⁴² Izango dut orduan iraintzaileari zer erantzun,
zure hitzaz fidatzen bainaiz.
- ⁴³ Nire mintzoa izan dadila beti egiazkoa,
zure erabakietan baitut itxarobidea.
- ⁴⁴ Etengabe jarraituko diot zure legeari,
beti eta beti.
- ⁴⁵ Bide zabaletik ibiliko naiz,
zure legeak aztertzen saiatuz.
- ⁴⁶ Zure legeak erregeen aurrean azalduko ditut
lotsarik gabe.
- ⁴⁷ Zure aginduetan gozatuko naiz,
hain maite ditudan aginduetan.
- ⁴⁸ Agindu maitagarri horiek ditut besarkatzen,
zure aginduak darabilzkit gogoan.

VII

- ⁴⁹ Gogora dezadala, zure lagunari emaniko hitza,
horixe egin duzu nire itxarobide.
- ⁵⁰ Horixe dut kontsolamendu atsekabeen,
zure promesak bainau biziberritzen.
- ⁵¹ Harropuzek gogor egin didate iseka,
baina ni ez naiz zure legetik saihestu.
- ⁵² Antzineko zure legeak gogoratzean,
erabat kontsolatzen naiz, Jauna.
- ⁵³ Haserre-sutan jartzen naiz gaiztakeriagatik,
zure legea bazter uzten dutenengatik.
- ⁵⁴ Zure aginduak kantu dira niretzat
nire erromesaldian.
- ⁵⁵ Gaez ere zure izena dut gogoan,
Jauna, beila-orduetan zure irakaspena.
- ⁵⁶ Hona niri dagokidana:
zure legeak betetzea.

VIII

- ⁵⁷ Jauna, ene ondasun bakar,
erabakia dut zure hitzak gordetzea.
- ⁵⁸ Bihotz-bihotzez bilatzen dut zure mesedea,
erruki nitaz hitzemaña duzunez.
- ⁵⁹ Aztertu dut neure jokabidea,
eta neure pausoak zure xedapenetara nahi ditut bideratu.
- ⁶⁰ Gogotik lehiatzen naiz, zabarkeriarik gabe
zure aginduak gordetzen.
- ⁶¹ Gaiztoek lakioz inguratu nauten arren,
ez dut zure irakaspena ahaztu.
- ⁶² Gauerdian jaikitzen naiz zu gorestera,
zure erabakiak zuzenak direlako.
- ⁶³ Begirune dizuten guztien lagun naiz,
zure legeak betetzen dituztenen lagun.
- ⁶⁴ Jauna, zure maitasunaz beterik dago mundua!
Irakatsi niri zeure arauak.

IX

- ⁶⁵ On egin diozu zeure zerbitzari honi,
Jauna, zure promesaren arabera.
- ⁶⁶ Irakatsi niri ongi bereizten eta ezagutzen,
zure aginduez fidatzen bainaiz.
- ⁶⁷ Atsekabetua izan aurretik, desbideraturik nenbilen,
orain, ordea, zure esana dut betetzen.
- ⁶⁸ Ona zara zu eta ongilea,
irakatsi niri zure arauak.
- ⁶⁹ Gezurrez josten naute harroputzek,
nik bihotz-bihotzez betetzen ditut zure legeak.
- ⁷⁰ Harria bezain gogorra dute bihotza,
nik zure irakaspena dut gozamen.
- ⁷¹ Beharrezkoa nuen atsekabetua izatea,
zure arauak ikasteko.
- ⁷² Zein ona niretzat zure irakaspena!
Urre-zilarrezko milaka txanpon baino baliotsuagoa!

X

- ⁷³ Zure eskuek egin ninduten eta eratu,
emadazu adimena, zure aginduak ikas ditzadan.
- ⁷⁴ Poztu egingo dira ni ikusiaz
zure hitzan jarria dudalako itxaropena.
- ⁷⁵ Badakit zuzena zarela, Jauna, zure erabakietan,
leiala zarela atsekabetu nauzula.
- ⁷⁶ Arren, kontsola nazazu zeure maitasunez,
zeure zerbitzari honi hitz eman diozunez.
- ⁷⁷ Zatozkit zeure gupidez, biziberri nadin,
zure irakaspena baitut gozamen.
- ⁷⁸ Geldi bitez lotsaturik engainuz okertu gura nauten harroputzak,
nik zure legeak ditu hausnartzen.
- ⁷⁹ Betozkit, Jauna, zure esaneko direnak,
ezagutu ahal ditzaten zure xedapenak.
- ⁸⁰ Bego nire gogoan zure arauak erabat emana,
ez dut horrela lotsarik izango.

XI

- ⁸¹ Urtzen daukak barrena zure salbazioaren irrikaz,
zure hitzaren zain nago.
- ⁸² Begiak erreak ditut zuk hitzemanaren zain,
noiz kontsolatuko nauzu?
- ⁸³ Larru zahar zimurra bezala nago,
ez ditut, ordea, zure arauak ahaztu.
- ⁸⁴ Zenbat egunez bizi naiteke oraindik?
Noiz sentituko dira nire pertsegitzaileak zuk erakarrita?
- ⁸⁵ Harropuztekin zuloak egin dizkidate bidean,
zure legea aintzat hartu gabe?
- ⁸⁶ Fidagarriak dira zure agindu guztiak,
maltzurkeriaz pertsegitzen naute, zatozkit laguntzera.
- ⁸⁷ Ia garbitu ninduten lurretik,
baina nik ez nituen zure legeak bazter utzi.
- ⁸⁸ Babestu nire bizia zure maitasunez,
beteko ditut zuk emaniko xedapenak.

XII

- ⁸⁹ Zure hitza, Jauna, betierekoa da,
zerua baino iraunkorragoa.
- ⁹⁰ Zure leialtasunak belaunez belaun dirau,
zuk finkatu duzun lurra baino areago.
- ⁹¹ Gaurdaino diraute zure erabakiek,
gauza guztiak menpeko baitituzu.
- ⁹² Zure irakaspena izan ez banu gozamen,
honezkero galdua nintzatekeen atsekabez.
- ⁹³ Ez ditut, ez, zure legeak sekula ahaztuko,
horien bidez bainauzu biziarazten.
- ⁹⁴ Zeurea nauzu, salba nazazu,
zure legeen bila saiatzen naiz eta.
- ⁹⁵ Gaiztoak zelatan zegozkidan ni galtzeko,
baina ni erne nengoen zure xedapenetara.
- ⁹⁶ Gauzarik bikainenak ere badu bere muga,
zure agindua bakarrik mugagabea.

XIII

- ⁹⁷ Bai dudala maite zure irakaspena!
Bera dut hausnargai egun osoan.
- ⁹⁸ Zure aginduak etsaiak baino zuhurrago egiten nau,
neurekin baitut aldioro.
- ⁹⁹ Nire irakasle guztiak baino argiago naiz,
zure xedapenak hausnartzen ditudalako.
- ¹⁰⁰ Zaharrak baino trebeago naiz ulertzen,
zure legeak gordetzen ditudalako.
- ¹⁰¹ Ez naiz inolako bide txarretatik abiatzen,
zure hitza gordetzearren.
- ¹⁰² Ez naiz zure erabakietatik aldentzen,
zeuk baitidazu irakasten.
- ¹⁰³ A zein gozoa zuk hitzemanana,
eztia ahorako baino gozoagoa.
- ¹⁰⁴ Zure legeek egiten naute ulertzeko gai,
horregatik gorroto dut jokabide maltzur oro.

XIV

- ¹⁰⁵ Nire pausoentzat kriseilu da zure hitza,
nire biderako argi.
- ¹⁰⁶ Zin egin dut eta tinko nago,
zure erabaki zuzenak gordetzeko asmoan.
- ¹⁰⁷ Biziki atsekabeturik nago, Jauna,
babestu nire bizia, zure promesaren arabera.
- ¹⁰⁸ Har itzazu onez, Jauna, nire otoitzak
eta ezagutarazi niri zeure erabakiak.
- ¹⁰⁹ Nire bizia beti arriskuan dagoen arren,
ez dut zure irakaspena ahazten.
- ¹¹⁰ Gaiztoek tranpa jarri didate,
ni, ordea, ez naiz zure legeetatik okertu.
- ¹¹¹ Zure xedapenak dira nire ondare betiko,
beraiek baitidate barrua pozten.
- ¹¹² Zure arauak betetzera makurtzen dut gogoan,
nire sari dira betiko.

XV

- ¹¹³ Fede gaiztokoak ditut gorroto,
eta zure irakaspena maite.
- ¹¹⁴ Zu zaitut ene gordeleku eta babes,
zure hitza ere itxaropen.
- ¹¹⁵ Alde niregandik gaizkileok,
nire Jainkoaren aginduak bete ahal ditzadan.
- ¹¹⁶ Eutsi niri zuk hitzeman bezala, eta biziko naiz,
ez dakidala neure esperantza huts gerta.
- ¹¹⁷ Emadazu eskua eta salbatuko naiz,
begi aurrean izango ditut beti zure arauak.
- ¹¹⁸ Ez abandonatu zure borondatek urruntzen direnak ere,
gezur huts baitira horien egitasmoak.
- ¹¹⁹ Ez dituzu uzten gaizkileak ere,
eta horregatik maite ditut zure xedapenak.
- ¹²⁰ Dardara dagit zure beldur-ikaraz
eta begirune diet zure erabakiei.

XVI

- ¹²¹ Zuzenbidez eta justiziaz jokatu dut,
ez utzi ni zapaltzaileen esku.
- ¹²² Segurtatu onbidean zeure zerbitzari hau,
ez nazaten harropuztekin zapal.
- ¹²³ Erreak ditut begiak zure salbazioaren zain,
zuk hitzemaniko justiziaren zain.
- ¹²⁴ Jokatu zeure zerbitzari honekin,
zure maitasunari dagokionez, irakatsi niri zeure arauak!
- ¹²⁵ Zeure zerbitzari nauzu, emadazu adimena,
zure xedapenak ezagut ditzadan.
- ¹²⁶ Ekin, Jauna, ordua da,
zure legea hautsi egin dute.
- ¹²⁷ Nik, ordea maite ditut zure aginduak,
urrerik finena baino maiteago.
- ¹²⁸ Zuzen-zuzenak iruditzen zaizkit zure xedapen guztiak,
eta gorroto diot jokabide maltzur orori.

XVII

- ¹²⁹ Harrigarriak dira zure xedapenak,
horregatik ditut gogoan gordetzen.
- ¹³⁰ Azaldu zeure hitz argigarriak,
eman ulermena helgabeei.
- ¹³¹ Ahoa zabalik nago desiraz,
zure aginduen irrika biziz.
- ¹³² Itzul niregana eta erruki zakizkit,
zure izena maite dutenekin ohi bezala.
- ¹³³ Sendo beza zuk hitzemanak nire ibilbidea,
ez nazala inolako txarkeriak mendera.
- ¹³⁴ Aska nazazu zapaltzaileen eskutik,
eta beteko ditut zure legeak.
- ¹³⁵ Erakutsi aurpegi argia zeure zerbitzari honi,
irakatsi niri zeure arauak.
- ¹³⁶ Ene begiek malko-errekak isurtzen dituzte,
zure irakaspenari jarraitzen ez diotenengatik.

XVIII

- ¹³⁷ Zintzoa zara, Jauna,
zuzena zeure erabakietan.
- ¹³⁸ Xedapen zuzenak ezarri dituzu,
zeharo fidagarriak.
- ¹³⁹ Maitasun-garrak erretzen nau,
nire etsaiak zure hitzaz ahazten direlako.
- ¹⁴⁰ Ongi egiaztatua da zuk hitzemanana,
maite du, bai, zeure zerbitzari honek.
- ¹⁴¹ Txikia naizen arren, eta mespretxatua,
ez ditut zure legeak ahazten.
- ¹⁴² Zure justizia behin betiko justizia da,
zure irakaspenera, fidagarria.
- ¹⁴³ Larriak eta zoritxarrak jota nagoelarik ere,
gozamen ditut zure aginduak.
- ¹⁴⁴ Zure xedapenak behin betiko zuzenak,
ulertarazi haiek niri eta biziko naiz.

XIX

- ¹⁴⁵ Bihotz-bihotzez egiten dizut dei,
erantzun, Jauna, eta gordeko ditut zure arauak.
- ¹⁴⁶ Dei degizut, salba nazazu,
eta beteko ditut zure xedapenak.
- ¹⁴⁷ Eguna argitu baino lehen, deiadar degizut laguntza eske.
Zure promesetan dut itxaropen.
- ¹⁴⁸ Gaubeilan zuregana zuzentzen ditut begiak,
zuk hitzemanana hausnartuz.
- ¹⁴⁹ Entzun nire ahotsa zeure maitasunez,
Jauna, biziberri nazazu, erabaki duzun bezala.
- ¹⁵⁰ Asmo txarrez pertsegitzen nautenak hurbiltzen ari zaizkit,
urrun dira zure legetik.
- ¹⁵¹ Baina hurbil, zu zaitut nik, Jauna,
zure agindu guztiak fidagarriak dira.
- ¹⁵² Aspalditik ezagutzen ditut zure xedapenak,
betidanik baitituzu ezarriak.

XX

- ¹⁵³ Jauna, begira nire atsekabeari eta libra nazazu,
ez baitut irakaspena ahaztu.
- ¹⁵⁴ Defendatu nire auzia eta aska nazazu,
babestu nire bizia zuk hitzemanaren arabera.
- ¹⁵⁵ Zure salbazioa heldu bedi gaiztoengana ere,
saia daitezen zure arauak bilatzen.
- ¹⁵⁶ Neurrigabe zara bihozbera, Jauna,
biziberri nazazu zeure erabakien arabera.
- ¹⁵⁷ Asko dira pertsegitzen nauten etsaiak,
ez naiz, hala ere zure xedapenetatik okertzen.
- ¹⁵⁸ Desleialak ikusi eta nazka ematen didate,
ez dute zuk hitzemanana gogoan hartzen.
- ¹⁵⁹ Ikusi zein maite ditudan zure legeak,
biziberri nazazu zeure maitasunez.
- ¹⁶⁰ Zure hitzaren funtsa leialtasuna da,
zure betiko erabakien muina justizia.

XXI

- ¹⁶¹ Jauntxoek arrazoirik gabe pertsegitzen naute,
baina nire bihotzak errespetatu egiten ditu zure hitzak.
- ¹⁶² Pozik nago zuk hitzemanagatik,
altxor galanta aurkitu duena baino pozikago.
- ¹⁶³ Gorroto eta higuin diot maltzurkeriari,
zure irakaspina dut maite.
- ¹⁶⁴ Egunean zazpi aldiz gorai patzen zaitut,
zure erabaki zuzenagatik.
- ¹⁶⁵ Bake-bakean bizi dira zure legea maite dutenek,
ez da ezer eroraraz ditzakeenik.
- ¹⁶⁶ Zure salbazioa espero dut, Jauna,
eta zure aginduak ditut betetzen.
- ¹⁶⁷ Gogoan hartzen ditut zure xedapenak
eta biziki maite.
- ¹⁶⁸ Betetzen ditut zure legea eta xedapenak,
begi aurrean dituzu nire ibilbide guztiak.

XXII

- ¹⁶⁹ Hel bedi zureganaino, Jauna, nire deiadarra,
egin nazazu ulertzeko gai, zeure promesaren arabera.
- ¹⁷⁰ Irits dadila zure aitzinera nire erregua,
libra nazazu, zuk hitzeman bezala.
- ¹⁷¹ Isur bezate nire ezpainen zure gorespina,
zeure arauak irakatsi baitizkidazu.
- ¹⁷² Iragar beza nire mihiak behin eta berriz zure promesa,
zuzenak baitira zuk agindu guztiak.
- ¹⁷³ Luza eskua niri laguntzeko,
zure legeak aukeratu ditudanez gero.
- ¹⁷⁴ Zure salbazioaren irrikaz nago, Jauna,
eta zure irakaspina dut gozamen.
- ¹⁷⁵ Bizi nadila luzaro zu goresteko,
lagun diezadatela zure erabakiek.
- ¹⁷⁶ Ardi galduaren bila desbideratuko banintz,
bilatu zuk zure zerbitzari hau,
ez baititut zure aginduak ahazten.

120 (119). Salmoa

Bakeaz mintzatzen banaiz, haiek nahiago dute gerra

- ¹ Larrialdian Jaunari egin nion dei
eta hark erantzun.
- ² Jauna, zuk bakarrik libra dezakezu nire bizia
ezpain gezurtietatik, mihi maltzurretik.
- ³ Zein gogor zigortuko zaituen Jaunak,
mihi maltzur hori.
- ⁴ Gudari-gezi zorrotzen ipuru ikatz gorien
antzeko zaren hori.
- ⁵ Ai ene! Hobe nuen atzerrian bizi izan banintz,
eta ez indarkeria zaleen oihal etxoletan!
- ⁶ Luzaroegi bizi izan naiz hemen
bakea gorroto dutenekin.
- ⁷ Ni bakeaz mintzo banaiz,
haiek nahiago dute gerra.

121 (120). Salmoa
Bera da zure biziaren zaintzailea

- ¹ Begiak mendietara ditut jasotzen,
nondik etorriko ote zait laguntza.
- ² Jaunarengandik datorkit laguntza,
zeru-lurrak egin zituenagandik.
- ³ Jaunak ez zaitu erortzen utziko,
zure zaintzailea ez dago lo.
- ⁴ Ez, ez du sekula lorik egiten
herri guztien zaintzaileak.
- ⁵ Jauna duzu zaintzaile,
Jauna gerizpe, alboan duzu beti.
- ⁶ Ez dizu kalterik egingo eguzkiak egunez,
ez ilargiak ere gauez.
- ⁷ Jaunak zainduko zaitu gaitz orotatik,
berak zuri bizia zainduko.
- ⁸ Jaunak zainduko ditu zure ibilera guztiak,
oraindanik eta betiko.

122 (121). Salmoa
Bakearen hiriagatik bihotz mina

- ¹ Hura poza nirea esan zidatenean:
"Goazen Jaunaren etxera".
- ² Hona orain nire oinak geldi zure ateetan,
Jerusalem, Bakearen Hiria.
- ³ Jerusalem, Jainkoak eraikitako hiria,
den-dena harmonia zoragarrian.
- ⁴ Horra igo behar dute leinuek, Jaunaren leinuek,
herrian lege denez, Jaunaren izena gorestera.
- ⁵ Hortxe baitaude justizia epaitegiak,
pobreek espero dutenaren aulkia.
- ⁶ Opa biezaiote bakea Jerusalemi:
lasai bizi bitez maite zaituztenak!
- ⁷ Bakea izan bedi zure harresi barruan,
lasaitasuna bertan bizi direnen etxeetan.
- ⁸ Neure senide eta lagun en izenean ere,
hauxe diot gartxuki: "Bakea zurekin"
- ⁹ Jaunaren, gure Jainkoaren, etxearengatik
zoriona eskatzen dut zuretzat.

123 (122). Salmoa
Uste ona beti haren maitasunean jarrita

- ¹ Begiak zuregana jasoak ditut,
nire sostengua zaren horrengana.
- ² Nola maitale baten begiak
maitearen begietara,
maitearen begiak
maitalearengana jasota dauden,
halaxe daude gure begiak Jaunarengana,
gure Jainkoarengana,
haren maitasunean jarrita konfiantza.
- ³ Nola irrikatzen dugun, Jauna, zure maitasuna!
zinez gaude haren premian,
buruz gain baikaude mespretxuz.
- ⁴ Buruzgain ustetsuen burlaz,
harroen mespretxuz.

124 (123). Salmoa
Jauna gurekin egon ez balitz...

- ¹ Jauna gure alde egon ez balitz
–esan beza bere herriak–,
- ² Jauna gure alde izan ez balitz,
etsaiek eraso zigutenean,
- ³ bizi-bizirik irentsiko gintuzketen:
hain haserre-suminduak zeuden gure kontra,
- ⁴ Urek amilka eramango gintuzketen,
uholdeek hondoratuko.
- ⁵ Hondoratu egingo gintuzketen
ur oldartsuek.
- ⁶ Bedeinkatua Jauna, haien hortzen harrapakin egin ez gaituena!
- ⁷ Txoriak ehiztarien tranpatik bezala gara libratu:
tranpa hautsi egin da eta gu libre gelditu gara.
- ⁸ Jauna dugu laguntzaile, zeru lurren egilea.

125 (124). Salmoa
Bakea herri guztientzat

- ¹ Jaunarengan konfiantza dutenak
mendi santuaren antzeko dira
sekula kolakarik egin gabe.
- ² Bakearen Hiria, mendiek inguratua,
hala du Jaunak bere herria inguratzen,
oraindik eta betiko.
- ³ Gaiztoen aginpideak ez du iraungo
Jaunak zintzoei emandako lurraldean,
zintzoak ere has ez daitezen bidegabekeria egiten.
- ⁴ Jaunak on egiten die zintzoei,
bihotz zuzenekoei.
- ⁵ Baina bide okerretik doazenekin ez du ezikusiarena egiten,
inoiz ez die ukatuko bere maitasuna.

Bakea herri guztientzat!

126 (125). Salmoa
Ahoa barrez beteta

- ¹ Jaunak bere herriko gatibuak etxeratu zituenean,
ametsetan ginela iruditzen zitzaigun.
² Barrez bete zitzaigun ahoa, poz-oihuz ezpainak.

Atzerritarrek ziotsaten:

Bikain jokatu du haien alde Jaunak.

- ³ Bikain jokatu du gure alde Jaunak
eta pozarren gaude.
⁴ Bildu bitza Jaunak gure gatibuak,
izan bitez basamortuko errekek bezala.

- ⁵ Malkotan erein zutenak
pozetan dute biltzen.
⁶ Negarretan joan ziren,
hazi zorroa eramanez,
kantari datoz
gari-balak ekarriz.

127 (126). Salmoa
Jaunak etxea eraikitzen ez badu...

- ¹ Etxea Jaunak eraikitzen ez badu,
alferrik ari dira etxegileak.
Hiria Jaunak zaintzen ez badu,
alferrik daude erne hirizainak.
- ² Alferrik duzue goizean goiz jaiki
eta berandu oheratzea,
nekearen nekez ogia irabaztea;
bere adiskideei lotan daudela ematen die Jaunak.
- ³ Hara, seme-alabak dituzu Jaunaren ondare,
sabeleko fruitua harengandiko sari.
- ⁴ Neguko eguzki izpiak bezala dira
gaztetako seme-alabak.
- ⁵ Zorionekoa haiekin bere egunak aberasten dituen familia!
Ez du porrot egingo larrialdian,
senidetasunaren alde lehiatzen denean.

128 (127). Salmoa
Jaunaren bideetatik

- ¹ Zorionekoa Jaunari begirune diona,
eta haren bidetik dabilena.
- ² Zeure lanaren fruituaz biziko zara
eta zoriontsu izango, dena ongi zaizu joango.
- ³ Zuen maitasuna, mahatsondo emankorren modura
zuen etxe barruan.
Zuen seme-alabak, olibondo kimuak bezala
zuen mahai inguruan.
- ⁴ Horra Jaunari begirune dionarentzat
zer bedeinkazioa!
- ⁵ Bedeinka zaitzala Jaunak herrian,
ikus dezazula joritasuna Bakearen Hirian,
bizitza osoan.
- ⁶ Goza ditzazula zeure haurren haurrak.

Bakea herri guztiei!

129 (128). Salmoa
Nire bizkarra goldatu zuten goldelariak

- ¹ Zenbat gerra egin didaten gaztedanik
–aitor dezake Jainkoaren herriak–.
- ² Zenbat gerra egin didaten gaztedanik,
baina ez didate gaina hartu.
- ³ Goldeaz lurra bezala urratu didate bizkarra,
golde arrasto luzeak eginez.
- ⁴ Baina Jaunak, zuzena baita,
hautsi egin du gaiztoen uztarria.
- ⁵ A zer pena justiziari uko egiten diotenen zoria,
⁶ teilatuko belarraren antzeko dira.
Ebaki aurretik ihartzen da.
- ⁷ Ez du egiten harekin igitariak eskutadarik,
ez biltzaileak besakadarik.
- ⁸ Ez du inork esaten, ondotik pasatzean:
“Bedeinka zaitzatela Jaunak!”

Jaunaren izenean bedeinkatzen zaituztegu.

130 (129). Salmoa
Egunsentiaren zain dagoen beilariak baino gehiago

- ¹ Barru-barrutik egiten dizut dei, Jauna,
² entzun, Jauna, nire mintzoa!
Beude erne zeure belarriak nire erregu oihura.
- ³ Erruak kontuan badituzu, Jauna,
nork iraun bizirik?
- ⁴ Baina zuri barkamena dagokizu
eta, barkatuz, zeureganako begirunea pizten diguzu.
- ⁵ Jaunaren zain nago, zain bihotz-bihotzez,
haren erantzuna dut itxaro.
- ⁶ Jaunaren esperoan nago,
gau osoan esna, goiza arte beilari.
- ⁷ Izan beza herriak itxaropen Jaunarengan,
Jaunarena baita maitasuna,
Jaunarena askapen betea.
- ⁸ Berak askatuko du herria
erru guztietatik.

131 (130). Salmoa
Bake eta isiltasunean nago

- ¹ Jauna, nire bihotza ez da handi-min,
ez nire begiak gorazale.
Ez nabil gauza handien atzetik,
ez neurritz gainekoen atzetik.
- ² Isil eta bare dut barne-gogoa,
haurtxoa amaren altzoan bezala,
haurtxoa bezala dut barnean gogoa.
- ³ Izan itxaropen Jaunagan nire herri hori,
izan itxaropen oraindantik eta betiko!

132 (131). Salmoa
Mundu guztiak gozatuko du nire bedeinkazioarekin.

- ¹ Jauna, oroit zaitez Davidez,
oroitu haren neke guztiez,
- ² nola egin zion Jaunari zin,
gure Jainko indartsuari promes:
- ³ “Ez naiz etxapean sartuko,
ez ohean etzango,
- ⁴ ez dut begirik itxiko,
eta loak hartzen utziko.
- ⁵ Jaunari bizilekua aurkitu arte,
egoitza duina Jainkoaren pobreentzat”.
- ⁶ Bai, jakin genuen non nahiago duen bizitzea:
jende baztertuarenen artean aurkitu genuen.
- ⁷ Sar gaitezen bere egoitzan,
ahuspez gaitezen haren oin-aulki aurrean.
- ⁸ Jaiki Jauna, zatoz zure egon lekura,
zatoz bakez eta justiziaz inguratuta.
- ⁹ Jantz bitez zure apaizak salbamen indarrez,
ekin biezaiote poz-oihuka zure fededunek.
- ¹⁰ David zeure zerbitzariaren maitasunagatik,
ez zaitez aparta zeure herritik.
- ¹¹ Jaunak Davidi zin egin dio,
inoiz hautsiko ez duen hitza eman:
“Zure odoleko batek gidatuko du nire herria.
- ¹² Nire ituna
eta emango dizkiedan legeak gordetzen badituzte,
zure ondorengoak betiko izango dira
nire herriaren gidari”
- ¹³ Jaunak herriko behartsuak aukeratu baitzituen,
beraren egoitza gisa.
- ¹⁴ Hauxe izango dut beti neure egoitza,
hementxe biziko naiz, gogoko baitut.
- ¹⁵ Oparo bedeinkatuko ditut bertako biltegiak,
ogiz aseko behartsuak.
- ¹⁶ Festa jantziz jantziko ditut apaizak,
eta fededunek poz-oihuka ekingo diote.
- ¹⁷ Kimu indartsua sorraraziko diet nire zerbitzariei,
nik gantzutuentzat kriseilua piztuko.
- ¹⁸ Onartzen ez nauenari luzatuko diot nire maitasuna,
denek gozatuko dute nire bedeinkazioarekin.

133 (132). Salmoa
A zeinen gozo eta atsegingarria!

- ¹ Bai eder dela, bai gozo,
senideak elkaturik bizitzea.
- ² Gantzuketako olio bikaina bezala da,
buruan isuri eta bizarrean behera
gorputza graziaz eta freskotasunez betetzen duena.
- ³ Mendira jaisten den ihintza bezala,
herriaren egunsentiak freskatuz;
han ematen du Jaunak bedeinkazioa:
bizia betiko.

134 (133). Salmoa
Bedeinka ezazue, Jauna!

- ¹ Bedeinka ezazue Jauna,
Jaunaren zerbitzariok,
gaua beraren etxean igarotzen duzuen guztiok!
- ² Altxa eskuak haren presentziara
eta bedeinka Jauna.
- ³ Bedeinka zaitzate la herriaren bihotzetik, Jaunak,
zeru-lurrak egin zituenak.

135 (134). Salmoa
Bedeinkatua Jauna bere herrian!

¹ Aleluia! Aleluia!

Goretsazue Jaunaren izena,
goretsazue Jaunaren zerbitzariok.

² Jaunaren etxean,
gure Jainkoaren etxeko atarietan zaudetenok.

³ Goretsazue Jauna, ona baita,
kanta berari, maitagarria baita.

⁴ Jaunak Israel herriari lagundu baitio,
herri guztiekin egiten duen bezala.

⁵ Badakit, bai, handia dela Jauna,
jainko guztien aldean handia gure Jauna.

⁶ Nahi duen guztia egiten du Jaunak,
zeru eta lurrean, itsaso eta ozeanoetan.

⁷ Hodeiak zerumugan gora igoarazten ditu,
eraunsiak tximistaka leherrarazten
haizea bere gorde lekuetatik aterarazten.

⁸ Beti lagundu dio bere herriari,
lagundu zapaltzaileen aurkako borrokan.

⁹ Herria adoretu zuen bere Espirituarekin,
indartu egin zuen morrontzaren kontra.

¹⁰ Bere laguntzarekin herria askatu egin zen,
zapaltzailetatik;

¹¹ Jaunaren sostenguarekin libratu egin zen
akabatu nahi zutenen menpetik.

¹² Eta bizitzeko lurraldea lortu zuten,
oihal etxola jartzeko toki bat.

¹³ Jauna, zure izenak betiko dirau,
Zure oroitzapenak belaunez belaun.

¹⁴ Jaunak defendatzen baitu bere herria,
maite duenak atsegin du bere maitasunarekin.

¹⁵ Mundu honetako idoloak zilar eta urre dira,
gizakien eskulan.

¹⁶ Ahoa bai eta hitzik ez dute,
begiak bai eta ikusten ez.

¹⁷ Belarriak bai eta entzuten ez,
ez dute arnasarik ahoan.

¹⁸ Antzeko bihur bitez beraien egileak
eta beraietan konfiantza dutenak.

¹⁹ Jainkoaren herri, bedeinkatu Jauna,
Jaunaren apaizok, bedeinkatu Jauna,

²⁰ munduko fededun guztiok, bedeinkatu Jauna!
Jaunari begirune diozuenok, bedeinkatu Jauna.

²¹ Bedeinkatua izan bedi Jauna bere herrian,
Bakearen Hirian bizi dena.

136 (135). Salmoa
Haren maitasuna betikoa baita

- ¹ Eskerrak eman Jaunari, ona baita,
haren maitasuna betikoa baita.
- ² Eskerrak eman jainkoen Jainkoari,
haren maitasuna betikoa baita.
- ³ Eskerrak eman jaunen Jaunari,
haren maitasuna betikoa baita.
- ⁴ Bera bakarrik egintza miragarrien egile,
haren maitasuna betikoa baita.
- ⁵ Jakinduriaz egin du zerua,
haren maitasuna betikoa baita.
- ⁶ Uren gainean tinko ezarri lurra,
haren maitasuna betikoa baita.
- ⁷ Argizagi handiak egin ditu,
haren maitasuna betikoa baita.
- ⁸ Eguzkia, egunaren gain jartzeko,
haren maitasuna betikoa baita.
- ⁹ Ilargia eta izarrak gauaren gain jartzeko,
haren maitasuna betikoa baita.
- ¹⁰ Bere herriari lagundu zionari,
haren maitasuna betikoa baita.
- ¹¹ Eta indarra eman zion zapalkuntzaren aurka,
haren maitasuna betikoa baita.
- ¹² Ahalmen handiz, esku indartsuz,
haren maitasuna betikoa baita.
- ¹³ Bere herriari lagundu zionari estualdian,
haren maitasuna betikoa baita.
- ¹⁴ Askatasunera bultzatu zuen,
haren maitasuna betikoa baita.
- ¹⁵ Eta indartu egin zuen etsaiaren aurka,
haren maitasuna betikoa baita.
- ¹⁶ Basamortuan zehar gidatu zuen bere herria,
haren maitasuna betikoa baita.
- ¹⁷ Gainditu zitzaten gehiegikeriak,
haren maitasuna betikoa baita.
- ¹⁸ Mespretxuak gaindi zitzaten,
haren maitasuna betikoa baita.
- ¹⁹ Herri solidarioa egiteko,
haren maitasuna betikoa baita.

- ²⁰ Eta errespeta zitzan beste herriak,
haren maitasuna betikoa baita.
- ²¹ Lurra hartu zuten Jainkoaren ondare bezala,
haren maitasuna betikoa baita.
- ²² Jainkoaren ondare bere herriarentzat,
haren maitasuna betikoa baita.
- ²³ Oroitu zen gutaz gure erorialdian,
haren maitasuna betikoa baita.
- ²⁴ Eta etsaiengandik gintuen askatu,
haren maitasuna betikoa baita.
- ²⁵ Bizidun guztiak janaritzen ditu,
haren maitasuna betikoa baita.
- ²⁶ Eskerrak eman Jainko zoragarri eta maitagarriari,
haren maitasuna betikoa baita.

137 (136). Salmoa
Sahatsetatik zintzilikatzen genituen gure zitarak

- ¹ Erbesteko ibai ertzetan
eseriak geunden negarrez,
gure lurraz oroitzuz.
- ² Ur ondoko sahatsetan utziak genituen
zitarak zintzilik.
- ³ Eta han guri kantu eske zeuden
erbesteratu gintuztenak.
Kanta alai eske gure zapaltzaileak:
“Kanta guretzat lurraldeko kantak”.
- ⁴ Nola kantatu Jaunaren kanturik
zapaltzen gaituen atzerriko lurraldean?
- ⁵ Zutaz ahaztu banendi, Bakearen Hiri,
geldi bekit eskua elbarri.
- ⁶ Geldi bekit mihia ahosabaian itsatsirik
beti gogoan ez bazaitut,
zu, Bakeraren Hiria, neure pozik handiena ez bazaitut.
- ⁷ Jauna, buka bedi haien gorrotoa
bakearekin amets egiten duen herriaren kontra.
Ez dezatela inoiz berriro esan: “Suntsitu, suntsitu,
suntsitu zimenduak daudeneraino”
- ⁸ Herri suntsitzaile,
bedeinkatua egin duzu gaizkiagatik
damutzen zaren eguna.
- ⁹ Bedeinkatua izango dira zure seme-alabak
justiziazko bideak egiten dituztenean.

138 (137). Salmoa
Jauna bikaina da

- ¹ Eskerrak ematen dizkizut, Jauna, bihotz-bihotzez
nire ahoko hitzak entzun dituzulako.
- ² Herriaren aurrean joko dut musika zure ohorez,
zure etxea dagoen tokirantz belaunikatuko naiz.
Eskerrak emanaz zure maitasun eta leialtasunagatik,
zure promesa zure ospea baino handiagoa baita.
- ³ Dei egin nizunean, entzun egin zenidan,
bihotzean kemena bizkortu.
- ⁴ Eskerrak ematen dizkizute, Jauna, lurreko herriek,
zure promesaren berri jakitean.
- ⁵ Zure nagusigoa dela eta, kantatuko dute:
“Handia da Jaunaren ospea.
- ⁶ Bai, gorena da Jauna,
eta apalari arretaz dio begiratzen”.
- ⁷ Arriskuz inguraturik aurkitzean,
eskua luzatu eta salba nazazu.
- ⁸ Dena egingo du Jaunak nire alde.
Jauna, zure maitasuna betikoa!
Ez utzi bertan behera hasi duzun lana.

139 (138). Salmoa
Bai ederrak, Jainko, zure asmoak!

- ¹ Jauna, zuk ikertzen nauzu eta ezagutzen.
- ² Badakizu noiz esertzen naizen eta noiz jaikitzen.
Urrutitik sumatzen dituzu nire burutapenak,
- ³ ohartzen zara noiz nabilen eta noiz nagoen geldi,
zehatz dakizu ene pauso guztien berri.
- ⁴ Oraindik ez dut hitza mihian
eta zuk, Jauna, badakizu esango dudana.
- ⁵ Atze eta aurre, estu bildua naukazu,
zure eskua nire gain jarrita.
- ⁶ Miragarria zure ezagutza, nitaz gaindikoa,
nik atzemateko garaiegia.
- ⁷ Nora joan zure espiritutik urruti?
Nora ihes egin zure aurretik?
- ⁸ Zerura igota ere, zu hantxe.
Hildakoen Egoitzara jaitsita ere, zu bertan.
- ⁹ Nahiz argiaren sorlekurantz hegaldatu,
nahiz mendebaldeko itsas mugetan kokatu,
- ¹⁰ han ere zure ezkerra gainean izango dut,
zure eskuinak helduko dit.
- ¹¹ Nahiz nik esan "ilunpeak estaliko ahal nau,
egun-argia gau bihurtuko ahal zait inguruan!"
- ¹² Ilunpea ere ez da zuretzat ilun,
gaua ere iluna bezain argi:
ilunpea eta argia zuretzat berdin.
- ¹³ Zuk eratu didazu gorputza,
zuk zaindu nauzu amaren sabeletik.
- ¹⁴ Eskerrak zuri hain izugarria zarelako,
zeure egintza miragarrietan nabarmena.
- ¹⁵ Barru-barruraino ezagutzen ninduzun,
nire hezur-mamiak ez ziren zuretzat ezkutu.
- ¹⁶ Zure begiek nire bizi-aroak ikusten zituzten,
idatziak zeuden denak zure liburuan,
eratuak zenituen nire egunak,
bat bakarra ere izatera iritsi baino lehen.

- ¹⁷ Oi Jainko, bai paregabeak niretzat zure burutapenak,
bai sakona haien barne-muina!
- ¹⁸ Kontatzen hasten banaiz, hondarra baino ugariago dira.
Bukatzean hor geldituko zinateke oraindik, zu.
- ¹⁹ Oi Jainko, gaiztoek ulertuko balute,
odolzaleek utziko balute beren indarkeria!
- ²⁰ Ez daitezela oldartu zure aurka,
ez dezatela jarrai haien asmoekin.
- ²¹ Gorroto dizutenak ez ditut gorrotatu nahi.
Zuk maitatzen duzun bezala maitatu nahi dut.
- ²² Maitasunaren beteaz maitatu nahi dut,
adiskidetzat hartu nahi ditut.
- ²³ Zorionekoa ni, ezagutzen duzulako nire bihotza,
barrura begiratu eta nire arrangurak ezagutzen dituzulako.
- ²⁴ Ikusi galbidetik ote nabilen,
gidatu ni zure betiko bidetik!

140 (139). Salmoa
Nola behar zaitudan, Jauna!

- ² Nola behar zaitudan, Jauna!
Biolentoek zapal ez nazaten!
- ³ Gaiztakeriak asmatzen ari dira
eta egunero borrokak sortzen.
- ⁴ Sugeak bezain mihi zorrotza daukate,
sugegorriaren pozoia ezpainetan.
- ⁵ Gorde nazazu, Jauna, gaizkileengandik,
zaindu indarkeria zaleengandik,
nondik estropezu eragingo baitabilzkit.
- ⁶ Harroek tranpak jartzen dizkidate ezkutuan,
gizatxarrek sarea hedatzen,
bidean lakioak ipintzen.
- ⁷ Jaunari diotsot: "Zu nire Jainkoa!"
Jauna, entzun onez nire erregu-oihua.
- ⁸ Jauna, ene Jainkoa, zu nire indar salbatzailea,
guduan burua babesten didazuna.
- ⁹ Jauna, ez eman adore gaiztoen gogoei,
ez utzi beren asmo maltzurak betetzen.
- ¹⁰ Zapaltzen nautenek uler dezatela
zer-nolako malezia bilbatzen duten haien ezpaineak!
- ¹¹ Zure maitasunaren txingar goriek irits daitezela haiengana,
bizi diren leizetik ateratzeko.
- ¹² Gaizki-esaleek ez bezate iraun lurraldean,
indarkeria ez dadila errotu gure artean.
- ¹³ Badakit Jaunak dohakabeari justizia egiten
eta behartsuen eskubideak defendatzen dituela.
- ¹⁴ Bai, zintzoek goretsiko zaituzte, Jauna,
zuzenak zure aurrean biziko dira.

141 (140). Salmoa
Jartzen didaten lakiotik gordetzen nauzu

- ¹ Jauna, deika naukazu eta nirekin zaude,
entzun nire ahotsa, nik dei egitean.
- ² Nire otoitza izan bedi zure aurrean intsentsua bezala,
nire esku altxatuak arrats-oparia bezala.
- ³ Ipini Jauna jagolea nire ahoari,
zaindu nire ezpainetako atea.
- ⁴ Ez utzi nire bihotzari sineste okerretara jotzen,
ez utzi niri gaiztakeriatan gaiztoen lapur izaten.
- ⁵ Pertsona zuzenek zentzatu nazatela
eta leialak errieta egin,
gaiztoak eraman ez nazan berera
bere gaiztakerietan parte hartzeko.
- ⁶ Haien buruzagiek topo egin dezatela justiziarekin,
eta on bihur ditzatela hainbeste mehatxu.
- ⁷ Horrela saihetsiko dute beren bizitzaren hondamendia,
zure bideen egia aurkitzen dutenean.
- ⁸ Zuregan ditut begiak, ene Jaun eta Jainko,
zuregan naiz ni babesten, ez ni hiltzen utzi.
- ⁹ Gorde nazazu ipini didaten tranpatik,
gaizkileen erasotik.
- ¹⁰ Zure justiziak atera ditzala beren sareetatik,
eta nirekin goza dezatela zure salbamena.

142 (141). Salmoa
Nola behar zaitudan

- ² Oihuka degiot Jaunari deiadar,
oihuka degiot Jaunari erregu.
- ³ Haren aurrean husten dut neure kexa,
haren aurrean agertzen neure egoera larria.
- ⁴ arnasa galtzen ari bainaiz.
Baina zuk ezagutzen duzu nire ibilbidea, Jauna.
Badakizu nabilen bidean tranpa jarri didatela.
- ⁵ Begira inguruan eta ikus: ez nau inork aintzat hartzen
ez dut ihesbiderik,
ez da inor nitaz ardura.
- ⁶ Horregatik degizut deiadar, Jauna,
zuri diotsut "Zu nire babesleku,
nire ondasun bizien lurraldean".
- ⁷ Nola behar dudan zure laguntza
lur jota bainago erabat.
Zure arreta guztia behar dut,
ni baino indartsuagoak baitira.
- ⁸ Zuk bakarrik atera dezakezu nire bizitza
presondegi honetatik, eta eskerrak emango dizkizut.
Pertsona zuzenek zorionduko naute
egin dizkidazun mesedeengatik.

143 (142). Salmoa
Zure espiritu onak gida nazala

- ¹ Jauna, entzun nire otoitza,
makurtu belarria nire erregura.
Zuzena zarelako eta leiala, entzun niri.
- ² Ez jo auzitara zure zerbitzari honekin,
ez baita bizidunik zure aurrean errugabe.
- ³ Etsaiak gogor pertsegitzen nau,
bizirik zanpatzen lurraren kontra,
ilunpetan bizarazten nau,
behin betiko hildakoak bezala.
- ⁴ Arnasa galtzen ari naiz,
bihotza barruan lehor.
- ⁵ Aspaldiko garaiez oroitzen naiz,
zure egintza guztiak buruan darabiltzat,
nik egindakoak hausnartzen ditut.
- ⁶ Zuregana jasorik ditut eskuak,
zure egarri naiz, lur lehorra bezala.
- ⁷ Erantzun laster, Jauna, arnasarik gabe bainago,
ez ezkutatu niri zure aurpegia,
zulora doazenekin bat egin ez dezadan.
- ⁸ Emadazu goizean goiz zeure maitasunaren berri,
zuregan baitut uste on.
Erakustazu jarraitu behar dudan bidea,
zuregana jaso baitut gogo.
- ⁹ Libra nazazu, Jauna, etsaiengandik,
zuregan babesten bainaiz.
- ¹⁰ Erakustazu zure nahia betetzen,
zu baitzara nire Jainkoa.
Zeure espiritu ongileaz gida nazazu
toki egokitik.
- ¹¹ Zarena zarelako, Jauna, gorde nazazu bizirik,
zeure justiziagatik atera ni larrialditik,
- ¹² zeure maitasunak eralda ditzala nire etsaiak,
zure justiziak bihozberri ditzala pertsegitzen nautenak,
zuga daukat nire uste on.

144 (143). Salmoa
Zorionekoa Jauna Jaungoikotzat daukan herria!

- ¹ Bedeinkatua Jauna, nire harkaitza,
eskuak bizitzako gudurako trebatzen dizkidana.
- ² Ene lagun eta gaztelua,
ene gotorleku eta askatzailea,
ene babeski eta geriza,
berak deitzen dit egunero senidetasunera.
- ³ Jauna, zer da gizakia zu hartaz arduratzeko,
zer gizasemea, zuk harengan pentsatzeko?
- ⁴ Gizakia arnasaldi baten antzeko da,
haren egunak itzal iheskorren antzeko.
- ⁵ Jauna, kreaio guztian presente zaude,
mendiek ukitu eta pozez jauzika jartzen dira.
- ⁶ Jaurti tximistak, eta izaki guztiak biltzen dituzu,
zure pasioa erakutsi
eta mundua isildu egiten da txundituta.
- ⁷ Luzatu eskua goitik, aska nazazu,
libratu uholdetik,
larderiatsuen boteretik salbatzeko.
- ⁸ Haien ahoari faltsukeria dario,
haien eskuinak gezurrezko zina dagi.
- ⁹ Kantu berria kantatuko dizut, ene Jainko,
hamar hariko harpa joko zuretzat.
- ¹⁰ Zuk ematen diozu jende umiliatuari garaipena,
eta lagundu egiten diozu bere senidetasun ametsetan.
- ¹¹ Senti dezadala zure eskua larderiatsuetatik libratzen.
Haien ahoari faltsukeria dario,
haien eskuinak gezurrezko zina dagi.
- ¹² Izan bitez gure semeak landareen antzeko,
gaztedanik ongi haziak;
gure alabak zutabeen antzeko,
jauregiaren euskarri landuak.
- ¹³ Beterik daude gure bihitegiak,
denetariko fruituz hornituak;
ugaldu bitez milaka artaldeak gure zelaietan,
- ¹⁴ mardul bitez gure abereak.
Ez bedi izan inbasiorik, ez erbesteratzerik,
ezta gure plazetan garrasirik ere.
- ¹⁵ Zorionekoa hauek guztiak dituen herria,
zorionekoa Jauna Jainko duen herria.

145 (144). Salmoa
Ontasunez asetzen dituzu bizidun guztiak

- ¹ Goratuko zaitut ene Jainko, ene errege,
zure izena beti bedeinkatuko.
- ² Egunero bedeinkatuko zaitut,
zure izena beti goretsiko.
- ³ Handia da Jauna, guztiz goresgarria,
ulermenaz gaindikoa haren handitasuna.
- ⁴ Belaunaldi batek besteari zure egintzak goraiatzan dizkio,
zure egite ahaltsuak iragartzen.
- ⁵ Zure aintza eta gorespen distiratsua aldarrikatzen dute,
eta nik zure egintza harrigarriak adierazten.
- ⁶ Zure balentria ikaragarriak aipatzen dituzte
eta nik zure egintza handiak kontatzen.
- ⁷ Zure ontasun neurrigabearen berri zabaltzen dute,
eta zure salbamena pozik oihukatzen.
- ⁸ Errukiorra eta bihozbera da Jauna,
haserregaitza eta onginahi handikoa.
- ⁹ Ona da Jauna guztientzat,
gupidaz betea bere sorkari guztientzat.
- ¹⁰ Gorets zaitzate, Jauna, zure sorkari guztiek,
bedeinkatu zeure fededunek.
- ¹¹ Aipa bezate zure erregetza ospetsua,
mintza bitez zure ahalmenaz.
- ¹² Gizakiei agertuz zure egite ahaltsuak,
zure erregetza ospetsua.
- ¹³ Zure erregetzak beti irauten du,
zure aginteak menderen mendetan.
- Fidagarria da Jauna bere hitz guztietan,
leiala bere egintza guztietan.
- ¹⁴ Erortzear daudenei Jaunak die eusten,
lur joak ditu altxatzen.
- ¹⁵ Zuri begira daude denak zain,
eta zuk jaten ematen diezu bere garaian.
- ¹⁶ Eskua zabaldu eta bizidun oro
onginahiz asetzen duzu.
- ¹⁷ Zuzena da Jauna jokabide guztietan,
leiala egintza guztietan.

- ¹⁸ Hurbil da Jauna dei egiten diotenengandik,
benetan dei egiten diotenengandik.
- ¹⁹ Begirune diotenen nahia betetzen du,
haien oihuak entzun eta salbatu egiten ditu.
- ²⁰ Maite dutenak gordetzen ditu Jaunak,
gaiztoak bihozberritzen saiatzen da.
- ²¹ Egin beza nire ahoak Jaunaren gorespena,
eta bedeinka bezate izaki guztiek haren izen santua,
beti eta beti.

146 (145). Salmoa
Jauna goretsiko dut bizi naizen artean

¹ Aleluia! Gora Jauna!

Gorets beza ene arimak Jauna!

² Goretsiko dut Jauna bizi naizen artean,
soinua joko neure Jainkoari, bizi naizen artean.

³ Ez izan konfiantzarik handiengan,
salbatzeko gauza ez diren gizakiengan.

⁴ Azken arnasa emanik, hauts bihurtzen dira,
eta akabo orduan haien egitasmoak.

⁵ Zorionekoa pobreen Jainkoa lagun duena,
bere Jainko Jauna itxaroten duena.

⁶ Jaunak egin ditu zeru-lurrak eta itsasoa,
eta horietan dagoen guztia.
Beti eusten dio bere hitzari.

⁷ Zapalduen eskubideak defendatzen ditu,
gose direnei ogia ematen.

Jaunak askatzen ditu presoak,

⁸ Jaunak zabaltzen itsuen begiak,
Jaunak altxatzen lur jota daudenak,

⁹ Jaunak ditu etorkinak zaintzen,
umezurtz eta alargunei zutik eusten.

^{8c} Jaunak maite ditu zintzoak,

^{9c} Jaunak berbideratzen ditu gaiztoak.

¹⁰ Jauna errege da betiko,
herri guztien Jainkoa betiren beti.

147 (146-147). Salmoa
Irin lorearekin asetzen gaitu

Aleluia! Gora Jauna!

- ¹ Bai eder gure Jainkoa kantuz ospatzea,
bai gozo bera doinu eztiz govestea!
- ² Jaunak du Bakearen Hiria berreraikitzen,
etorkin eta erbesteratuak biltzen.
- ³ Bihotz hautsiak sendatzen ditu,
haien zauriak osatzen.

- ⁴ Izarren kopurua finkatzen du
eta bakoitzari bere izena ematen.
- ⁵ Handia da gure Jauna, guztiz indartsua,
haren jakinduria neurrigabea.
- ⁶ Jaunak zutik eusten die umilei,
lurreraino eraisten ditu gaiztoak.

- ⁷ Kanta esker onez Jaunari,
jo zitara gure Jainkoari.

- ⁸ Zerua hodeiz estaltzen du,
lurrarentzat euria prestatzen,
eta mendietan larrea ernearazten.
- ⁹ Janaria ematen die abereei
eta karranka ari zaizkion belakumeei.

- ¹⁰ Ez du maite zaldiaren indarra,
ez du estimatzen gizakiaren bizkortasuna.
- ¹¹ Begirune diotenak estimatzen ditu Jaunak,
haren maitasunean itxaropen dutenak.
- ¹² Ospatu Jauna, Bakearen Hiri horrek,
goretsi zure Jainkoa.

- ¹³ Zure ate morroiloak sendotu baititu,
eta seme-alabak zure baitan bedeinkatu.
- ¹⁴ Zeure lurraldera bakea ekarri dizu,
garirik onenaz asetzen zaitu.

- ¹⁵ Hark bere hitza lurrera bidali
eta arin lehiatzen da bere helburua.
- ¹⁶ Artilea bezala erorarazten du elurra,
hautsa bezala zabaltzen antzigarra.

- ¹⁷ Ogi apurrak bailira botatzen du izotza,
nork jasan haren hotza?
- ¹⁸ Hark agindu eta urtu egiten da izotza,
haizeari joarazi eta isurian doaz urak.
- ¹⁹ Bere hitza iragartzen dio herriari,
bere erabaki eta legeak onartu nahi dituenari.
- ²⁰ Jaunak herri guztiekin egiten du hori bera,
bere erabakiak ezagutarazten dizkie.

148. Salmoa
Sorkari guztien gorespena

Aleluia! Gora Jauna!

- ¹ Goretsazue Jauna zerutik,
goretsi zeru goienetik.
- ² Goretsazue haren aingeru guztiok,
goretsi, haren gudari guztiok.
- ³ Goretsazue eguzki eta ilargi,
goretsi, izar argitsu.
- ⁴ Goretsazue zeru zabalak,
eta zeru gaineko urok.
- ⁵ Gorets bezate Jaunaren izena,
hark agindurik sortu baitziren.
- ⁶ Betidanik betidaino ezarri zituen,
balioa inoiz gelduko ez duen legea emanaz.

- ⁷ Goretsi Jauna lurretik herensuge eta leize,
⁸ goretsi su eta kazkabar, euri eta laino
eta haren esanera zaudeten haize-erauntsiok.
- ⁹ Mendi eta muino guztiok,
fruta arbola eta zedro guztiok,
- ¹⁰ basabere eta etxabere, narrasti eta hegazti.
- ¹¹ Goretsazue munduko errege eta herriok,
buruzagi eta gobernari guztiok.
- ¹² Mutil eta neskatxa, agure eta haur.

- ¹³ Gorets bezate Jaunaren izena,
izen goren bakarra.
Haren ospea zeru-lurren gaineretik garai.
- ¹⁴ Bere herriari garaipena ematen dio.
Gorespena zor diote fededun guztiek,
gorespena bere-berea duen herri,
seme eta alaba maiteak.

149. Salmoa
Garaipen ereserkia

¹ Aleluia! Gora Jauna!

Kanta Jaunari kantu berria,
goretsazue fededunen batzarrean.

² Poz bedi herria bere Egileaz,
alaitu haren babeslea.

³ Gorets bezate haren izena dantzan eginez,
danbolina eta zitara berarentzat joz.

⁴ Jaunak bere herria maite baitu,
umilak garaipenez jantziko ditu.

⁵ Alai bitez fededunek beren Jainko ospetsuaz,
egin bezate poz-oihu beren etzalekuetan.

⁶ Izan bezate Jainkoaren gorespena ahoan
bakea eta justizia eskuetan.

⁷ Senidetasuna zabalduko dute herrien artean,
solidaritatea nazioen artean.

⁸ Bidegabekeriaren aurka borrokatuko dute,
gehiegikeria eta zapalkuntza ororen kontra.

⁹ Jainkoaren nahia horrela betetzea
ohoragarri da haren fededun guztientzat.

Aleluia! Gora Jauna!

150. Salmoa
Arnasa duen orok gorets beza Jainkoa

¹ Aleluia! Gora Jauna!

Goretsazue Jauna bere santutegian,
goretsi bere zeru-sabai tinkoan.

² Goretsazue bere egite ahaltuengatik,
goretsi bere neurrigabeko handitasunagatik.

³ Goretsazue adar-soinuz,
goretsi harpa eta zitaraz.

⁴ Goretsazue danbolin eta dantzez,
goretsi hari-soinuz eta txirulaz.

⁵ Goretsazue txilin ozenez,
goretsi txilin durunditsuz.

⁶ Gorets beza Jauna amasadun orok!

Aleluia! Gora Jauna!